# Euskadiko 2020 Erakundearteko Ekintzailetza Plana

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

# Edukia


## Planaren sarrera ....................2

## I. blokea: abiaburuko testuingurua ....................5

**1.1. Planaren arrazoiak eta aukerak** ....................5
**1.2. Testuinguru instituzionala eta normatiboa** ....................7
1.2.1. Nazioarteko testuingurua ....................8
1.2.2. Estatuko testuingurua ....................9
1.2.3. Euskal testuingurua ....................10
**1.3. Erreferentziazko nazioarteko joera eta praktikak** ....................13

## II. blokea: Ekintzailetzaren egoeraren diagnostikoa ....................15

**2.1. Ekintzailetzaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan** ....................17
2.1.1. Jarduera ekintzailea ....................17
2.1.2. Ekintzailearen profila ....................22
2.1.3. Ekintzailetzarako laguntza ....................24
**2.2. Euskal ekintzailetza eredua** ....................30
**2.3. Euskal ekintzailetzaren erronkak etorkizunera begira** ....................34

## III. blokea: EEP 2020ren estrategia ....................39

**3.1 Etorkizuneko ikuspegia** ....................40
**3.2 Helburu estrategikoak** ....................41
**3.3. Balio proposamena** ....................42
**3.4. Kontaketa estrategikoa: UP Euskadi** ....................44

## IV. blokea: Lehentasunezko jardute ardatz, ildo eta proiektuak ....................45

**4.1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak** ....................46
**4.2. Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa** ....................48
**4.3. Ekintzailetza iturri eta ideiak** ....................52
**4.4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko bidea** ....................56
**4.5. Merkaturako sarbidea** ....................61
**4.6. Prozesuak, zerbitzuak eta laguntza programak** ....................64
**4.7. Fiskalitatea eta araudi erraztailea** ....................68
**4.8. Azpiegitura adimendunak** ....................71
**4.9. Ekosistemaren posizionamendua** ....................71

## V. blokea: ekintza plana eta gobernantza eredua ....................76

**5.1. Ekintzak eta aurrekontua** ....................76
5.1.1. Ekintzak ....................76
5.1.2 Aurrekontua ....................76
**5.2. Kudeaketa eta koordinazioa** ....................77
**5.3. Jarraipen eta ebaluazio sistema** ....................79

## Eranskinak ....................81

**A1. 2013-2016 EJLEPren ebaluazioa** ....................81
**A2. Testuinguru instituzionala eta normatiboa: euskal testuinguruko plan eta araudien xehetasuna** ....................85
**A3. Ekintzailetzaren erreferentziazko nazioarteko praktikak: xehetasuna** ....................91
**A4. "Babson Entrepreneurship Ecosystem Project" eredua** ....................97
**A5. Ekintzailetzako ekintzen katalogoa** ....................99
**A6. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Batzordeak onartutako Ebazpen proposamenak, 2017ko urriaren 2an egindako saioan onartuak, Euskadiko 2020ko Erakundearteko Ekintzailetza Planari buruzko eztabaidaren ondoren (EEP 2020).** ....................123

# Planaren sarrera

Euskadiko 2020 Erakundearteko Ekintzailetza Planean (EEP 2020), EAEko eragile publiko nagusiek ekintzailetzarekin hartua duten babes konpromisoa jasotzen da. Konpromiso hori EAEaren[1] eraldaketa ekonomiko eta sozialerako ahalegin partekatu gisa aurkezten da.

Ekintzailetzan parte hartzen duten kolektiboak, tipologia eta prozesu barruko etapei laguntzeko dauden programa eta tresnak biltzen dira, honenbestez, planean; gero eta ekintzaileagoa izango den gizarte baten alde egiteko; jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortuko duten enpresa lehiakor eta sostengarriak nahiz proiektu berriak garatzeko; eta Euskal Autonomia Erkidegoa ekintzailetzan jarduteko leku erakargarri gisa posizionatzeko.

Laburki, hona hemen EEP 2020ren eduki nagusiak:

**I. blokea - Abiaburuko testuingurua:**

a. Planaren arrazoiak eta egokitasuna: EEP 2020 plana landu eta martxan jarri izana azaltzeko, esan behar da badagoela ekintzailetzaren potentziala eraldaketa ekonomiko eta sozialerako palanka gisa aprobetxatzeko behar bat, eta badagoela jarduera hori babesteko erakunde artean hartutako konpromisoarekin segitzeko beharra ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren gidaritzapean eta dagokion arau esparruaren barruan (Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legea).
b. Instituzio eta arau testuingurua: ekintzailetzaren inguruko arau esparrua ez da funtsezko eran aldatu azken urteetan. Nazioartean eta estatuan, ekintzailetzak plan eta estrategia publikoetan hartu du garrantzia. Eta EAEn, ekintzailetza lehentasunezkoa da oraindik ere Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetan, foru aldundietan eta udaletan; hori dela eta, EEP 2020 planak askotariko plan eta estrategiekin konektatu eta lerrokatu behar du enpleguaren, hezkuntzaren eta osasunaren arloetan, besteak beste.
c. Erreferentziazko nazioarteko joera eta praktika: ekintzailetzak une gozoa bizi du maila globalean. Antza denez, ez dago ekintzailetzaren alde –garapen ekonomiko eta sozialerako palanka gisa– apustu gutxi-asko esplizitua egiten ari ez den herrialde edo eskualderik. Hala ere, joera horrek berekin dakar lehia internazionalaren hazkundea, ekintzaileak eta startupak nork bereganatuko. Testuinguru hori kontuan hartuta, EEP 2020k erreferentziako joera eta praktika internazional batzuk aztertzen ditu, ikaskuntzarako eta aukerak detektatzeko ariketa gisa.

**II. blokea - Ekintzailetzaren egoeraren diagnostikoa:**

a. Ekintzailetzaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan:
   i. Alta eman duten enpresa eta autonomoen kopuruak erakusten duenez, azken urteetan badago joera positibo bat, ekonomiaren susperraldiarekin bat datorrena. Ekintzailetza proiektu berriek sendotasuna erakusten dute, biziraupen tasa nabarmenekin erakutsi ere. Hala ere, ideien eta proiektuen masa kritikoan, horien tamainan, hazteko anbizioan eta nazioarteko orientazioan badago, oraindik ere, hobetzeko tarterik.
   ii. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude ekintzailetzan jarduteko nahikoa helduak eta trebatuak diren pertsonak. Giza kapital horrek, nagusiki, oportunitatea ikusita dihardu ekintzailetzan, porrot egiteko gero eta beldur gutxiagorekin. Haatik, ekintzailetza etorkizunerako aukera gisa ikusteko pertzepzioa, oraindik ere, murritza da, eta elkartutako balioak ez daude zabalduta, ezta ekintzailearen eta enpresariaren errekonozimendua ere.
   iii. 80ko urteetatik hona, sistema publikoa ibili da EAEko enpresa eta pertsona ekintzaileei laguntzeko ahaleginaren buruan. Hala, gero eta osoagoa eta segmentatuagoa den zerbitzu, azpiegitura eta programa multzo bat landu du askotariko kolektibo ekintzaileen beharren arabera. Eta hori guztia parekagarria da estatuko eta nazioarteko beste ekosistema batzuekin. Poliki-poliki, hainbat eragile pribatu eta parapubliko ere inplikatu dira (finantza, enpresa,

[1] *Euskal Autonomia Erkidegoa*

teknologia eta akademia arloetakoak, besteak beste), eta eragile publikoen lana osatu dute, estali gabeko laguntza beharrei erantzuna emanez. Horiek guztiek osatzen duten ekosistema publiko-pribatua gero eta osoagoa eta aktiboagoa da.

b. Euskal ekintzailetza eredua: bost ezaugarrik definitzen dute euskal ekintzailetza. Hona hemen ezaugarriok: hasitako proiektuen biziraupen handia; ekintzaileen prestakuntza; laguntza publiko eutsia; "arrantzategi" aktibo (ideienak eta proiektuenak) ugariak; eta, azkenik, ekintzailetza babesten ari den ekimen pribatua, zeina gero eta handiagoa den; eta ildo horretan, bereziki aipatu beharra dago enpresa eta industria egituraren inplikazioa, jarduera eta proiektu berrien motor gisa. Euskal Autonomia Erkidegoa ekintzailetzarako lurralde erakargarri egiten duten bost tasun bereizgarri.

c. Etorkizunerako erronkak: ekintzailetzaren kultura eta balioak zabaltzea; kolektibo sozial guztien eta ekintzailetza tipologia guztien beharrei erantzutea; giza kapital ekintzailea erakarri eta konektatzea; finantzaketara, inbertsiora eta merkatura iristeko aukerak ematea; kolektibo bakoitzari eta ekintzailetza ziklo bakoitzari laguntzeko programa eta zerbitzuak eguneratzea; fiskalitatea eta araudia egokitzea; laguntzeko azpiegitura adimendunak edukitzea eta Euskal Autonomia Erkidegoa "ekintzailetzarako leku on" gisara posizionatzea.

**III. blokea - EEP 2020ren estrategia:**

a. Etorkizunera begirako ikuspegia: hona hemen ikuspegi hori osatzen duten lau elementuak: gero eta ekintzaileagoa den gizartea; ekintzailetzarako gaitasuna eta jarrera daukaten norbanakoak; laguntzeko ekosistema kohesionatu eta eraginkor bat, eta Euskal Autonomia Erkidegoak, ekintzailetzarako leku erakargarri gisa, daukan posizionamendua.

b. Helburuak: ekintzailetza integralki babestea, gero eta proiektu, enpresa eta enplegu berri, lehiakor eta sostengarri gehiago sor eta haz daitezen, batez ere etorkizun oparoko sektoreetan, Euskadi ekonomikoki eta sozialki eraldatzeko aro berri bat sor dadin. Helburu nagusi horren pean, etorkizunerako erronkekin lerrokatutako bigarren mailako bederatzi helburu planteatzen dira.

c. Balio proposamena: EEP 2020k laguntza integrala ematen dio ekintzailetzari EAEn, laguntza horretan sartzen baitira askotariko motibazioak (premia eta oportunitatea), kolektiboak (gizartea eta segmentu espezifikoak, ikasleak, norbanako ekintzaileak, enpresa berriak, startupak eta enpresa sendotuak), tipologiak (ekintzailetza aurreratua edo berritzailea, inklusiboa nahiz soziala), ekintzailetzaren bizi zikloaren faseak eta laguntza premia desberdinak.

d. Kontaketa estrategikoa: UP Euskadi markaren pean, Planak kontaketa komuna proposatzen die euskal ekintzailetzan inplikatuta dauden eragile guztiei. Ikuspegi partekatu bat euskal ekintzailetza ereduaren, bere balioen, helburuen eta jardute printzipioen inguruan, gero eta osoagoa, aktiboagoa, konektatuagoa eta sinergikoagoa izango den ekosistema publiko-pribatu bat eraikitzen laguntzeko.

**IV. blokea - Lehentasunezko jardute ardatz, ildo eta proiektuak:**

a. Lehentasunezko jardute ardatz, ildo eta proiektuak: EEP 2020k bederatzi jardute ardatz planteatzen ditu. Ardatz horiek lehentasunezko hainbat lan ildo eta proiektutan banakatzen dira. Lan ildo eta proiektu horiek eragile publiko eta pribatu nagusiek zehaztu dituzte, etorkizuneko erronkei behar bezala erantzuteko.

**V. blokea - Ekintza Plana eta gobernantza eredua:**

a. Ekintzak eta aurrekontua: EEP 2020k era eta mota guztietako ekintzailetzari laguntzeko 300 ekintza baino gehiago jasotzen ditu. Eragile publiko eta pribatuak ekintza horiek lantzen ari dira, edo bestela datozen urteetan lantzeko asmotan dabiltza. 2017an, ekintza horien bidez Planarekin zuzenki lotutako aurrekontua 72,5 milioikoa da.

b. Kudeaketa eta koordinazioa: segimendu, ebaluazio eta kontu emateko hainbat parte hartze mekanismo planteatzen dira 2017-2020 aldian Plana eraginkorki ezartzeko.

c. Jarraipen eta ebaluazio sistema: azkenik, alde batetik, adierazleen panel espezifiko bat eta, bestetik, Planaren aurrerapena, jardute ardatzak eta lehentasunezko proiektuak ebaluatzeko urteko txosten bat egiteko konpromisoa jasotzen ditu.

Honako hau, tankera honetako **bigarren plana** da, Ekintzailetza Jarduera Laguntzeko 2013-2016 Erakundearteko Planaren ondoren (EJLEP), non, inplikatutako administrazio nagusien baterako lanari esker, euskal ekintzailetzaren ikuspegi integrala jaso baitzen estreinakoz.

Bi plan horiek, beraz, instituzioek azken hiru hamarkadetan ekintzailetzari lagunduz egindako ahalegin eutsiari ematen diote jarraipena, eta, horrez gain, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legearen eskakizunei erantzuten diete.

Azkenik, komeni da gogoratzea EEP 2020 plana **erakudeartekoa eta departamentuartekoa dela, eta eragile publiko eta pribatuen lankidetzara irekita dagoela.**

Horren erakusgarri da honako hauek guztiek parte hartu izana planaren lanketan: Eusko Jaurlaritzako Sail guztiek, hiru Foru Aldundiek, EAEko Udalek[2], EUDELen bitartez, eta hiru hiriburuetakoek, GARAPEN-Euskadiko Udalerrien Tokiko Garapenerako Agentziek eta baita egunero EAEko ekintzailetza babesten duten beste eragile batzuek ere (eragile finantzarioak, inbertitzaileak, enpresarialak, hezkuntzakoak eta sozialak).

**Euskadiko 2020 Erakundearteko Ekintzailetza Planean parte hartu dutenen mapa**




[2] *Euskadiko Udalen Elkartea*

# I. blokea: abiaburuko testuingurua

## 1.1. Planaren arrazoiak eta aukerak

Zein dira EEP 2020 plana martxan jartzeko arrazoi bultzatzaileak?:

1. **Ekintzailetza Euskadiko eraldaketa ekonomiko eta sozialerako palanka gisa sustatzen jarraitu beharra.** Aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri berrien bilaketa –batez ere etorkizun oparoko sektore estrategikoetan– Euskadiren lehiakortasunaren eta sostengarritasunaren oinarria da. Jarduera ekonomiko berriaren sorkuntza eutsiari esker, EAE gizarte aurreratu eta lehiakorra bihurtu da nazioartean, eta, etorkizunera begira, abantaila hori aprobetxatu egin behar da lehiaren hurrengo faserako bidean aurrera egiteko.

    - Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiaren programak ekintzailetzaren rol protagonista aitortzen du 2020rako[3] lehentasun instituzionalen artean, eta herrialde helburu gisa ezartzen ditu, besteak beste, langabezia %10tik behera jaistea, 20.000 gaztek laneko lehenengo esperientzia izatea, industriak euskal BPGaren %25 ematea eta EBren biztanleko BPGaren %125era iristea.
    - Euskadiko egoera ekonomiko orokorra eta aurreko Plana landu zeneko datan zegoen egoera oso desberdinak dira. 2015 eta 2016an, BPGaren hazkundea %3 inguruan jarri zen eta, 2017 eta 2018ra begira, hazkunde txikixeagoak baina positiboak espero dira (%2,3ko urtetik urterako aldaketa 2017an eta %2,9koa 2018an[4]).
    - Sortutako jarduera berriaren eta hortik eratorritako hazkunde ekonomikoaren ondorioz, enpleguaren egoera hobetuz doa 2013az geroztik. Hala ere, langabezia tasa oso altua da oraindik ere –%12,5ekoa 2016an– eta eragin berezia dauka gazteen artean (termino erlatiboetan).
    - Etorkizunera begira, 2017-2020rako BPGa batez beste %1,5-2 haztea hipotesi moduan hartuta, 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiak aurreikusten du Gizarte Segurantzan 30.000-40.000 afiliazio garbi gehigarri egotea; hori hala bada, espero izatekoa da krisian suntsitutako enpleguaren zatirik handiena 2020rako berreskuratuta edukitzea.

**Langabezia tasa Euskadin, Espainian eta Eurogunean 2006-2016an, eta 2017-2020 aldirako aurreikuspena**
Biztanleria aktiboarekiko %; 2006-2016ko IV. hiruhilekoa




*Iturria: Eustat (BJA-Biztanleria jardueraren arabera), INE (BAI-Biztanleria aktiboaren inkesta) eta Eurostat.*

[3] *Zehazki, zera jasotzen du programak: Eusko Jaurlaritzak, EEP 2020n aurrerago xehatzen diren hainbat konpromiso eta egitasmoren bidez, ekintzailetzaren alde egindako apustua.*

[4] *Eustat (2006-2016), Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila (2017), BBVA (2018)*

- Ekintzaileetzak rol inportantea jokatu behar du susperraldi horretan, bereziki gazteen eta emakume langabeen kolektiboetan, euskal administrazio publiko desberdinek proposatutako plan eta neurriei esker.

2. Asmoa da **Euskadin azken hogeita hamar urteetan ekintzaileetza jarduerari** –bere fase, kolektibo eta forma desberdinetan– **emandako laguntza integralari jarraipena ematea** (autoenplegua, ekintzaileetza aurreratua, barne ekintzaileetza eta kultura ekintzailea). Joan zen legealdian, konpromiso hori honelaxe gauzatu zen:
   - Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien artean Euskal Ekintzaileetza Sistema bat Garatzeko lankidetzazko Esparru Hitzarmen bat sinatzea.
   - Ekintzaileetza Jarduerari Laguntzeko 2013-2016 Erakundearteko Plana eta EJLEP 2013-2016 planaren Gauzatze Balantzearen urteko txostena landu eta ezartzea, Planaren Erakundearteko Mahaiko eragileen baterako lanari esker (Eusko Jaurlaritzako bost sail eta foru aldundietako Sustapen Ekonomikoko Departamentuak)[5].
   - Programa eta laguntza tresna berriak martxan jartzea; besteak beste, startupen nazioarteko BIND 4.0 azelerazio programa, Basque Fondo eta halako finantzaketa tresna berriak (3 urte baino gutxiagoko enpresa txiki eta ertainei zuzendutako kapital eta finantzaketa fondoa), sinplifikazio administratiboan eta tramitazio telematikoan izandako aurrerapenak eta ekintzaileetzari laguntzeko neurri fiskalen eguneraketa.

3. **Eusko Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren lidergoaren bitartez**, oraingo legealdian "Euskadiko 2020 Erakundearteko Ekintzaileetza Plana" lantzeko **erakutsitako borondatea eta hartutako konpromisoa**; hain zuzen ere, Plan hori izango da beren lehentasunen artean ekintzaileetza jartzen duten euskal instituzio guztientzako lehentasunak planifikatu eta finkatzeko esparru estrategiko komuna.

4. **Indarrean dagoen lege esparrua betetzea.** Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legeak agintzen duenez, beste neurri batzuen artean, erakundearteko lau urterako plan bat landu behar da, non euskal administrazioak bultzatu eta sustatzeko programak eta jarduketak jasoko diren.
   - EEP 2020 plana, berez, Erakundearteko bigarren Ekintzaileetza Plana da –EJLEP 2013-2016 planaren ondotik– betebehar hori betetzen duena eta ekintzaileetzari laguntzeko oraingo euskal sistema berrikusi, egokitu eta indartzen jarraitzea proposatzen duena, kontuan harturik laguntza politiken, programen, zerbitzuen eta azpiegituren multzo batek, eta administrazio, finantza, zerga eta arau tresnek osatzen dutela sistema hori.

[5] *Eranskinean jasotzen dira bai ekarpen nagusiak bai 2013-2016 EJLEPn definitutako segimendu adierazleen eboluzioa.*

## 1.2. Testuinguru instituzionala eta normatiboa

Esan berri dugunez, EEP 2020 plana nazioarte, estatu eta toki mailako testuinguru instituzional eta normatibo batean sarturik dago, eta testuinguru horrek baldintzatu egiten ditu ekintzaileetzari laguntzeko tresnak eta lehentasunak.

**2020 Erakundearteko Ekintzailetza Planaren esparru instituzional eta normatiboa laburki**

**Nazioartekoa**

**Garapen Iraunkorrerako NBEren Agenda 2030**
***People, Prosperity, Peace, Planet and Partnership***

**Europa 2020 Estrategia**

**Small Business Act**

- Ekintzailetzari buruzko 2020 Ekintza Plana
- COSME programa. Enpresen eta Enpresa Txiki eta Ertainen Lehiakortasunerako Programa
- HORIZON 2020 programa, I+Gko esparru programa
- EASI. Enplegu eta Berrikuntza Sozialerako Programa

**Estatua**

**Ekintzaileari eta haren nazioartekotzeari laguntzeko Legea**

**Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa**

- Gazte Ekintzailetzaren eta Enpleguaren 2017-2020 Estrategia

**EAE**

**Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea**

**2020 Euskadi - XI. Legealdiko Gobernu Programa 2016-2020**

**Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 Esparru Programa**

- *Basque Country 2020 Nazioarteko Estrategia (lanketa prozesuan)*
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren estrategia (EGAS)
- *Basque Industry 4.0 2017-2020 Industrializazio Plana (lanketa prozesuan)*
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020 Plana
- Landa Garapeneko Programa 2015-2020
- Invest in the Basque Country Estrategia
- 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia
- *2017-2020 Enplegu Plana (lanketa prozesuan)*
- Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako 2020 Estrategia
- Heziberri 2020 Plana, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarena
- EAEH Sisteman oinarrizko konpetentziak arautzen dituen 2015eko dekretua
- 2015-2018 Unibertsitate Plana
- 2015eko Lanbide Heziketako Legea
- *Lanbide Heziketako Euskal Plana 2018-2021 (lanketa prozesuan)*

**Euskal Ekintzailetza Sistema bat Garatzeko Lankidetzazko Esparru Hitzarmena**

- Bizkaia Goazen 2030 Estrategia, Bizkaiko Foru Aldundiarena
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2016-2020 Ekonomia Suspertzen Laguntzeko Plana
- Arabako Foru Aldundiaren markoa ekintzailetza jarduera babesteko

Lege arloan, azken urteetan ez da aldaketa esanguratsurik izan eta iragan urteetan ekintzailetzari laguntzeko onartutako legeek indarrean segitzen dute.

Instituzioei dagokienez, ekintzailetza 2020rako lehentasunetako bat da Nazio Batuen Erakundearentzat (Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030), eta Europar Batasunarentzat, Ekintzailetzaren gaineko 2020 Ekintza Planarekin. Gauza bera esan genezake, estatuan, Gazte Ekintzailetzaren eta Enpleguaren 2017-2020 Estrategia berriaz. Euskadin, ekintzailetzak garrantzia hartu du, lehentasunezko jardute ardatz gisa, Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko programan eta Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen estrategia eta plan ugaritan.

Testuinguru hori kontuan hartuta, EEP 2020 **euskal instituzioen esfortzuekin konektatzen eta lerrokatzen da,** ekintzailetzari laguntzeko neurriak jasotzen dituzten egitasmo eta plan sektorialak xertatuz. Ondoren, aipatutako testuingurua osatzen duten lege, plan eta estrategia nagusiak aztertuko ditugu[6].

### 1.2.1, Nazioarteko testuingurua

**Garapen Iraunkorrerako NBEren Agenda 2030**

Agenda 2030 egitasmoaren xedea da **munduko bakea indartzea** eta **pobrezia errotik desagerrarazteko** erronkari aurre egitea, **garapen iraunkorra** bermatzeko **ezinbesteko baldintza moduan**. Horretarako, **Garapen Iraunkorreko 17 helburu** zehaztu ditu, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak uztartzen dituztenak: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

**"Small Business Act"**

2008az geroztik, Small Business Act-k zehazten du enpresa txiki eta ertainei laguntzeko esparrua Europako ekonomian; gainera, enpresa berrien sorkuntza sustatzen du, "Think Small First" printzipioa aplikatuz. Honako helburu hauek ditu: ekintzailetza sustatzea, arau arloko hesiak murriztea, eta enpresa txiki eta ertainek finantzaketa eskuratzea eta nazioarteko merkatuetan sartu ahal izatea. Besteak beste, neurri hauek planteatzen ditu: berrikuntza eta enpresa espiritua estimulatzea hala irakasleengan nola gazteengan; eta gizartean, jarduera bati berriz ekin nahi dioten enpresarienganako jarrera positiboa sustatzea.

**Ekintzailetzari buruzko 2020 Ekintza Plana**

2013ko urtarrilean Europar Batzordeak aurkeztutako Plan honetan, eskualde bat ekonomikoki eta sozialki garatzeko orduan ekintzailetzak duen garrantzia nabarmentzen da. Plana abiarazi zenetik, ez zaio eguneraketarik egin, eta hiru ardatz planteatzen ditu:

- Hezkuntza, etapa goiztiarretan ekintzailetza irakasteko eta unibertsitateen arteko trukeak sustatzeko.
- Ekintzailetzarako ekosistema egokia sustatzea, besteak beste, honako ekintza konkretu hauen bidez: finantzaketa lortzeko aukera hobetzea; enpresa sortzeko fase kritikoetan laguntza ematea; negozioen eskualdatzea ahalbidetzea; fede onez jardun duten ekintzaileei bigarren aukera ematea eta burokrazia murriztea.
- Ekintzaileen irudia eredu sozial gisa sustatzea, eta, horretarako, beraien arrakasta sozial eta profesionala hauspotzea. Arreta berezia jartzea gazteengan, langabeengan, emakumeengan, etorkinengan eta adinez nagusienak direnengan, ekintzailetzan jarduteko orduan zailtasun gehiago izaten dituzte eta.

**COSME programa**

COSME programa (2014-2020) "Small Business Act" delakoaren printzipioak lantzen ditu, enpresa txiki eta ertainen, enpresari berrien eta enpresa erakundeen lehiakortasuna sustatuz. 2.522 milioi euroko aurrekontua dauka xedaturik (finantza tresnei esleitutako 1.400 milioi euro), eta, besteak beste, jardute ildo hauek jasotzen ditu:

1. Bizi zikloaren fase desberdinetan, finantza tresna espezializatuen bidez enpresa txiki eta ertainentzako finantzaketa eskuratzeko bidea hobetzea (enpresen sorkuntza, hazkundea eta transmisioa).

[6] *Eranskinetan zehaztasun handiagoz jasotzen dira araudi eta plan sektorialak.*

2. Enpresei merkatuan sartzen laguntzea, hala EBn nola mundu osoan.
3. Enpresa txiki eta ertainentzako testuinguru baldintza hobeak sortzea, administrazio eta arau kargak txikituz eta merkaturatzeko potentziala daukaten proiektu lehiakorren sorkuntza nahiz negozio eredu berriak babestuz.

**HORIZON 2020 programa**

Horizon 2020 programa, I+Ga finantzatzeko EBk duen esparru programa nagusia da. 2014-2020 aldirako, 80 bilioi euroko aurrekontua du gutxi gorabehera. I+Gko eta Berrikuntza eta Lehiakortasuneko aurreko Esparru Programak ordezten ditu, eta I+Garen babesa barne hartzen du hainbat sektore eta jardute eremutan; horien artean dago, modu transbertsalean, bai enpresa txiki eta ertainei bai sortu berriei zuzendutako laguntza. Horizon 2020 programak honako hauek jartzen ditu enpresa txiki eta ertainen esku:

- Enpresa txiki eta ertainentzako "SME Instrument" tresna, 3 bilioi euroko hornidurarekin, eta proiektu bakoitzeko 2,5 milioi eurorainoko hornidurarekin. Programa honek laguntza finantzarioa eta aholkularitza ematen ditu berrikuntza teknologikoaren, ez-teknologikoaren eta zerbitzuen alorreko proiektuetarako.
- Arrisku kapitaleko fondorako sarbidea. Fondoa Horizon 2020 programaren barruan sortu zen eta 900 milioi euro inguruko hornidura dauka enpresa txiki eta ertainentzat eta sortu berrientzat.

### 1.2.2. Estatuko testuingurua

**Ekintzaileari eta haren nazioartekotzeari laguntzeko Legea**

2013ko irailaren 27an Europako arauen esparruan onartua izan ondoren, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko 14/2013 Legeari aldaketa batzuk egin zitzaizkion jarduera ekintzailearen garapenaren esparruan, 2017an indarrean dirauten aldaketak:

- Enpresa bat sortzeko epeak eta zenbatekoak murriztea.
- Banakako enpresariak zorretik liberatuko dituen kaudimengabeziako prozedura bat sortzea.
- Erantzukizun mugatuko bi forma juridiko berri sortzea: "Erantzukizun Mugatuko Ekintzailea" eta "Jarraikako Prestakuntzako Sozietate Mugatua".
- Interes orokorreko proiektuak lantzen dituzten ekintzaile guztiei Espainian bizilekua izateko baimena ematea.
- Ekintzaileentzat errenta finkoko merkatu alternatiboak sortzea.
- "Kutxako BEZaren" irizpidea praktikan jartzea.
- Inbertsio partikularretarako kenkari fiskalak ezartzea.
- Sozietateen gaineko Zergagatiko tributazioa %10 murriztea, eta %15ean ezartzea.

**Gazte Ekintzailetzaren eta Enpleguaren 2017-2020 Estrategia**

Gazte enplegurako aukerak sortzeko konpromisoa hartua zuten 1.000 enpresak egin zuten bat 2013-2016 aldian landutako Gazte Ekintzailetzaren eta Enpleguaren 1. Estrategiarekin. Estrategia hark, Gazte Bermearen programarekin batera, 1,5 milioi enplegu aukera eman zizkien gazteei.

2017-2020 aldirako, estrategia berritu egingo da, Estatuko Gobernuak gazteen artean langabezia txikitzera bideratzen dituen neurriak sustatzea helburu. Egingo diren jarduketen arteko bat, gazteen artean orientazioa, prestakuntza, ekintzailetza eta enpleguaren aldeko 100 neurriko programa bat zehaztea izango da.

Modu osagarrian, ekintzailetzarako laguntzak ere badaude, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak eta Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak sustatuta.

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioaren kasuan, nabarmendu beharra dago 2015ean (ECC/1087/2015 agindua) "enpresa txiki nahiz ertain berritzailearen zigilua" sortu izana. Halakotzat jotzen da azken hiru urteetan finantzaketa publikoa jaso duen, eta bere jardueraren bidez berritzailea dela eta zenbait ziurtagiri ofizialen bidez berritzeko ahalmena duela erakutsi duen enpresa txiki edo ertaina.

### 1.2.3. Euskal testuingurua

**Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea**

2012ko ekainaren 28an onartutako Lege honek indarrean jarraitzen du 2017an. Ekintzailetza jarduera sostengarri baten bidez, ekintzaileen gaitasunak garatzeko esparru mesedegarri baten alde dihardu. Helburu horrekin, onartu zenetik inolako aldaketarik izan gabe, Legeak lau zutabe lantzea bultzatzen du:

- Hezkuntza. Enpresa etika, erantzukizun soziala eta halako balioak azpimarratzen dira, eta Bigarren Hezkuntzan enpresa munduaren eta hezkuntza munduaren arteko lotura sustatzen da. Eskaintza enpresen prestakuntza beharretara egokitzearen alde egiten du, eta berrikuntzari eta ekintzailetzari buruzko prestakuntza bultzatzen.
- Sinplifikazio administratiboa. Administrazio kargak progresiboki murriztu eta ezabatzearen alde egiten da; baita epeak laburtzearen, prozedurak bateratzearen eta erabilitako hizkuntza erraztearen alde ere.
- Ekintzailetza babestea. Eta horretarako, langabeziako prestazioa osoki kapitalizatzea, jardueraren hasieran udal tasak konpentsatzea, enpresari berritzaileak babestea, eta hazi kapitaleko fondo misto publiko-pribatu bat edo mikrokredituen fondo bat sortzea.
- Business angelsak sustatzea. Horretarako, halako sareei diru laguntzak ematea, koinbertsiorako mekanismo publiko-pribatuak abiaraztea eta Business Angelsen direktorio bat sortzea.

**2020 Euskadi - XI. Legegintzaldiko 2016-2020 Gobernu Programa**

Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiaren programak 2020rako lehentasun instituzionalak zehazten ditu, eta herrialdeko helburu gisa ezartzen ditu, besteak beste, langabezia %10etik behera jaistea, 20.000 gaztek laneko lehen esperientzia izatea, industriak euskal BPGaren %25 ematea eta EBren biztanleko BPGaren %125era iristea.

Ekintzailetzaren aldeko apustua, berriz, hainbat konpromiso konkreturen bidez jasotzen da (zehazki, 15. Konpromisoan, "Ekintzailetzari lagundu"), eta EEP 2020k, bere ardatz eta ekintzetan, erantzuna ematen die horiei, aurrerago xehatuko dugunez. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren 15 plan estrategiko ezartzen ditu legegintzaldirako, eta horien artean nabarmendu daitezke, ekintzailetzarekin duen loturagatik, Enplegu Plana 2017-2020, *Basque Industry* Industrializazio Plana 2017-2020, Nazioartekotzeko *Basque Country* estrategia 2020 eta Lanbide Heziketako Euskal Plana 2018-2021.

**Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko 2017-2020 Esparru Programa**

Azken urteetako enplegu hazkunde jarraituek ez dute, orain arte, krisi aurreko enplegu mailara itzultzea ahalbidetu. Hori da 2017-2020rako Esparru Programa berria sortu izanaren arrazoia. Kontua da aurreko legealdian hasitako hazkundearen eta enplegu sorkuntzaren bidean aurrera egitea eta bide hori sendotzea; horretarako, enplegu gehiago eta hobea sortzeko 10 zutabe planteatzen dira, horien artean aipagarri: enpresa lehiakorragoak eta enpresa talde indartsuak; bikaintasuneko zientzia, teknologia eta berrikuntza ekosistema; jarduera berriak eta goraka datozen sektoreak, eta enplegu eta laneratze plan espezifikoak.

Esparru Programaren Enpleguaren Ardatzean, bigarren arlo operatiboa ekintzailetzaren sustapena da. Bere helburu nagusia da Ekintzailetzari Laguntzeko Euskal Sistema sustatzea, ekintzailetzaren kultura euskal gizartean aktibatzeko –gazteen artean, batik bat–, enpresa ekimenei laguntza integrala emateko eta

talentu ekintzailea kanpotik erakartzeko, espezializazio eremu estrategikoetan, Euskadi lurralde ekintzaile moduan sendotzeko helburuarekin. Eta bere lehentasunezko jardute ildoak dira ekintzailetza berritzailea eta barne ekintzailetza babestea eta autoenpleguari eta mikroekintzailetzari laguntza integrala ematea

Ekintzailetzarekin lotutako konpromisoen artean, nabarmentzekoa da 4 urtean 1.000 milioi euroko hornidura izango duen Enplegu Plan bat martxan jartzekoa, prestakuntza eta lan munduratze programak lantzeko eta tokiko garapen eta ekintzailetza egitasmoak babesteko. Enplegu Plan horren barruan, gazte enpleguari laguntzeko lerro espezifikoa lantzen da, 20.000 gazteri lan aukera bat eman ahal izateko.

**EEP 2020ren esparru instituzional eta normatiboaren barruan EAEn dauden beste plan edo araudi batzuk:**

| Arloa | | Estrategia | Deskripzioa |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | Ekonomiaren garapena eta azpiegiturak | **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren 2020 Estrategia** | Ekintzailetza da Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren lehentasunetako bat. Hori dela eta, bi helburu planteatzen dira: batetik, ideia berriak produktu eta zerbitzu berri bihurraraztea, kalitatezko enplegua sortzeko; bestetik, Euskadi erreferente eta erakargarri izatea Industria 4.0 arloan egitasmo berriak garatu daitezen. Helburuok lortzeko, beste batzuen artean, lan ildo hauek zehaztu dira:<br>· Ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea.<br>· Industria-berrikuntza-teknologia ekintzailetzaren eta barne ekintzailetzaren aldeko apustua indartzea.<br>· Euskal ekintzailetzaren ekosistema eta egungo tresnak indartzea.<br>· Babes formula berriak aztertzea.<br>· BICen irudia eta BICek[7] ZTBESarekin[8] eta eragile pribatuekin duen harremana sendotzea.<br>· Euskadi "ekintzailetzarako leku on" gisara posizionatzea nazioartean. |
| | | **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020 Plana** | 2020 ZTB Planaren xedea zera da: "euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko sostengarria eta enplegua hobetzea; eta horretarako, espezializazio adimendunean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren efizientziaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politika bati jarraitzea". Hona hemen proposatutako lerro batzuk:<br>· I+G+b-ko enpresa inbertsio atzerritarrak erakartzea.<br>· Ingurune erakargarri eta atsegingarri bat sortzea.<br>· Lankidetzari eta ekintzailetza sozialari lotutako egitasmoei laguntzea. |
| | | **Landa Garapeneko Programa 2015-2020** | 2015ean argitaratua, LGPk hainbat neurri ditu landa inguruneetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen eragin zuzena dutenak, batez ere gazteen artean, eta finantza tresnak antolatzea aurreikusten du, finantza merkatuan sartzen eta laguntzeko eta EAEko landa ingurune guztien garapen iraunkorra bermatzeko, arreta berezia jarriz gazteengan . |
| | | **Invest in the Basque Country Estrategia** | 2013an onartu zen. Estrategiaren ardatza Euskadi erreferentziako lurralde gisa posizionatzea da, enplegua eta aberastasuna sortzeko aukera emango duen zuzeneko inbertsio atzerritarra erakartzeko. Besteak beste, ekintzailetza teknologikoko proiektuak erakartzea du xede. |
| | Enplegua | **2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia** | 2016an ikusi zuen argia, eta xede hauek ditu: ekintzailetza babestea, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei laguntzea, gazte enplegua bultzatzea eta emakumeak ekonomia eta lan jardunean sartzeko aukerak sustatzea. Hona hemen planteatzen diren ekintzailetza egitasmo batzuk:<br>· Enpresa eta ekintzailetza espiritua landuz, aukerak sortzea.<br>· Talentuari eustea.<br>· Nazioarteko talentua modu selektibo eta adimentsuan erakartzea. |
| | Osasuna | **Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako 2020 Estrategia** | I+G+Baren inpaktua handitzearen alde egiten du, ez soilik biztanleen osasuna eta osasun sistemaren funtzionamendua hobetzeko, baizik eta baita aberastasuna sortzeko ere. Bere baitan daude profesional oso kualifikatu eta berritzaileei laguntzea, eta emaitzen gardentasuna eta ustiaketa, hortik, halaber, enpresa berriak sor daitezkeelarik. |

[7] *Business Innovation Centre*

[8] *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea*

| Arloa | | Estrategia | Deskripzioa |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlariza | Hezkuntza | **Heziberri 2020 Plana** | Euskal hezkuntza sistema hobetzea du xede. Bere ildo estrategikoen artean bat, hezitzaileen komunitatearen prestakuntza da, ekintzailetzarako hezkuntzaren gaian eta ikaskuntza digitalaren gaian, besteak beste. |
| | | **Hezkuntza sistemako oinarrizko konpetentzien dekretu arautzailea** | 2015ean, ekintzailetza hezkuntzaren hainbat arlotan txertatu zuen nobedade gisa:<br>· Konpetentzia transbertsalak: "ekimenari eta ekintzailetza espirituari buruzko konpetentzia".<br>· Ekintzailetza hautazko ikasgai gisa bigarren hezkuntzan.<br>· Irakasleak ekintzailetzaren inguruan prestatu eta ebaluatzea. |
| | | **2015-2018 Unibertsitate Plana** | Hauxe da bere helburuetako bat: "euskal gizarteak dauzkan goi prestakuntzako premiei irakaskuntzako eredu eta metodologia berritzaileekin erantzutea, ekintzailetzarekin loturiko balioekiko sentsibilizazioa landuz" eta "ezagutzaren transferentziaren bidez, euskal gizartearen erronka ekonomiko eta sozialei ekarpen erabakigarria egitea".Halaber, EHU/UPVren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko kontratu programa bat dauka ekintzailetzaren kultura sustatzeko. |
| | | **2015eko Lanbide Heziketako Legea** | Ikasleen artean konpetentzia eta trebetasun berrien lanketa sustatzea du xede, kultura ekintzailearen sustapenera orientatuta eta benetako jarduera batean oinarritutako esperientzia praktikoen gainean antolatuta. Helburuak honelaxe mamitzen dira:<br>· Irakasleei ekintzailetza eta enpresa kudeaketaren gaineko prestakuntza era egonkorrean eskainiz.<br>· Hezkuntza fase guztietan ekintzailetzaren integrazioan sakonduz.<br>· Enpresariak ekintzailetza programetan sartzeko formulak bilatuz. |
| Foru Aldundiak | Bizkaia: Garapen ekonomikoa | **Bizkaiko Foru Aldundiak ekonomia suspertzearen eta kalitatezko enplegua sustatzearen alde egindako apustua** | Bizkaia Goazen 2030 Estrategiaren barruan, jarduera ekonomiko eta enplegu sortzaile den Bizkaiaren aldeko apustua aurkezten da 2015-2019 aldiari begira. "Ekintzailetzan jardun eta hazi" ardatz estrategikoan, egitasmo hauek planteatzen dira, besteak beste:<br>· Enplegu kualifikatua eta kalitatezkoa sortzen duten enpresa berritzaileak sustatzea.<br>· Startupei finantzaketa aukera zabala eskaintzea.<br>· Emakumeek gidatutako ekintzailetza bultzatzea. |
| | Gipuzkoa: Ekonomiaren sustapena | **Gipuzkoako Ekonomia Suspertzeko 2016-2020 Plana, Gipuzkoako Foru Aldundiarena** | Hauxe da GFAko Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako Departamentuak 2015-2019 legealdirako aurkezten duen ikuspegian egiten duen apustua: "enpresa eta enplegu gehiago eta hobeak sortzea, bereziki Gipuzkoaren etorkizunerako estrategikoak diren sektoreetan". Hona hemen jardute ildoetako batzuk: RIS3 sektoreetan oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortu eta martxan jartzen laguntzea; barne ekintzailetzaren jarduera babestea eta mentalitate ekintzailea berraktibatzen laguntzea. |
| | Araba: Garapen ekonomikoa | **Ekintzailetza jarduerari laguntzeko esparrua, Arabako Foru Aldundiarena** | AFAren 2015-2019 legealdirako Plan Estrategikoaren xedea hauxe da: "jarduera ekintzailea gehiago garatzea, jakinik enpresa berriek –bereziki profil berritzailea dutenak– enplegua eta aberastasuna sortzeko funtsezko oinarria osatzen dutela Araban". Hona hemen planteatzen diren neurri batzuk:<br>· Eduki berritzaile eta teknologikoa daukaten proiektu sortu berriei laguntza ekonomikoa ematea.<br>· Enpresa espiritua eta enpresak ekintzaile berriei transmititzeko tresnak sustatzea. |

## 1.3. Erreferentziazko nazioarteko joera eta praktikak

Ekintzailetzak une gozoa bizi du maila globalean. Antza denez, ez dago ekintzailetzaren alde –garapen ekonomiko eta sozialerako palanka gisa– apustu gutxi-asko esplizitua egiten ari ez den herrialde edo eskualderik, estrategiak, programak, azeleratzaileak eta kasu arrakastatsuak sustatuz. Hala ere, joera horrek berekin dakar lehia internazionalaren hazkundea, ekintzaileak eta startupak nork bereganatuko. Ondoren, erreferentziako joera eta praktika internazional batzuk nabarmentzen dira ikuspegi geografiko desberdinetatik begiratuta:

- Maila **globalean**, munduko erakunde nagusi eta multilateralek (OCDE, WEF) ekintzailetza lehentasun ardaztzat jotzen dute herrialdeen eta eskualdeen sozioekonomia eta lehiakortasuna garatzeko. Testuinguru horretan, badira laguntza programa eta egitasmo konkretu batzuk beren berritasunagatik, berezitasunagatik edo urteetan zehar izandako inpaktuagatik nabarmentzen direnak. Ondoren, laburki aurkeztuko ditugu (eranskinean xehaturik), euskal ekintzailetzaren errealitatera ekartzeko moduko praktika egokiak eta ikaskuntzak identifikatzeko asmoz.

**Ekintzailetzan erreferentziazkoak diren nazioarteko praktiken mapa** (xehetasuna eranskinetan)




*Iturria: geuk egina*

- **Europan**, ekintzailetza dugu lehentasunezko helburua 2000ko Lisboako Europar Kontseiluaz geroztik, Europan enpleguaren, garapen ekonomikoaren eta kohesio sozialaren arloetan zehaztutako helburuen parte baita.
    - Gaur egun, hazkunde adimendun, sostengarri eta inklusibo baten giltzarritzat jotzen dira ekintzailetza eta autoenplegua, eta kontuan izan behar da EBn sortzen diren hamar enplegutik zortzi, enpresa txiki eta ertainetan sortzen direla[9].

[9]"*Fostering Innovation-driven Entrepreneurship in Europe*" WEF 2014

- Hala ere, erronka da ekintzailetzarako espiritua berreskuratzea, zeren eta Europako biztanleen[10] %35ek bakarrik baitu gurago bere kontura lan egitea, eta ekintzailetza tasak Erresuma Batuan eta Europa iparraldeko herrialde batzuetan baino ez baitira nabarmentzeko modukoak.

- **Estatu Batuetan,** ekintzailetzan jarduteko dauden hesiak ezabatzen diren neurrian, ekintzailetza jardueraren tasek gora egiten dute, batez ere oportunitatean oinarrituta; negozioen biziraupena luzatu egin da, eta azken bi hamarkadetako maximoetara iritsi. Gainera, enpresa berriak iraganean baino erritmo azkarragoan hazten dira. Badira ekintzailetzaren egoera definitzen duten hiru joera osagarri:
  - Demografia: emakumeek eta immigranteek zifra baxuak agertzen dituzte enpresen sorkuntzari buruzko estatistika globalean, nahiz eta bigarren kolektibo horrek (Estatu Batuetako biztanleria osoaren %15) Silicon Valleyko startup eta patenteen ia %50 sortzen dituen[11].
  - Geografia: ekintzailetza gero eta hirikoagoa da (gero eta gutxiago landa ingurunekoa) eta herrialde osoan hedatu da, izan ere, badira zenbait hiri Bostonekin eta Silicon Valleyrekin lehian.
  - Enpresen tipologia: teknologiak hartu duen rol azeleratzaileari esker, giza kapitalean horren intentsiboak ez diren negozio eredu berriak sortzen ari da[12].

- **Estatuan**[13]**,** Madril eta Bartzelonako guneen inguruan batez ere, zera ikusten da:
  - Hazi egin da norberak egindako apustuaren ondoriozko ekintzailetza (oportunitatea);
  - Startup eredua sendotu eta legitimatu egin da enpresak eta enplegua sortzeko. Gainera, startupak "negozio aukeren detektagailu goiztiar" bihurtu dira;
  - Finantzaketa ereduak eredu profesionalago baterantz eboluzionatu du finantzaketa, ikusgaitasuna eta kolaborazioak eskuratzeko orduan.
  - Pertsona ekintzaile izatetik enpresari izaterako trantsizioa indartzeko beharra planteatzen da, "saldu ala hil" eredua gaindituz.

**Startup Spain: "Startup Friendly" ekosistema baterantz**
Hobetu beharreko arauketa arloak (startupei egindako inkesta). Espainia-Europa- LATAM konparaketa.




*Iturria: Spain Startup South Summit*

[10] *Iturria: The Entrepreneurial Challenge-A comparative study of entrepreneurial dynamics in China, Europe and the US*
[11] *Teknologia konpainia nagusietako batzuk (Apple, Google, Facebook, Amazon, Oracle, IBM, Yahoo, Uber…) lehen edo bigarren belaunaldiko immigranteek sortu dituztela erantsi daiteke.*
[12] *Fakturazioan 1.000 milioi dolarrera iritsi zirenean, Kodakeko langile zerrendan 75.000 langile zeuden, eta Facebookekoan, berriz, 6.300.*
[13] *Startup Spain*

# II. blokea: Ekintzailetzaren egoeraren diagnostikoa

Egungo testuingurua aztertu ondoren, euskal ekintzailetzaren egoeraren diagnostikoa azalduko dugu, Plan honetan jasotako politikak eta jarduketak planifikatzeko oinarri gisa.

Ekintzailetzaren errealitateari buruz egingo dugun argazkia ahalik eta osoena izan dadin, honako eduki hauetan egituratutako diagnostiko bat planteatzen da:

**Euskadiko ekintzailetzaren egoerari buruzko diagnostikoaren edukien eskema**



Ekintzailetzak izaera poliedrikoa duenez, planteatzen den diagnostikoan **ikuspuntu desberdinak, aldagai kualitatibo eta kuantitatiboak eta informazio iturriak konbinatzen dira:**

- Lehenik, abiapuntu gisa hartu dira Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko 2013-2016 Erakundearteko aurreko Planaren Erakundearteko Mahaiak egindako hausnarketak eta analisia; bai eta Plan horren gauzatze balantzearen urteko txostenak ere.
- Era berean, EAEn ekintzailetza babesten duten eragile publiko eta pribatu nagusiek eta kolektibo ekintzaile desberdinen ordezkaritza batek ere beren iritzia eman dute.
- Bestalde, adierazleen neurketa eta EAEko 2015 GEM txostenaren konklusioak ekintzailetzaren inguruko nazioarteko estandar gisa erabili dira.
- Txosten hori osatzeko, iturri hauek emandako informazioa erabili da: Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, BICak, Eustat, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, INE, Confebask, Innobasque eta Orkestra, besteak beste. Horrela, ekintzailetzaren egoeraren gaineko "argazkirik" osoena ematen saiatu gara.
- Azkenik, Europar Batzordetik eta WEF, OECD eta halako erakunde multilateraletatik jasotako kanpo informazioa erabili da. Horrez gain, berrikuntzan eta ekintzailetzan erreferentziakoak diren erakundeen azterlanak erabili dira; horien artean: Babson College, Kauffman Foundation, Masschallenge eta NESTA, beste batzuen artean.

Ekintzailetzari egunero laguntzen **jarduteko eta laguntza hori planifikatzeko, ezinbestekoa da eragile guztiek eskura izatea eguneratutako informazioa, ahalik eta osoena eta kalitatezkoa.** Plan honen eta bertatik eratortzen diren ekintzen bidez, zera jakin nahi da: zein den EAEn egiten den jarduera ekintzailea; nolakoak diren pertsona ekintzaileak eta zerk bultzatzen dituen pertsona horiek ekintzailetzara, nor den nor Euskadiko laguntza ekosisteman eta zer programa eta laguntza dauden.

## 2.1. Ekintzailetzaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan

### 2.1.1. Jarduera ekintzailea

Ekonomia batean, jarduera ekintzailea prozesu globaltzat jo daiteke. Prozesu hori, hasieran, ekintzailetza ideiaren edo asmoaren sorrera izan daiteke; gero, enpresaren sorkuntza eta azelerazioa, eta, azkenik, enpresa proiektuaren sendotzea, bertan behera uztea edo transmisioa.

Oro har, **EAEn alta eman duten enpresa eta autonomoen kopuruak erakusten duenez, azken urteetan badago joera positibo bat**, euskal ekonomiaren suspertzearekin eta bizkortasunarekin bat datorrena. Errealitate horren erakusgarri, enpresetako alten eta bajen saldo garbia zifra positiboetara itzuli zen 2014, 2015 eta 2016an. Joera aldaketa argi horrek atzeraldi luzea ixten du.

Gainera, proiektu ekintzaile berriek sendotasuna erakusten dute, biziraupen tasa aipagarriekin eta bertan behera uzteari lotutako tasa txikiekin, bereziki oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien kolektiboan (OTEBBak[14]). Datu honetan, zalantza barik, honako hauek eragina daukate: ekintzaileen prestakuntzak, laguntza sistemaren eraginkortasunak eta Euskadiko enpresa eta teknologia testuinguruak. Aspektu horiek geroxeago aztertuko ditugu.

Aldiz, ideien eta proiektuen masa kritikoa oraindik ere ez da krisi aurretik lortutako mailara gerturatzen, eta **hobetzeko arloak antzematen dira proiektuen tamainan, hazteko anbizioan eta nazioarteko orientazioan**, besteak beste.

a) Pertsona autonomo berriak

Autonomoen alten kopuruak, 2010az geroztik, %5eko erritmoan egin du gora urteko hazkundean, bereziki azken lau urteetan; autoenpleguaren bidetik, ekonomia progresiboki berraktibatu izanaren erakusgarri.

Zorionez, badirudi krisiaren lehen urteetako zifrak (2009-2012) oso urruti gelditu direla, eta oraintsuko zifrek atzeraldi aurrekoak (2006 eta 2007) hobetu ere hobetzen dituzte.

2016an, zehazki, 2006az geroztiko hirugarren alta zifrarik onena lortu zen; hala, EAEko autonomoen zifra totala 175.000 pertsonara iristen da ia, hau da, 2008aren hasieran lortutako gehieneko historikoa baino %8 gutxiago.

**EAEn alta eman duten autonomoak**
Autonomoen alta kopurua Gizarte Segurantzan; 2006-2016




**UHTK: urtez urteko hazkunde tasa konposatua.*
*Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala*

[14] *Oinarri Teknologikoko Enpresa Berritzaile Berria*

b) Enpresa berriak

Gizarte Segurantzan izena eman duten enpresen kopuruak, beheko grafikoan ikusten denez, urteko %3,5eko hazkundea izan du 2014az geroztik EAEn. Honenbestez, joera aldaketa eta Euskadiko ekonomiaren bizkortasuna argi geratu dira.

2016an, Gizarte Segurantzan izena emandako enpresen kopurua 58.951koa izan zen; hau da, **2014ko urtarrilean baino ia 2.000 enpresa gehiago**, kontuan harturik 2014an izan zirela zifrarik txarrenak krisia hasi zenez geroztik. Banaketa sektorialari dagokionez, jarduera berria kontzentratzen da ezagutzan intentsiboak ez diren zerbitzuetan (%65) –sartzeko hesi gutxiago duen sektorea baita– eta **industrian eta lotutako zerbitzuetan (%28).**

**Gizarte Segurantzan izena emana duten enpresak**
Enpresa kopurua; 2008-2016




*Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzak emandako datuetatik abiatuz*

Gainera, goiko grafikoaren behe ezkerraldean ikusten denez, **2016an enpresen sorkuntza garbia egon zen hirugarren urtez jarraian** (gehiago sortzen dira suntsitu baino), eta hori jarduera ekonomikoaren pixkanakako susperraldiaren eta EAEko enpresa dinamismoaren erakusgarri ona da.

Krisi aurreko zifrak oraindik ere urruti badaude ere, **enpresen sorkuntza maila suspertu eta egonkortu egin da, urtean 3.200 enpresatik gora sortu baitira**; izan ere, 2013-2016 aldian, 12.870 enpresa berri sortu dira guztira. Datu horri gehitzen badiogu konkurtsoan sartutako enpresen kopuruaren murrizketa eutsia, aipatu dugun saldo positiboa ateratzen da, eta etorkizunera begira aurreikuspen positiboak planteatzen dira.

**Euskadin sortutako enpresak**
Enpresa kopurua –2006-2016– eta banaketa sektoriala




**UHTK: urtez urteko hazkunde tasa konposatua. Oharra: Sortutako enpresen kopuruan, sozietate anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak sartzen dira. Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala*

Enpresa jardueraren dinamika positibo honetan, ekintzailetzari laguntzeko sistema publikoak **enpresa berri guztien %85en[15] sorkuntza ahalbidetu du, dekretu publikoen babesaren bitartez.** Eta laguntza hori ez da sorkuntzara mugatzen: 2013-2015 aldian, aipatutako sistemak 24.500 kontsulta jaso zituen, 10.000 pertsonari eman zien prestakuntza eta 8.700 bideragarritasun plan baino gehiago lantzen lagundu zuen, hainbat sarrera punturen bidez (BICak, Udalak, Merkataritza Ganberak, autoenplegurako sarrera puntuen sarea, Lanbide Heziketako Tknika sarea).

Enpresa berrien artean, aipagarriak dira, egun duten inportantziagatik eta etorkizunera begira duten potentzialagatik, **hiru tipologia edo kolektibo esanguratsu** hauek:

- **Oinarri teknologikoko ekintzailetza berritzailea** (OTEBBak) lehentasunezkoa da EAEn 90eko urteetatik, eta etorkizunera begira, hazteko potentzial handiko ekintzailetza nitxoak eskaintzen ditu, esaterako, fabrikazio aurreratuaren inguruko jarduerak. Gainera, nazioartean aitortzen denez, proiektu berritzaileek, eta bereziki disruptiboenek, eragiten duten eraldaketa produktiboa –eta are soziala ere– gainerako jarduerek[16] sorrarazten dutena baino handiagoa da.
    - Laguntzan espezializatutako eragileek emandako datuen arabera[17], gaur egun **350 OTEBB aktibo** baino gehiago daude EAEn[18], zeinak, **batez beste, 5 pertsona enplegatzen** dituzten eta, beste batzuen artean, industriaren sektorean (%29), IKTenean (%28), biozientzienean (%15) eta energiarenean (%5) lan egiten duten.
    - Azken bost urteetan hainbat programa eta zerbitzu publikoren bidez lagundu zaien OTEBB guztien artean, **%80k 5 urteko biziraupena gainditzen dute.** Hainbat azterlanen arabera, Europako startupen %50ek baino ez dute 5 urte baino gehiago irauten[19].
    - **Laguntza publikoaren eraginkortasunari eta inpaktuari** dagokienez, kalkuluen arabera, OTEBBak sortzen laguntzera bideratutako aurrekontu publikoaren milioi euro bakoitzeko, enpresek 14 M€ egiten dute urtean beren fakturazioan, eta zuzeneko ia 90 enplegu sortzen. Daukaten kalitatearen eta potentzialaren erakusgarri gehigarri gisa, horra hor profil honetako euskal enpresa ugarik jaso dituzten errekonozimenduak, sariak eta europar programetan sartzeko orduan izandako lorpenak.
- **Barne ekintzailetza** da ekintzaileek, beren enpresetan, produktu/zerbitzu, negozio edo enpresa berriak garatzeko egiten duten jarduera. EAEn, historikoki, formula aproposa izan dira enpresa egitura berrasmatu eta eraldatzeko, enpresak berritu eta birsortzeko, eta langile zerrendetan daukaten giza kapitala aprobetxatzeko. Hori dela eta, urteak dira euskal instituzioak barne ekintzailetza sustatzen ahalegintzen ari direla ehunka industria enpresatan, handia baita jarduera horrek daukan potentziala proiektu berriak sortzeko.
    - Hala ere, EAEko 2015 GEM txostenak azaltzen duenez, barne ekintzailetzaren jarduera tasa (EEA[20]) %1,4koa da (Europako batez bestekoa: %4,9; estatuko batez bestekoa: %1,1). Nonbait, datu horrek berresten du jarduera honi lagunduko dioten pizgarri sozial eta korporatiboak sustatzen jarraitu beharra dagoela, eta ekintzailetzaren (TEA) eta barne ekintzailetzaren (EEA) artean korrelazio positiboa dagoela berrikuntzan oinarritutako ekonomietan, esaterako, euskal ekonomian.

---

[15] *Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, enpresak sortzen laguntzeko dekretu publiko desberdinetatik abiatuz, emandako datu erantsiak.*

[16] *EAEko Lehiakortasun txostena, Orkestra (2013): "Kauffman Fundazioaren arabera, enpresarik disruptiboenak –gazela enpresak ere esaten zaie– lanpostu berrien ia %10 sortzen dituzte Estatu Batuetan, nahiz eta herrialdeko enpresa egitura osoaren %1 bakarrik izan (Stangler, 2010). Alemanian, Ramboll txostenak dioenez, enpresa berriek sortutako sei lanpostutik bat gazela enpresetatik dator. Erresuma Batuko NESTA txostena hamar enplegatutik gorako enpresetan landu zen. Txosten horrek adierazten duenez, badaude hazkunde handiko enpresa batzuk, enpresa egitura osoaren %6-7 osatu arren, enplegu berriaren %54 sortzen ari direnak (NESTA, 2009)".*

[17] *Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, SPRI eta Euskadiko BICak (Business Innovation Centres)*

[18] *2011tik 2016ra bitartean sortutako enpresak.*

[19] *"Fostering Innovation-driven Entrepreneurship in Europe" WEF 2014*

[20] *Barne ekintzailetzako proiekturen batean parte hartu izana aipatzen duten enplegatuen ehunekoa.*

- **Gizarte ekonomiako enpresa berriek** ere (kooperatibak, lan sozietateak, enplegu zentro bereziak, beste erakunde batzuen artean) eboluzio positiboa bizi izan dute azken urteetan bai enpleguari bai erakunde kopuruari dagokionez; izan ere, guztira, euskal ekonomian diharduten erakunde guztien %16,5[21] izatera iritsi dira dagoeneko, erakunde kopuruaren eta halako enpresetan diharduen langile kopuruaren gehikuntzari esker.

c) Jarduera ekintzailearen ezaugarriak EAEko 2015 GEMren arabera

Enpresa berriei eta pertsona autonomoei buruzko aurreko zifren osagarri, EAEko 2015 GEM txostenak jarduera ekintzailearen ezaugarriak neurtzen ditu.

Hasteko, Ekintzailetza Tasa Totalak (TEA indizea) adierazten duenez, euskal biztanleen %3,4 negozio berri baten abioan edo kudeaketan inplikaturik zeuden 2015ean. Oraingoan ere jarduera ekintzailearen krisi aurreko mailak oso urruti gelditzen direla argi ikusten bada ere, EAE, gaur egun, herrialde garatuen pareko mailan dabil; horien artean: Japonia (%3,8), Alemania (%4,7) eta Frantzia (%5,3), edo, erkidegoen artean, Nafarroa (%4,5).

TEA xehekiago analizatuz gero, esan behar da ekintzaileok enpresa sendotuen jabeak direla batez ere[22]; hala, EAEko enpresa berrien biziraupen gaitasuna berresten da. Aldiz, baieztatu egiten da, baita ere, ideien sorkuntzako eta proiektu jaioberrietako lehen faseetan inplikatzen diren pertsonen masa kritikoa txikiagoa dela.

GEM txostenak dioen bezala (NDFk emandako datuetatik abiatuz), gogoratu behar da badagoela halako korrelazio negatibo bat TEA indizearen eta per capita errentaren artean; hau da, garapen ekonomiko eta ongizate maila altuko gizarteek –euskal gizartea, kasu– ekintzailetza tasa txikiagoak izan ohi dituzte.

**TEA indizearen eta garapen ekonomikoaren mailaren arteko 2015eko erlazio koadratikoa**




*Iturria: EAEko 2015 GEM*

Ekintzailetza tasaz gainera, EAEko 2015 GEM txostenak adierazten du enpresen tamainak txikia izaten jarraitzen duela, Euskadi "enpresa txiki eta ertainen lurraldea" dela berretsiz. Enpresa jaioberrietako enplegatuen batez bestekoa **1,2 pertsonakoa** da, eta hiru proiektu berritik batean, ez dago inor enplegaturik. Duda barik, enpresen hazkundea da (enpresa berriena eta baita sendotuena ere) euskal ekonomiaren etorkizunera begirako erronketako bat, horixe baita enpresa horien lehiakortasuna eta berrikuntza nahiz barne ekintzailetzarako gaitasuna bermatzeko bidea.

[21] *Euskal ekonomia sozialaren egoeraren txostena, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiarena.*
[22] *Sendotua: soldatak 42 hilabete baino gehiagoan ordaindu direnean.*

Dena den, datuek adierazten dute **enpresa berriek defizita erakusten dutela berrikuntzaran eta nazioartekotzearen orientazioan**. Gero eta globalizatuagoa den mundu honetan, non berrikuntza baita enpresen eta herrialdeen etorkizun bermea, ezinbestekoa da enpresa jaioberrietan adierazle horiek hobetzea, eta enpresok berrikuntzari eta nazioartekotzeari laguntzeko sistema publikoekin lehenbailehen konektatzea.

Nolanahi ere, analisian sakonduz gero, datu pozgarriak ageri dira: gutxienez bezeroen %1 atzerrian daukaten enpresa berrien kopuruak gora egin du, eta produktu/zerbitzu disruptiboen indizeak eta oso berritzailea den teknologiaren erabilera nabarmendu egiten dira, izan ere, Euskadiren zifrak Alemaniaren eta Israelen zifren parekoak dira.

EAEko 2015 GEM txostenak adierazitako beste aspektu positibo batzuek euskal proiektu ekintzaile berrien **biziraupen tasekin** daukate zerikusia.

Hala, laguntza sistema publikoaren aholkularitza izan duten enpresen %91,6k eta autonomoen %83,8k urtebete irauten dute gutxienez. Datatik hiru urtera, datuak nabarmentzeko moduko tasetan mantentzen dira (%86,6 enpresen kasuan eta %79 autonomoen kasuan), eta hori guztia proiektuen eta emandako laguntzaren kalitatearen erakusgarri da. Hala ere, eragile batzuen arabera, biziraupen tasa altu horiek kalterako izan daitezke, sistema publikoaren eskutik proiektu berriak gehiegi babestu izana isla dezakete eta.

Ildo horretan, hasitako negozioetan txikia da **bertan behera uztearen indizea**, eta horrek berriz ere berresten du proiektu berriek sendotzeko eta bizirauteko daukaten gaitasuna.

Hala ere, datu horrek ez du ezkutatu behar azken urteetan enpresek izan dituzten hilkortasun tasak, eta ez du ezkutatu behar Euskadiko familia enpresen %80 ez direla hirugarren belaunaldira iristen, eta datozen hamar urteetan 55.000 euskal enpresak ondorengotza edo transmisio prozesu bati aurre egin beharko diotela. Kasuen heren batean baino gutxiagoan existitzen dira ondorengotza protokoloak[23], eta hori, ekintzailetzaren eremutik ikusita, aintzat hartzeko moduko eta garrantzi handiko aukera alorra da.

| TEA indizea | Nazioartekoa | | | | Estatukoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | Europako batez bestekoa[24] | Japonia | Alemania | Frantzia | Estatuko batez bestekoa | Madril | Katalunia | Valentzia | Nafarroa |
| %3,4 | %7,5 | %3,8 | %4,7 | %5,3 | %5,7 | %6,5 | %6,4 | %3,7 | %4,5 |

| ADIERAZLEA | EAEko balioa | EBko batez bestekoa | Estatuko batez bestekoa |
|---|---|---|---|
| Enpresa sendotuak dauzkaten pertsona ekintzaileen ehunekoa | %7,1 | %6,5 | %7,7 |
| Enpresa jaioberriak dauzkaten pertsona ekintzaileen ehunekoa | %1,3 | %4,6 | %2,1 |
| Bertan behera utzitako enpresa sortu berrien indizearen ehunekoa | %1,2 | %4,6 | %1,6 |
| Orientazio internazionala daukaten enpresen ehunekoa (gutxienez bezeroen %25 atzerrian dauzkatenak) | %5,5 | %20,7 | %5,7 |
| Jaiotza fasean dauden eta bezeroentzat erabat berritzailea eta berria den produktu/zerbitzu bat eskaintzen duten enpresen ehunekoa | %13,4 | %15,1 | %10,6 |
| Oso teknologia berritzailea darabilten eta jaiotza fasean dauden enpresen ehunekoa | %7,5 | %11,8 | %9,6 |

*[23] Iturria: Elkargi, Eusko Ganbarak 2014*

*[24] 2015ean GEM txostena lantzeko partzuergoan parte hartu zuten ekonomia europarrak hartzen ditu kontuan, alegia: Errusia, Bulgaria, Kroazia, Hungaria, Letonia, Mazedonia, Polonia, Eslovakia, Austria, Zipre, Estonia, Finlandia, Frantzia, Alemania, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Eslovenia, Espainia, Suedia, Suitza eta Erresuma Batua.*

### 2.1.2. Ekintzailearen profila

Euskal Autonomia Erkidegoan badaude **ekintzaile izateko nahikoa helduak eta trebatuak diren pertsonak**. Giza kapital kualifikatua da, enpresa kultura eta mentalitatea duena, ekintzailetzan batez ere oportunitateak eraginda diharduena, horretarako gaitasunak eduki badauzkala baieztatzen duena eta porrotari gero eta beldur gutxiago diona. Biztanle horien artean, emakume ekintzailearen rola nabarmentzen da beste errealitate internazional batzuekiko.

Aldiz, **etorkizunerako aukera gisara ekintzailetzaz dagoen pertzepzioa mugatua da oraindik ere**, ekintzailetzaren kultura eta balioak ez daude oraindik euskal gizartean zabalduta, eta ekintzaile eta enpresariak garapen sozioekonomikoari egiten dion ekarpena ez da behar bezala aintzat hartzen, ezta dagokion tamainan duintzen ere.

a) Pertsona ekintzailea eta pertsona horrek ekintzailetzan jarduteko dituen arrazoiak

Datuen arabera, **ekintzaileak helduak, ondo prestatuak eta fidagarriak dira**, eta badituzte gaitasunak negozio berriak identifikatzeko. Ekintzaileen batez besteko adina 40 urte inguruan dabil, beren per capita errenta maila ertain edo altukoa da, eta beren prestakuntza maila altua edo oso altua. %57,6k goi ikasketak eginak dituzte (lizentzia, masterra edo doktoretza), euskal gizartearen prestakuntza maila altuekin bat etorriz.

Nabarmentzekoa da **emakumeen ekintzailetza** tasa, Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuaren eta Europaren gainetik jartzen duena. Haatik, euskal ekosistemako eragile publiko eta pribatuek uste dute oraindik ere bide luzea egin behar dela emakumeak ekintzailetzarako daukan potentzial guztia aprobetxatuko bada.

Ekintzailetzan aritzeko arrazoiei dagokienez, kasuen %73,1ean **oportunitatea da arrazoi nagusia** (2014an, %65,6). Euskadik krisia atzean utzi ahala, ekintzailetzari premiak bultzatuta heltzen dioten pertsonen zifrak behera egiten du; hala ere, etorkizunerako aukera garrantzitsu askoa izaten jarraitzen du biztanleen ehuneko handi batentzat, eta laguntza beharrezkoa bada ere, oportunitateagatiko ekintzailetzaren oso bestelakoa da.

b) Balioak eta jarrerak ekintzailetzaren aurrean

Ekintzailetzara bultzatzen duten balio eta jarrerei dagokienez, azken urteetan **gora egin du nabarmen ekintzailetzarako aukerak egon badaudelako pertzepzioak**, seguruenik ekonomiaren dinamismoak eta bizkortasunak ere gora egin dutelako. Hala eta guztiz ere, Euskadik Europako batez bestekoaren azpitik egoten segitzen du.

Ildo beretik, jarduera berri bati heltzeko orduan **porrotari beldurra diotela esaten duten pertsonek nabarmen egin dute behera**. Oraindik ere biztanleen %42,7 diren arren, badirudi poliki-poliki zuzentzen ari dela jarduera ekintzaile berri bati ekiteko orduan izaten den hesi mental nagusietako bat.

**Ekintzailetzarako aukerak egon badaudela sumatzen duten biztanleak. EAE vs EB konparaketa**
EAEn ekintzailetzarako aukerak egon badaudela sumatzen duten biztanleen %, 2009-2015 EAE; 2013-2015 EB




**Porrot egiteko beldurra hautematen duten biztanleak EAE vs EB konparaketa**
EAEn porrot egiteko beldurra ekintzailetzan jarduteko oztopo moduan hautematen duten biztanleen %: 2009-2015 EAE ; 2013-2015 EB




*Iturria: EAEko 2015 GEM*

Ekintzailetza mugatzen duten balio eta jarrerei dagokienez, **ekintzailetzaren erakargarritasunak behera egin du** aukera profesional on gisa; era berean, ekintzailetza ordainsari aipagarri bat dakarren jardueratzat hartzeko ikusmoldeak behera egin du. Hainbat azterlanek[25] leundu egiten dute pertzepzio hori, batez ere gazteen kolektiboan, baina behin eta berriz azpimarratzen dute lan egin beharra dagoela jarduera ekintzaileak, bizi eta lanbide aukera gisa, daukan erakargarritasuna nabarmentzeko.

Pertzepzio hori berretsita gelditzen da kontuan hartzen badugu datozen urteetan ekintzailetzan jarduteko asmo handirik ez dagoela, eta **martxan dauden proiektuak handiarazteko anbizioa** ere anbizio mugatua dela. Hala, lehen fasean dauden enpresa berriak dauzkaten pertsonen %4,5ek espero dute datozen 5 urteetan 20 enplegatu edukitzea; izan ere, horri dagokionez, Euskadi Europako batez bestekoaren azpitik dabil (%8,4), nahiz eta autonomia erkidegoen rankingean posizio onean egon. Ranking horren buruan Madril dago (%5,4).

| ADIERAZLEA | EAEko balioa | EBko batez bestekoa | Estatuko batez bestekoa |
|---|---|---|---|
| Emakume ekintzaileen ehunekoa | %46,3 | %35,5 | %43,5 |
| Goi ikasketak eginak dituzten ekintzaileen ehunekoa | %57,6 | Daturik ez | %49 |
| Oportunitateak eragindako proiektuen ehunekoa | %73,1 | %73,7 | %73,5 |
| Datozen 3 urteetan ekintzailetzari heltzeko asmoa daukaten pertsonen ehunekoa | %3,7 | %4,8 | %6,1 |
| Ekintzailetza aukera profesional ona dela uste duten pertsonen ehunekoa | %50,1 | Daturik ez | %53,2 |
| Ekintzailetza ordainsari sozioekonomiko aipagarria dakarren jarduera gisa ikusten duten pertsonen ehunekoa | %48,4 | Daturik ez | %48,4 |
| Beren enpresa handitzeko anbizioa daukaten eta 5 urtean 20 enplegatutik gora edukitzea aurreikusten duten pertsonen ehunekoa | %4,5 | %8,4 | %2,4 |

[25] *Europa Pressek 2017ko martxoan argitaratutako azterlana, non esaten baita Euskadiko gazteen %39,8k beren enpresa propioa sortzeko aukera planteatzen diotela beren buruari, etorkizun profesionalerako alternatibarik onena delakoan.*

### 2.1.3. Ekintzailetzarako laguntza

80ko urteetatik hona, sistema publikoa ibili da EAEko **jarduera ekintzaileari laguntzeko ahaleginaren buruan**. Hala, gero eta osoagoa eta segmentatuagoa den zerbitzu, azpiegitura eta programa multzo bat landu du askotariko kolektibo ekintzaileen beharren arabera. Eta hori guztia parekagarria da estatuko eta nazioarteko beste ekosistema batzuekin.

Azken urteetan, apurka-apurka, **eragile pribatu eta parapubliko** asko (finantza, enpresa, inbertsio, teknologia eta akademia arloetakoak, besteak beste) laguntza sisteman sartu dira, eragile publikoen lana osatuz eta estali gabeko beharrei erantzuna emanez.

Horiek guztiek **gero eta osoagoa eta aktiboagoa den ekintzailetzari laguntzeko ekosistema publiko-pribatua** osatzen dute, non 100 eragile baino gehiago dagoen. Eragileok, beheko grafikoan, egiten dituzten jardueren arabera antolatu dira[26].

**Ekintzailetzari laguntzen dioten eragileen mapa**
Faktore kritikoetan euskal ekosistemako eragile nagusi direnen sailkapen orientagarria, beren egitasmo nagusietan oinarrituz. Babson eredua (2017)




*Iturria: "Babson Entrepreneurship Ecosystem Project" eredua; informazio publiko erabilgarrian oinarritutako eragile sailkapena*

Ondoren, Euskadin jarduera bat egiten hasi nahi duen edozein ekintzailek eskuragarri dituen laguntza **programa nagusiak, azpiegiturak, finantza eta inbertsio tresnak eta gainerako zerbitzuak** aurkeztuko ditugu.

Lau eduki bloketan antolatuta daude (1. Pertsonak, ideiak eta kultura. 2. Laguntza programa, zerbitzu eta azpiegiturak. 3. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea. Eta 4. Instituzio, lege, administrazio eta zerga esparrua), aurreko mapan adierazitako faktore kritikoen arabera. Bloke bakoitza analizatzeko, honako oinarri hauek hartu dira kontuan: euskal ekosistemako aditu eta eragileen balorazioa, askotariko adierazleak eta martxan dauden lan ildo nagusiak eta zerbitzuak.

[26] *Babson Entrepreneur Ecosystem Project. Eranskinetan xeheago jasotzen da Babson Collegeren eredua.*

a) Pertsonak, ideiak eta kultura

Ekintzailetzaren hasierako "errezetak" bi osagai nagusi hauek behar ditu gutxienez: martxan jarri beharreko ideiak eta hori egingo duten pertsonak, halako kultura eta balio ekintzaile batzuetatik abiatuz. Euskadin, errezeta hori honelaxe mamitzen da:

- Pertsonak: lehen ere aipatu dugunez, euskal ekintzailetza osatzen duten **kolektiboak askotarikoak dira**, hala nola aurretik esperientzia ekintzailea izandako edo izan gabeko pertsonak, ikasleak, soldatapeko pertsonak, gizarteko segmentu espezifikoak (adibidez, emakumeak zein gazteak), ikertzaileak eta enpresariak. Hezkuntza sistemak eta gainerako eragileek programa ugariren bidez ematen dute laguntza; hori dela eta, Euskadin ekintzailetzarako egunean baino egunean prestatuago eta orientatuago dauden pertsonak dauzkagu.
- Kultura eta balioak: egia bada ere EAEn **kultura ekintzailea** gaizki baloratuta dagoela[27], kultura eta balio ekintzaileen zabalkundean aurrerapenak izaten ari dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gidaritzapean eta foru aldundien eta udalen, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen, unibertsitateen, ezagutza eragileen eta askotariko eragile publiko eta pribatuen lankidetzarekin. Egindako lanaren lagin gisa, 2015ean, EAEko 820 hezkuntza zentrok –gehienak oinarrizko hezkuntzakoak eta lanbide heziketakoak– ekintzailetza sustatzeko programetan parte hartu zuten; jarduera horietan 26.000 irakasle baino gehiago eta 320.000 ikasle inplikatu ziren.
- Ideiak: gaur egun, gure inguruan **ideia ekintzaileen iturri** ugari daude **"arrantzategi aktibo"** desberdinetan (enpresa egitura, LHko zentroak, ZTBES, osasun sistema, unibertsitateak, gizartea oro har). Horietako bakoitzean programa eta egitasmo espezifikoak abiarazten dira egitasmo ekintzaileen kantitatea eta kalitatea handitzeko; dena den, oraindik ere badago ideia/proiektu berrien sorkuntza sustatzeko potentzialik zenbait "arrantzategitan".

| | Lan ildo aipagarriak | Adibideak |
|---|---|---|
| Gizartea | • Prestakuntza, antzinatasuna edo adina –besteak beste– direla eta, lan munduratzeko zailtasunak dauzkaten langabeen ekintzailetzaren aldeko sentsibilizazioa. | *Lanbideren DEMA programa eta DEMA Taldeka Ekintzailetza taldeak, Bizkaiko Aldundiaren eskutik* |
| | • Jardunaldi eta ekitaldien bitartez, ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea. | *Ekitaldi eta lankidetza hitzarmen ugari* |
| | • Lanbide Heziketa arloko ekintzailetza sariak, unibertsitatean eta beste esparru batzuetan. | *Toribio Echevarria sariak, Ekintzailearen Astea, LHko ekintzailetza sariak, EHU/UPVko ekintzailetza sariak (Laborde, Inizia, Think Big, besteak beste), XXI Ekintzaile saria, Arabako Ajebask Enpresari Gaztea saria, besteak beste.* |
| Hezkuntza | • Espiritu ekintzailea (ekimenaren zentzua, enpresa espiritua, trebetasunen eta jarreren garapena) hezkuntzaren fase desberdinetan sustatzea, eta sentsibilizatzea. | *Egin eta Ekin*<br>*Zitek / Inizia / Entreprenari, EHU/UPVko hiru campusetan* |
| | • Hezkuntza formula berriak, bai kultura eta praktika ekintzailea bai irakasleen prestakuntza hobetzeko. | *Ikasenpresa, Ekingune, Irekin Irakasle Ekin* |
| | • Ekintzailetzari buruzko programak, karrerak eta masterrak. | *LEINN gradua (estatu mailan ekintzailetzaren inguruko gradu ofizial bakarra), eta Mondragon Unibertsitateko MINN, barne ekintzailetzaren masterra*<br>*Deustuko Unibertsitatearen Innovandis titulu propioa*<br>*EHU/UPVko Ekintzailetza eta Enpresa Zuzendaritzako masterra, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera* |

[27] *Azken urteetan, "lehen eta bigarren hezkuntzaren rola" izan da baloraziorik okerrena izan duen kondizioa, euskal ingurune ekintzailean EAEko 2015 GEM txostena egin duen aditu taldeak ebaluatutako kondizioen artean.*

| Lan ildo aipagarriak | | Adibideak |
|---|---|---|
| Pertsonen trebakuntza eta konexioa | • Pertsona ekintzaileen trebakuntza eta konexioa, eta, horretarako, sareetan eta nazioarteko proiektuetan parte hartzea. | *Masschallenge Biscay trebakuntza programa*<br>*BIND 4.0* |

b) Laguntza programa, zerbitzu eta azpiegiturak

Hainbat azterlan eta iritziren arabera, EAEn ekintzailetzari laguntzeko dauden **zerbitzu, programa eta azpiegituren** kopurua, aniztasuna eta espezializazio maila nolakoa den kontuan hartuta, esan daiteke gure laguntza sistema estatuko eta nazioarteko beste ekosistema batzuen parekoa edo hobea dela.

Ekintzailetza beharretan izandako eboluzioak berekin ekarri du eragileak eta programak gero eta espezializatuagoak izatea kolektibo bakoitzaren, ekintzailetza prozesuaren fasearen eta lurraldearen arabera. Hala, Euskadin, gaur egun, **300 laguntza zerbitzu eta programa** daude ekintzailetza fase eta kolektibo guztietarako; eta badago, halaber, premia bakoitzera egokitutako **profesional eta azpiegitura espezializatuen sare zabal bat**. Eragileek, gainera, sare horren kapilaritatea eta gertutasuna baloratzen dute.

Badaude, zalantza barik, teilakatzeak ekiditeko eta efikazia nahiz efizientzia handitzeko hobekuntza arloak, baina bi faktoreak (programak eta azpiegiturak) positiboki baloratu dira EAEko jarraikako GEM txostenetan *"programa eta jarduketa kopuru egokiagatik, horien egokitasun eta eraginkortasunagatik, eta azpiegitura horniduragatik"*, izan ere, Europako zenbait batez bestekoren eta beste autonomia erkidego batzuen batez bestekoen gainetik gabiltza.

Modu osagarrian, sistema hobetu eta sofistikatzeko prozesu etengabean, lehentasunezko zenbait lan ildori heldu zaie; horien artean: BICen berrantolaketa, enpresetako azelerazio eta hazkunde tresnak eta programak, barne ekintzailetzari emandako bultzada jarraitua eta enpresa berriak merkatura iristea ahalbidetzeko egitasmoak. Salmentak dira enpresa berrien “oxigenoa”, eta horixe izan da, hain zuzen, EAEko ekintzaileek tradizionalki aipatu duten hesi nagusietako bat.

| Lan ildo aipagarriak | | Adibideak |
|---|---|---|
| Laguntza programa eta zerbitzuak | • Lagun egiteko zerbitzuak enpresak sortzeko eta ideia umotzeko prozesuetan. | *Urratsbat, Txekin, Txekintek/Ekintzaile,Lanbide Ekintzailetzarako Laguntzak, besteak beste* |
| | • Sektore eta kolektibo espezifikoetara bideratutako programak. | *Sormenari loturiko industriak, merkataritza, nekazaritzako elikaduraren eta landa ingurunearen sektorea (HAZI, Mendinet), besteak beste* |
| | • Emakumeei bideratutako programak. | *Emekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarena Bizkaiko Foru Aldundiak AED/ CEBEKekin izenpetutako hitzarmenak eta laguntzak* |
| | • Unibertsitateak, Lanbide Heziketak eta ZTBESk ezagutzaren eta teknologien transferentzian oinarritutako enpresak martxan jartzeko ematen duten laguntza. | *Inizia/ Zitek / Entreprenari*<br>*Enpresa berritzaileak sortzeko programa* |
| | • Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen sustapena. | *Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien hainbat programa* |
| | • Startupen azelerazioa. | *Metxa, Berriup* |
| | • 4.0 industrian lan egiten duten mundu guztiko startupen azelerazioa. | *BIND 4.0* |
| | • Enpresen barruan barne ekintzailetzaren jarduerari emandako laguntza. | *Eusko Jaurlaritzaren barne ekintzailetzako egitasmoa, BICen Barnetekin programa eta EHU/UPVren Zabalduz* |
| | • Bazkideak sartzeari, ondorengotzari, belaunaldien arteko erreleboari eta enpresa transmisioari buruzko programak. | *Dauden proiektuak indartzea*<br>*Gizarte ekonomiako bazkide berriak*<br>*Parte hartze bidezko ondorengotza*<br>*Belaunaldi erreleboa LH*<br>*Gaztenek* |

| | Lan ildo aipagarriak | Adibideak |
|---|---|---|
| Azpiegiturak | • Inkubazio eta laguntza azpiegiturak BICetan.<br>• Inkubazio azpiegitura aurreratuei eta laguntza zerbitzu espezializatuei emandako bultzada ingurune unibertsitarioetan, zientifiko eta teknologikoetan eta BICetan.<br>• Tokiko eta eskualdeko laguntza azpiegiturak. | *Azpiegitura espezializatuen sarea, inkubagailuak, haztegiak, azeleratzaileak, coworking espazioak, besteak beste.* |
| | • Jarduera ekintzailea sustatzen duten espazioak, lurralde jakin batean ekintzailetzaren ekosistema bat garatuz. | *Bilbao Berrikuntza Mondragon Unibertsitateko Faktoria*<br>*Bilboko Udalaren BIG Bilbao - Bilbao Ideien Gunea* |
| BICak | • BICen maparen berrantolaketa eta homogeneizazioa, enpresetara eta ZTBESko eragileengana hurbiltzeko, eta zerbitzuak poliki-poliki sofistikatuz joateko, nazioartean onartua dagoen BIC kontzeptuaren ildotik. | *Hiru lurralde historikoetako BICak.* |

c) Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

Euskal ekintzailetzak eskuragarri dituen finantzaketa eta inbertsio publiko eta pribaturako aukeren aniztasunari eta kalitateari dagokienez, zera esan daiteke:

- Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da **finantzaketa eta inbertsio tresna eta aukera berriak** –publikoak nahiz pribatuak– sortzen ari direla progresiboki, eta aukera horiek guztiek osatzen duten eskaintza zabala eskuragarri dagoela proiektu ekintzaileentzat, proiektuok dauden fasean daudela. Hala ere, hasierako faseetan halako kontzentrazio bat dago, eta badira oso espezifikoak diren premia eta kolektibo batzuentzat bete gabe dauden gap batzuk ere, hala nola aurre-inkubazioko eta fase aurreratuetako finantzaketa/inbertsioa (>1M€), mikrokredituak Lanbide Heziketatik datozen proiektuetara hedatzea, edo finantzaketa espezializatua RIS3 sektore zenbaitetan, besteak beste.
- Ez da ahaztu behar, proiektu baten fase desberdinetan, finantzaketa dela jarduera ekintzailea gehien oztopatzen duen **hesia**[28]. Balorazio horri gehitu behar zaizkio, batetik, tokiko inbertsiorako kultura faltari buruzko iritziak[29] (biztanleen %2,5 dago, ozta-ozta, proiektu ekintzaileetara zuzendutako inbertsio informaletan sartuta), eta, bestetik, atzerriko kapitalaren erakarpen mugatua (2015ean Estatuko Zuzeneko Inbertsio Atzerritarraren %3, hots: 854 M€[30]); horra hor, arlo honekin lotutako zenbait gabezia.
- Balantzaren alde positiboan, esan behar da EAEko ekintzaileen artean baikortasunak gora egin duela banku finantzaketa eskuratzeari dagokionez (proiektu jaioberrien %43,5ek bide horretatik jo du fondoak lortzeko, edo horrela lortzea espero du[31]), finantzaketa premia txikitu egin delako (behar den batez besteko hazi kapitalaren %64,2 sustatzaileek beraiek jarri zuten, eta estatuan ehuneko hori %69,8koa da), eta gero eta proiektu gehiagok *business angels*-en finantzaketa jasotzea espero dutelako (2015ean, %4,4k; 2014an, berriz, %2,8k).

[28] *GEM txostenak emandako hainbat urtetako datuetan oinarrituta. Finantzaketan aditu den aditu taldearen balorazioa.*
[29] *EAEko ekintzailetza ekosistemaren analisia, aditu talde batek egin zuena eta Espainiako Berrikuntza Agendaren azterlanean sartu zena. Bankinter Fundazioa, 2011.*
[30] *Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (Datainvex 2015)*
[31] *EAEko 2015 GEM txostena*

| | Lan ildoak | Adibideak |
|---|---|---|
| Finantzaketa fondo eta lerroak | • Langabeziako prestazioaren kapitalizazioa. | *Lanbideko langabezia kapitalizazioa* |
| | • Ekintzailetzari eta autoenpleguari laguntzeko bekak eta formulak, bereziki gazteen kolektiboari zuzenduta. | *Gazte ekintzaileentzako bekak*<br>*Junior Kooperatibak*<br>*Gaztepresa*<br>*EREIN*<br>*LEADER* |
| | • Enpresa berriak –bereziki berritzaileak– sortzeko diru laguntzak. | *Eusko Jaurlaritzaren Ekintzaile programa, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txekin-Txekintek, Arabako Foru Aldundiaren Emprender en Alava* |
| | • Potentzial handiko proiektuak finantzatu eta horietan inbertitzeko tresna eta formulak. | *Eusko Jaurlaritzaren Basque Fondoa, Bizkaiko eta Gipuzkoako Seed Capital, Eusko Jaurlaritzaren Luzaro, EAEko AK, beste tresna batzuen artean* |
| | • Finantzaketa lerro eta fondo desberdinen sorkuntza, publiko-pribatu lankidetzaren bidez startupak abiarazi, azeleratu eta sendotzeko. | *Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elkargi, finantza erakundeekin batera*<br>*Adegi, Geroa eta Elkargi* |
| | • Business angelsen edota inbertsiogile pribatuen sareak sortu eta sustatzea. | *Crecer +, Keiretsu*<br>*Cleantech Innvest* |
| | • Enpresa sortu berrietan inbertsio fondo eta tresna berriak sortzea. | *Kereon Partners, Orza, Emprendiza, Microwave, CAF Ventures, fondo espezializatuak eta "family offices", besteak beste* |

d) Instituzio, lege, administrazio eta zerga esparrua

Administrazio publikoei dagokie ekintzailetza jarduerarako politika, lege, administrazio, zerga eta finantza esparru propioa sortzea. "Joko zelaiaz" ari gara, ekintzaileek beren proiektuak garatzeko orduan erabilgarri izango dituzten oinarriko baldintzez. EAEn:

- Ebaluazio txostenen arabera[32], hauek dira **hesi** nagusiak: burokrazia, zergak ordaintzea, BEZa tramitatzea eta fiskalitateari nahiz erosketa publikoari ahalik eta etekin handiena ateratzea.
- Aldiz, autonomia erkidegoen artean, **Euskadi rankingeko liderra da zenbait aspektu edo izapide administratiboren balorazioan**, nahiz eta gai honetan Espainia atzeko lekuetan egon ohi den Munduko Bankuaren Doing Business eta halako txostenen arabera. Adibide gisa, esan dezagun Estatuan enpresa batek alta emateko behar duen egun kopurua (14 egun) EAEn 3 eta 10 egun bitartean dabilela, tramitazio telematikoari eta administrazioaren sinplifikazio progresiboari esker.
- Nabarmendu beharra dago Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko **16/2012 Legeak betetze maila altua izan duela orain artean** ekosistema hobetzeko alor konkretu batzuetan, hala nola balio ekintzaileetan oinarritutako heziketaren sustapenean, karga eta hesi administratiboen murrizte eta ezabatze progresiboan, behar espezifikoetara bideratutako programa konkretuen bidezko jarduera ekintzailearen babesean eta business angelsen sustapenean.
- Arlo fiskalean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoarekin koordinatuta egindako azterlan baten arabera, ekintzailetzarekin zuzenean lotuta dauden eta euskal foru ogasunek **PFEZn eta Sozietate Zergan** aplikatzen dituzten kenkari, salbuespen eta gainerako neurri fiskalek **34,2 milioi eurotik gorako gastua ekarri zutela 2015ean**.

[32] *Ondoz ondoko GEM txostenak eta ADEGIko Ekintzaileen Foroak Gipuzkoa Ekintzaile bat garatzeko egindako proposamen irekia (2011)*

| | Lan ildo aipagarriak | Adibideak |
|---|---|---|
| Lege esparrua | • Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legean ekosistema hobetzeko identifikatu diren arloetan aurrera egitea. | *2013-2016 EJLEPren balantze txostenak*<br>*EEP 2020* |
| Instituzio esparrua | • Ekintzailetzari laguntzeko erakundearteko plana, administrazio publiko eskudunen arteko konpromisoaren eta koordinazioaren alde egitea xede duena. | *2013-2016 EJLEP*<br>*EEP 2020* |
| | • Ekintzaileen kolektiboko ordezkariek planteatutako hobekuntza proposamenen eta inpaktu neurrien analisi etengabea euskal administrazio publikoen eskutik. | *Erosketa publiko berritzailearen aktibazioa*<br>*Kontrataziorako laguntzak*<br>*BEZa likidatzeko mekanismo arinak*<br>*Hobekuntza fiskalak* |
| Zerga esparrua | • Business angelsak sustatzera, ekintzailetza eta barne ekintzailetza indartzera eta enpresa proiektuak eta beren erabaki zentroak errotzera bideratutako neurri fiskalak. | *Askotariko salbuespenak, kenkariak eta neurri fiskalak PFEZn eta Sozietate Zergan foru aldundien eskutik* |
| Administrazio esparrua | • Administrazio prozesuen funtzionamendua homogeneizatuz, administrazioaren sinplifikazioan aurrera egitea. | *Enpresa baten altaren kudeaketa telematikoaren garapena Bizkai eta Gipuzkoan* |
| | • Sarbide eta informazio kanalak, eta ekintzaileari hasieran laguntzeko kanalak sortzea, enpresa bat sortzeko behar diren aholku eta tramite guztiak eskuratzeko sisteman sartzeko puntu fisiko ugarirekin. | *Wep Up! Euskadi webgunea, Leihatila bakarrak eta Aholkularitza eta tramitazio hasiera* |

## 2.2. Euskal ekintzailetza eredua

Behin ekintzailetza jarduera, ekintzailetzari heldu dion pertsonaren profila eta Euskadin dauden laguntzen kalitatea aztertu ondoren, galdera hau sor dakiguke: ba al dago euskal ekintzailetza eredurik? Edo bestela esanda, ba al dauka Euskadiko ekintzailetzak beste errealitate batzuetatik bereizten duten tasun definitzailerik?

Kapitulu honetan **euskal ekintzailetzaren bost tasun definitzaile** identifikatzen dira, eta horien lagungarri, baita adierazle batzuk ere, errealitate ekintzailea bera erraz ezaugarritu ahal izateko; Euskadik, ekintzailetzari heltzeko lurralde erakargarri gisa, dauzkan ezaugarri bereizgarriak nabarmentzeko; eta euskal ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatu guztiek partekatutako kontaketa baten alde egiteko.

Egindako analisitik abiatuz eta eragile nagusiekin kontrastea egin ondoren, hona hemen bost tasun definitzaileak:

**Euskal ekintzailetza eredua**
Tasun definitzaileak




*Iturria: geuk egina*

a) <u>Proiektuen biziraupen altua</u>

Lehenago ere azpimarratu dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoan hasitako proiektu ekintzaileek, oro har, nabarmentzeko moduko biziraupen tasak erakusten dituzte.

Laguntza sistema publikoaren eskutik aholkularitza jaso duten enpresen –OTEBBak barne– %80k gutxienez hiru urte bizirauten dute. Gainera, sendotutako negozioak dauzkaten biztanle helduen portzentajea[33], azken urteetan, %7-8koa da, eta "bertan behera utzitako enpresen indizea oso txikia[34]" da, alegia, %1 ingurukoa. Kasu bietan, Europako batez bestekoak hobetzen ditugu (%6,5 eta %4,6 hurrenez hurren).

Errealitate horren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke:

- Martxan jarritako proiektuen eta sortutako enpleguaren <u>kalitatea eta sendotasuna</u>, hein batean hurrengo tasunak azaltzen duena; ekintzailearen profila, ekintzailetzan hastean daukan adina kontuan hartuta; ekintzailearen esperientzia eta daukan motibazioa.

[33] *EAEko 2015 GEM txostenaren arabera, "adierazlerik indartsuena" zera da: 42 hiletik gorako bizialdia daukaten enpresa proiektuetan inplikatutako populazioaren ehunekoa.*
[34] *EAEko 2015 GEM txostena*

- Sistema publikoaren efikazia, zeinak proiektuen kalitatea lehenesten duen kantitatearen kaltean, jasotzen diren proiektuei iragazki zorrotzak jarriz (24.500 kontsulta 2013-2015 aldian) eta etengabe eguneratzen diren lagun egite indibidualizatuen sistema oso bat ezarriz; horrek guztiak eragina dauka azkenean babesten diren proiektuen biziraupen zifretan (aipatutako aldian ia 8.000 enpresa sortu ziren), hots, lehen aipatu ditugun zifretan.
- Aldeko testuinguru enpresariala, enpresa eta industria egitura sendo, errotu eta esperientziadun batek osatzen duena, enpresa berrietan inplikatzen dena, produktu/teknologia berriak garatzeko funtsezko laguntza ematen duen industria laguntzaile batekin eta ekintzailetzan gero eta interes handiagoa daukan egitura asoziatibo gertuko eta dinamiko batekin.

b) Ekintzailetzarako prestatutako emakume eta gizonak

Euskal Autonomia Erkidegoan badaude ekintzailetzan **jarduteko nahikoa helduak, trebatuak eta fidagarriak** diren emakume eta gizon ekintzaileak.

- Batez besteko adina 40 urte inguruan dabil, eta hiru kasutik bitan, oportunitateak bultzatuta heltzen zaio ekintzailetzari; horrek erakusten du tartean badagoela esperientzia profesionala, garapen pertsonala eta enpresa kultura.
- Prestakuntza maila altua edo oso altua da, eta literatura zientifikoak frogatzen duenez, erlazio estua dago ekintzaileen heziketa mailaren eta ekintzailetzaren kalitatearen artean (lehiakortasuna, inpaktua, eskalagarritasuna eta bizitza luzera).
- Ekintzaileen %60k errenta maila altua daukate.
- %42,7k porrot egiteko beldurra sumatzen dute; dena den, zifra hori Europako batez bestekoa eta Euskadiko 2012ko datua baino txikiagoa da.

Populazio heldu, ondo prestatu eta fidagarri horretan, emakume ekintzailearen rola nabarmentzen da, oso garrantzi handikoa baita nazioarteko beste errealitate batzuen aldean.

c) Babes publiko jarraitua

**Ekintzailetza babestearena euskal administrazio publikoen lehentasunezko jardute ardatza** izan da 80ko urteetan “Euskal Ekintzailetza Sistema” sortu zenetik gaur egun arte (ikus, hurrengo orrialdean, “Ekintzailetzari laguntzeko euskal sistemaren eboluzioa” grafikoa).

Askotariko datuek frogatzen dute egindako ahalegin eutsia:

- Ekintzailetza babesten inplikaturiko eragile publikoen kopurua herrialde, lurralde, eskualde eta herri mailan, eta ekintzaile aktiboen rol protagonista eta solidarioa sustatzea, arlo ekonomikoan zein sozialean.
- Ekintzailetzaren fase desberdinetan kolektibo ekintzaileei laguntzeko zerbitzu eta programen kopurua eta aniztasuna (300 ekintza baino gehiago).
- 2013-2016 aldian bideratutako aurrekontu publikoa: 250 milioi euro (EJLEP).
- EAEko ondoz ondoko GEM txostenetan balorazio positiboak nabarmentzea “programa eta jarduketa kopuru egokiaz, horien doitasun eta eraginkortasunaz, azpiegituren horniduraz eta arrisku ekintzailearen sustapenaz”, Europako eta beste autonomia erkidego batzuetako batez bestekoak gaindituz.

d) "Arrantzategi" ugari aktibaturik

Urteen joanarekin, ideien eta proiektuen "arrantzategi" ugari joan dira progresiboki aktibatuz, jarduera berrien iturri posible gisa aktibatu ere. Hala, "arrantzategi", kolektibo ekintzaile, sektore eta ekintzailetza tipologia desberdinetara zuzendutako laguntza programa, zerbitzu eta azpiegituren segmentazio eta espezializazio progresiboa ekarri du zabalkunde horrek. Hori hala, Euskal Autonomia Erkidegoak honako hauek ditu gaur egun:

- "Arrantzategi" desberdinei zuzendutako laguntza: hezkuntza sistemari (lanbide heziketako ikastetxeak eta unibertsitateak), zientzia eta teknologia sareari, osasun sistemari, enpresa, industria eta asoziazio sareari, eragile babesleei eta gizarteari oro har, denak ere ideia eta proiektu ekintzaileak erakartzeko eremutzat hartuta.

- Kolektibo ekintzaile ugariri zuzendutako laguntza: ekintzailetza esperientzia daukaten eta ez daukaten pertsonei, oinarrizko eta goi mailako hezkuntzako ikasleei, enpresei eta enpresariei, ikertzaileei, laguntza berezitua behar duten gizarte segmentu espezifikoei (gazte langabeak, adinekoak eta gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak) eta gizarteari oro har.

- Sektore askotako ekintzailetza tipologia desberdinei zuzendutako laguntza: ekintzailetza inklusibo, berritzaile eta sozialari, besteak beste, industria eta energiaren sektorean, teknologia eta ezagutzarenean, biozientzietan, kulturan, merkataritza eta turismoan, nekazaritza eta elikaduraren sektorean, gastronomiarenean eta beste zerbitzu batzuetan.

- "Arrantzategi" eta kolektibo ekintzaile bakoitzari egokitutako azpiegitura, profesional eta laguntza programa espezializatuen hornidura, lehen ere esan dugunez, EAEko GEM txostenean positiboki baloratua.

e) Ekimen pribatua gorantz

Azkenik, euskal ekintzailetzaren azken tasun bereizgarri gisa, aipatzekoa da sektore pribatua protagonismoa hartuz joan dela, eta gaur egun funtsezko rola betetzen duela ekosisteman. Euskadiko ekintzaile batek, eskuragarri duen laguntza sarearen bidez, honako hauek izango ditu, frogatua dagoenez, eta gero eta inplikatuago, bere alde: enpresa eta industria egitura, finantzen eta inbertsioen sektorea, bigarren belaunaldiko ekintzaileak, azeleratzaile pribatuak, unibertsitate eta teknologia zentro pribatuak, egitura asoziatiboa, askotariko sare eta foroak, eta hedabideak, besteak beste.

Halaber, baloratzekoa da euskal gizartean bai enpresa pentsamoldeak bai lanaren kulturak daukaten garrantzia, betiere konpromisora, esfortzura, seriotasunera, zorroztasunera, sustraietara eta zuhurtasunera bideratuta, balio komunitario nagusi eta proiektu berriak lantzeko oinarri sendo gisa.

**Ekintzailetzari Laguntzeko Euskal Sistemaren eboluzioa**
Analisi kualitatiboa

| | Jatorrian... (80ko urteak) | Mende aldaketa | Orain |
|---|---|---|---|
| **1. Herritarren beharra / justifikazioa ekintzaile izateko** | • %25etik gorako langabezi tasekin eta desegituraketa sozial handiarekin, ekintzailetza **autoenplegatzeko** modu gisa planteatu zen. | • Goi hezkuntza maila altuarekin eta langabezia frikzionaletik gertu dauden desenplegu mailekin, ekintzailetza **negozio aukeratzat** joa izatera pasatu da. | • Krisiaren ondoren geldialdia etorri da, langabezia mailak behera egin du eta ekintzailetzak langabeziatik irteteko lehentasunezko aukera izateari utzi dio.<br>• Ekintzailetza lanbide eta bizi aukeratzat jotzeko **pertzepzio sozial** txikia. |
| **2. Ekintzailetza sistemaren misioa** | • **Autoenplegua sustatuz eta enpresa txikiak sortuz**, enplegua sortzea; normalean, tokiko eta ibilbide laburreko enplegua. | • **Behar aldakorretara egokitu** beharra (lurraldearen, eragilearen, fasearen eta abarren arabera), ibilbide luzeagoko enpresen sorkuntzara eta ekintzailetzari loturako balioen transmisiora orientatuz. | • Ekintzailetza eta kolektibo **tipologia guztientzako** laguntza segmentatua.<br>• **Enpresa berritzaile, global eta ibilbide luzekoen** aldeko apustua.<br>• Zein izan behar dira sistemaren erreferentziako adierazleak? |
| **3. Laguntza sistema, jardute politikak eta landutako tresnak** | • Jarduketak "**Proiektuaren lanketa eta sozietatearen eraketa**" balio katearen faseetara bideratu ziren, era guztietako proiektuetan.<br>• **Laguntza programa eta zerbitzu berritzaileen** diseinua eta ezarpena (XXI. mendeko ekosistemaren oinarria)<br>• **Azpiegitura eta tresna finantzarioak** sortzea. | • Eragileen eta programen **espezializazioa.**<br>• Eragileen eta programen **gehikuntza.**<br>• Jarduketak ekintzailetza prozesuaren **fase guztietan**, ez bakarrik hasierako faseetan.<br>• **Programa espezifiko** berrien diseinua unibertsitateetan, lanbide heziketan, teknologia zentroetan, etab. | • Sistemak eboluzionatu egiten du, eta ekintzailetza proiektuen bizi zikloaren **fase guztietara** hedatzen da.<br>• **Azpiegituren espezializazioa** eta laguntza zerbitzuen sofistikazio eta integrazio progresiboa.<br>• Ekintzailetzarako **hezkuntza eta kultura** programen hedapena.<br>• Eragileen eta egitasmoen zatiketa handia, eta **sektore pribatuaren presentzia** gero eta handiagoa da. |
| **4. Lortutako emaitzak** | • "Mini-enpresak" sortuz, ekarpen handia egin zen **langabezi tasa progresiboki murrizteko**. | • **Sortutako enpresa** kopuruan inpaktua nabaritu zen, nahiz eta normalean sektore tradizionaletakoak izan. | • Enpresen kopuru total txikia, **tamaina eta hazkunde mugatuekin. Bizirauren** tasa altuak.<br>• **Zerbitzuen sektorea nagusi.** Goi berrikuntza eta teknologiako OTEB kopuru txikia. |

*Iturria: geuk egina*

## 2.3. Euskal ekintzailetzaren erronkak etorkizunera begira

Aipatu berri ditugun ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, Euskadi ekintzailetzarako lurralde erakargarria dugu, bai, baina, diagnostikoan aipatu dugun bezala, badira hobekuntza arlo batzuk euskal eragile publiko eta pribatuek lehentasunez heldu beharrekoak Plan honen esparruan.

Hasierako laburpen gisara, **euskal ekintzailetzaren lehentasunezko erronkak** aurkeztuko ditugu grafikoki, bederatzi jardute ardatzetan antolatuta.

**Euskal ekintzailetzaren erronkak etorkizunera begira (57)**

**1 EKINTZAILETZAREN KULTURA eta BALIOAK**
- Alor guztietara hedatzea
- Heziketaren eta ekintzailetzaren munduak gerturatzea
- Aberastasun banatzeko eta kohesio sozialerako kultura
- Irakasleen trebakuntza
- Ekintzailea/enpresaria errekonozitu eta legitimatzea
- Erreferentziako pertsonak/ereduak
- Ekitaldiak eta sariak
- Komunikabideak

**2 GIZA KAPITALAREN TREBAKUNTZA eta KONEXIOA**
- Kolektiboen eta pertsonen arteko interakzioa eta elkarrizketa
- Nazioarteko giza kapital ekintzailea erakartzea
- Pertsona ekintzaileen eta ekosistemako profesionalen aurreneko mailako trebakuntza
- Profesionalen mugikortasuna

**3 EKINTZAILETZA ITURRI eta IDEIAK**
- Ideiak eta proiektuak kolektibo eta motibazio guztietan bultzatzea
- Ideiak balioztatzea eta askotariko "arrantzategiak" ezagutzea
- OTEBak RIS3n
- Programa sektorialak
- Enpresa (barne)ekintzaileak
- Hezkuntza sistema
- ZTBES eta osasun sistema
- Langileek krisian dauden enpresen oinordetzan eta susperraldian parte hartzea bultzatzea

**4 FINANTZAKETA eta INBERTSIOA**
- Pertsona ekintzaileen eskura dauden aukeren mapa
- Ko-inbertsio publiko-pribatua
- Aurre-inkubazio etapetara eta etapa aurreratuetara egokitutako tresnak
- Bermeak eta abalak
- Enpresa eta industria kapitala
- BBAA sareak-inbertsio pribatua
- Estatuko eta nazioarteko finantzaketa

**5 MERKATURAKO SARBIDEA**
- Merkatuan sartzeko programekin jarraitzea eta lehen bezeroak bilatzea
- Lankidetzazko ekintzailetza: merkatuan sartzeko bide
- Proiektu erakusleak, laguntza publikoarekin
- Erosketa publiko berritzailea / aurre-komertziala
- Proiektuen konexioa berrikuntza sistemekin, internazionalizazioa

**6 PROZESUAK, ZERBITZUAK eta LAGUNTZA PROGRAMAK**
- Zerbitzuen eta programen bisibilitatea eta eskuragarritasuna
- Programen eta ekintzen etengabeko eguneratzea
- Irudi berria sendotzea eta BIC eskaintza sofistikatzea
- Praktika onak programen segimendu eta ebaluazioan
- Programa berrien kodiseinu publiko-pribatua

**7 FISKALITATEA eta ARAUDI ERRAZTAILEA**
- Tresna fiskalak eguneratzea
- Arauak eguneratzea
- Hesiak ezabatzea eta tramiteak arintzea
- Erakundearteko lankidetza eta koordinazioa

**8 AZPIEGITURA ADIMENDUNAK**
- Azpiegitura infraerabiliak aprobetxatzea eta azpiegitura espezializatuetan inbertitzea
- Azpiegituren eta eragile parte hartzaileen arteko konexioa
- Onespen-erabilera-txandaketa irizpideak
- Azpiegitura parke osoa
- ZT ekintzailetza eta berrikuntza espazioak hezkuntzan

**9 POSIZIONAMENDUA eta EKOSISTEMA INDARTZEA**
- Ekintzailetzarako lurralde erakargarria
- Konexioa eragileekin eta nazioarteko ekintzailetza zentroekin
- Proiektuak eta pertsonak erakarri eta trukatzea
- Ekintzailetzarako erraztasunak
- Gobernamendu onaren, gardentasunaren eta koordinazioaren printzipioak
- Ekosistema osoa eta sinergikoa

Ondoren, erronka horiek banakatu eta xehatuko ditugu:

1. **Ekintzailetzaren kultura eta balioak**
   a. Ekintzailetzaren kultura eta balioak hezkuntzaren, gizartearen eta bizitzako faseen maila guztietara hedatzea.
   b. Ekintzaileak eta enpresariak hezkuntzaren mundura –maila guztietara– hurbiltzea.
   c. Sortutako aberastasuna hobeto betetzera, kohesio sozial handiagoa lortzera eta enpresen gizarte erantzukizuna sustatzera joko duen ekintzailetzaren kultura sustatzea.
   d. Irakasleak ekintzailetzan trebatzea (balioak, kontzeptuak, metodologia berriak), garatuz joango den hezkuntza gero eta praktikoagoa eta esperientzialagoa izan dadin.
   e. Ekintzailearen eta enpresariaren errekonozimenduan, legitimazio sozialean eta balorizazioan lan egiten jarraitzea.
   f. EAEn eduki nahi dugun enpresa ereduarekin (lehiakorra, sostengarria, errotua, parte hartzailea) bat datozen ekintzailetza ereduak jarraitzen dituzten pertsona ekintzaileak agerian jartzea, “ekintzailetzaren bizi zikloa osatu” dutenek egindako ekarpena bereziki baloratuz.
   g. Ekintzailetzaren kultura sustatzeko ekitaldi, sari eta ekintza gehiago koordinatzea, sinergiak aprobetxatzeko eta inpaktu handiagoa eragiteko.
   h. Hedabideen irismena aprobetxatzea kultura eta balioak zabaltzeko.

2. **Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa**
   a. Kolektiboen eta pertsonen arteko interakzioa, elkarrizketa eta lankidetza sustatzea, eragile publiko eta pribatuek pertsonen “konektore” gisa jardutea ahalbidetuz, sareen sorkuntza eta asoziazionismoa bultzatuz eta ekintzaileei, hainbat egitasmo eta programatan, mentore, inbertsiogile, prestatzaile nahiz bezero gisa parte hartzen lagunduz.
   b. Nazioarteko giza kapital ekintzailea erakartzea, eta arreta berezia jartzea EAEren eta bertako enpresen eraldaketa sozial eta produktiboa eragiteko behar diren profil eta gaitasunei (merkataritza arloa, diseinua, kudeaketa).
   c. Euskal sistema publikoko profesionalen eta ekintzaileen goi mailako trebakuntza etengabea sustatzea, erreferentziako eragile eta adituen eskutik prestakuntza ibilbide pertsonalizatuak diseinatuz.
   d. Profesionalen mugikortasuna ahalbidetuko duten neurriak praktikan jartzea, izan enpresa sortu berrien artean, izan sendotutako enpresetarantz/enpresetatik edo eragile zientifiko-teknologikoen artean.
   e. Krisian dauden enpresen oinordetza eta suspertzea bultzatzea proiektu horien parte diren langileen aldetik

3. **Ekintzailetza iturri eta ideiak**
   a. Kolektibo ekintzaileen beharrei erantzutea, oportunitateak nahiz premiak eragindako tipologia orotako proiektuak (berritzailea, inklusiboa, soziala) bultzatzeko, arreta berezia jarriz ekintzailetzari heltzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboetan (gazteak, langabeak).
   b. “Arrantzategi” guztietan dauden ideiak eta ezagutza balorizatzea, ekintzailetzako proiektu berriak martxan jartzeko (hezkuntza sistema, ZTBES, enpresa eta asoziazio egitura eta gizarteko hainbat kolektibo/segmentu).

c. EAErentzat etorkizun oparokoak diren RIS3 sektoreetan bereziki, OTEBBei laguntzeko apustu bereizgarria egitea, esaterako, fabrikazio aurreratuan, energian eta biozientzietan, ekosistemaren nolabaiteko espezializazioa sustatuz.

d. Merkataritza, nekazaritza eta elikadura, IKT, kultura industria, "ekonomia berde" eta halako sektoreetan, ekintzailetzarako aukera berriak sortuko dituzten estrategia eta programa sektorial espezializatuak bultzatzea.

e. Enpresa egitura eraldatu eta berritzeko, barne ekintzailetzako proiektuak sustatzea, eta, ildo horretatik, laguntza berezitua ematea enpresa txiki ertainei nahiz enpresa handiei; horretarako, besteak beste, sentsibilizazio, trebakuntza, lagun egite eta beste enpresa (enpresa txiki eta ertainak eta enpresa handiak), pertsona ekintzaile eta tarteko eragileekiko lankidetza neurriak hartzea.

f. Hezkuntza sistemaren rola indartzen jarraitzea (unibertsitatea eta lanbide heziketa), proiektu eta pertsona ekintzaile berrien iturri gisa.

g. ZTBESn eta osasun sisteman dagoen potentzial ekintzailea ahalik eta gehien aprobetxatzea, eta, horretarako, dagoen ikerkuntza eta ezagutza balorizatzeko neurriak hartzea, zerbitzu eta profesional espezializatuengana iristea (ad. biozientzietako jabetza industrialaren ustiapena) eta kolektibo zientifikoan profil ekintzaileak detektatzea eta trebatzea, beste neurri batzuen artean.

## 4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

a. Proiektu ekintzaileek –jatorri publiko nahiz pribatukoak– eskuragarri dituzten finantzaketa eta inbertsio aukera guztiak mapatu eta agerian jartzea.

b. Koinbertsio publiko-pribatuko mekanismoak sustatzea (match funding), potentzial eta inpaktu handiko proiektuen hazkundea ahalbidetzeko.

c. Potentzial handiko proiektuetan, aurre-inkubazioko eta fase aurreratuko finantzaketa/inbertsio alternatibak (>1M€) areagotzea.

d. Pertsona ekintzaileei bermeak edo abalak eskaintzea, finantzaketa eskurago izan dezaten.

e. Hasierako faseetan batez ere, finantzaketa tresna publikoak teilakatzea saihestea (toki, eskualde edo lurralde mailan).

f. Euskal enpresa egiturari (kapital industriala) proiektuekin lotutako finantzaketan eta inbertsioan parte hartzen laguntzea.

g. Business angelsen eta inbertsiogile pribatuen sare bat ehuntzen segitzea.

h. Kapital erabilgarria agerian jartzea, finantzaketa iturri eta mekanismoen dibertsitatea sustatuz (family offices, pledge funds, venture capital, azeleratzaileak, corporate venture capital, venture builders, banku etikoa eta crowdfundinga, beste batzuen artean).

i. Estatuan eta Europan dauden finantzaketa eta inbertsio aukera osagarriak ezagutzera ematea (EBko adibideak: Europako Inbertsio Funtsa (EIF); COSME programaren tresnak, "SME Instrument" eta EIT KICs, besteak beste; estatuko adibideak: CDTI (INNvierte), ICO lerroa ekintzaileentzat, ENISA maileguak, Isabel la Catolica Fondoa (Axis eta EIF), besteak beste.

j. Lehentasunezko RIS3 sektoreetan, fondo espezializatuak eskuratzeko moduan egotea.

k. A (>1M€), B (>5M€) eta C (>20M€) serieetarako sarbide beharra daukaten proiektu ekintzaileei orientazioa eta laguntza ematea.

## 5. Merkaturako sarbidea

a. Proiektu ekintzaileei merkatura sartzea eta "lehen bezeroak" bilatzea erraztuko dieten programei jarraipena ematea, bereziki lehentasunezko RIS3 sektoreetan.

b. Lankidetzazko ekintzailetza egitasmoak sustatzea (ekintzaileen, enpresa berrien, sendotutako enpresen eta beste eragile batzuen artean), merkatuetara iristeko eta hazteko bide gisara.

c. Proiektu erakusleak sustatzea, eta proiektu horietan, eragile publikoen lagun egite proaktiboaren eta bitartekaritza zereginen bidez egitasmo berriak merkaturatzen laguntzea.

d. Erosketa publikoko pilotuak garatzea, enpresa sortu berriak merkaturatzeko lehen pausoak sustatzeko.

e. Proiektu ekintzaileak, jaiotza fasetik, enpresa lehiakortasunari (berrikuntza, nazioartekotzea, kalitatea, kudeaketa aurreratua, ikerketa) laguntzeko gainerako sistemekin konektatzea.

## 6. Prozesuak, zerbitzuak eta laguntza programak

a. Eragile, zerbitzu eta laguntza programa multzoaren ikusgaitasuna eta irisgarritasuna areagotzea, ekintzaileek ez dezaten sistemaren gaineko nahasterik edo oker ulerturik izan ("nor da nor eta zer ekarpen egin diezadake").

b. Laguntza dekretu eta programa publikoak etengabe berrikusi eta eguneratzea, ekintzailetzaren bizi zikloaren fase bakoitzean dauden beharren arabera, hasierako eta transmisio/ondorengotza faseetako laguntza bereziki azpimarratuz eta hazkunde zein sendotze faseetan ekimen pribatuarekin lankidetza estuan jardunez.

c. BICen irudi berria eta rola sendotzea, BICok ekosistemako gainerako eragileekin daukaten erlazioa indartzea eta beren zerbitzu eskaintza poliki-poliki sofistikatuz joatea proiektu ekintzaileei lagun egiteko orduan, lantaldeak profil espezializatuekin indartuz eta BICen sarean dauden baliabide eta gaitasunak hobeto integratu eta aprobetxatzea ahalbidetuz (esperientzia, harreman sareak, metodologiak).

d. Praktika onak hedatzea, lagundutako proiektuen trazabilitatea ziurtatzeko, laguntza tresnen/programen eraginkortasuna, bateragarritasuna eta iraungipena ebaluatzeko, eta sortutako inpaktu ekonomikoa eta itzulkin soziala neurtzeko.

e. Eragile publikoen artean eta ekimen pribatuaren eskutik (enpresak, finantza eta inbertsio egitura), ekintzailetzari laguntzeko programa eta tresna berriak kodiseinatzeko praktikak sustatzea.

## 7. Fiskalitate eta araudi erraztaileak

a. Jarduera ekintzailean oztopoak ezabatu eta arriskuak arintze aldera, ekintzailetzari laguntzeko tresna fiskalak eguneratzea, eta euskal ekosistemaren filosofia eta kultura ekintzailearekin koherenteak diren portaerak saritzea.

b. Jarduera ekintzailearekin lotutako administrazio prozesuetan dauden hesiak arindu eta ezabatzea: tramitazio telematikoa, prozesuak eta hizkuntza sinplifikatzea, epeak hobetzea, BEZa itzultzea, besteak beste.

c. Etorkizun oparoko sektoreetan, hala nola fabrikazio aurreratuan, energia berriztagarrietan, garraio eta mugikortasun sostengarrian eta beste batzuetan, aukeren nitxo berriak agertzea ahalbidetuko duen legeria aurreratua sustatzea.

d. Erakundearteko lankidetzaren eta koordinazioaren alde egitea, eta estatuko eta nazioarteko instantziek sustatzen dituzten ildoekin (instituzionalak eta arau arlokoak) lerrokatzea.

## 8. Azpiegitura adimendunak

a. Dauden laguntza azpiegiturak proiektu ekintzaileen beharren arabera etengabe eguneratuz joatea, azpiegitura espezializatu berrietan ezohiko inbertsioak egitea eta gutxiegi erabiltzen diren azpiegiturei ahalik eta etekin handiena ateratzea.

b. Jabeak diren eragile publikoen elkarrizketaren eta koordinazioaren bidez, azpiegituren eta bertako eragileen arteko konexioa eta harremana sustatzea, kontuan izanik proiektu ekintzaileen inkubazio / azelerazio beharretara egokitu litezkeela.

c. Laguntzeko azpiegitura publikoetan, baimen, erabilpen eta txandaketa irizpideak berrikustea, proiektu “egoiliarren" premien eta azpiegituraren efizientzia eta sostengarritasunaren arteko oreka bilatuz.

d. Dimentsio handiko proiektu berrientzako lurzoru erabilgarri eta irisgarrian dauden gabeziak progresiboki leunduz joatea.

e. Zentzuzko kostua izango duen azpiegitura parke oso bat sustatzea, eta zentzuzko kostua diogunean, honetaz ari garela ulertzea: banda zabalaren eta abiadura handiko konektibitatearen kostuaz, bulego eta lurzoru espazio erabilgarriaz, hornidura energetikoaren kostu eta kalitateaz, eta kalitatezko logistika eta garraio azpiegiturez (errepidea, trena, itsas garraioa).

f. Ikastetxeetan berrikuntzarako eta ekintzailetza zientifiko-teknologikorako espazioak sortzea, Euskadirentzat etorkizun oparokoak izango diren sektore estrategikoekin lerrokatuta.

## 9. Ekosistemaren posizionamendua

a. Euskadi ekintzailetzarako lurralde erakargarri gisa posizionatzea estatuan eta nazioartean –“startup nazioa”–, euskal ekintzailetza eredua definitzen duten ezaugarriak eta lehiarako abantailak sustatzetik eta maila indibidual zein kolektiboko esperientzia ekintzaile nabarmenen balioa agerian jartzetik hasita.

b. Euskal ekosistema nazioartean erreferentziakoak diren beste ingurune, eragile eta ekintzailetza zentro batzuekin konektatzea; irekiera, jarduketen kontrastea eta etengabeko ikaskuntza sustatuz, eta egon litezkeen dinamika endogamikoak leunduz.

c. Proiektuak eta pertsona ekintzaileak erakarri eta trukatzeko egitasmoak sustatzea, batez ere RIS3 eremuetan, “ekintzailetza industrial eta teknologikorako ekosistema erakargarriaren” irudia bultzatuz.

d. Beste ingurune batzuetako pertsona eta proiektuei Euskadin ekintzailetzaren esperientzia ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea, aspektu profesionalei eta pertsonalei erantzunez.

e. Ekosisteman parte hartzen duten instituzioen artean printzipio hauek sendotzea: gobernu ona, informazioaren gardentasuna, erakundearteko koordinazioa eta kudeaketa aurreratua (planifikazioa, ebaluazioa, kontrastea).

f. Poliki-poliki, gero eta osoagoa, aktiboagoa, konektatuagoa eta sinergikoagoa izango den euskal ekosistema bat sortzea, ekintzailetzari laguntzeko eremu guztietan eragile publiko eta pribatuen arteko interakzio etengabea bultzatuz, osagarritasunak bilatuz eta ahaleginak batuz.

# III. blokea: EEP 2020ren estrategia

Euskal ekintzailetzaren egoeraren diagnostikoa osatu eta etorkizuneko erronka nagusiak identifikatu eta gero, orain galdera hau egin behar da: Norantz aurreratu behar du ekintzailetzak EAEn? Nola indartu bere ezaugarri bereizgarriak? Nola egin aurre identifikatutako erronkei eta nola handitu ekintzailetza jardueraren erakargarritasuna?

Ondoren, **EEP 2020ren etorkizuneko estrategia** aurkezten da, bere ekintzailetza babesteko inplikaturiko eragile nagusien jardueraren esparru estrategikoarekin. Datozen urteetako jardueraren lehentasunak zehazteko eta aurreko galderei erantzuteko helburuarekin, honela antolatuko den estrategia bat planteatzen da:

**EEP 2020ren etorkizuneko estrategiaren edukien eskema**



## 3.1 Etorkizuneko ikuspegia

Euskal ekintzailetzaren arloan, Plan honek sustatu nahi duen etorkizuneko ikuspegiak elkarri lotutako lau elementu dauzka: **Euskal gizarte gero eta ekintzaileagoa, ekintzailetza lantzeko gaitasuna eta jarrera duten norbanakoak, eta ekosistema publiko-pribatu eta sinergiko bat, pertsona horiei laguntzeko beharrak aseko dituena.**

Laugarren elementua aurrekoen baturatik sortzen da: **Euskadi ekintzailetza garatzeko leku on moduan posizionatzea**, non jarduera ekonomikorako eta enplegurako aukerak eta iturri berriak dauden, bere enpresen eta pertsonen lehiakortasun iraunkorra segurtatzeko.

*Gizarte ekintzailea*

Euskal gizarte bat, zeinean pertsonek, banaka edo lankidetzan, beharrak edo aukerak bultzatuta, ideiak jarduera praktiko bihurtzen diharduten, ziurgabetasunezko ingurune sozial, kultural edo ekonomiko batean emaitzarik onenak lortzeko. Gizarte bat, zeinean ekintzailetza, sozialki aitortua eta baloratua, benetako palanka izango den eraldaketa ekonomiko eta sozialerako.

*Pertsona ekintzaileak*

Ezagutza, dohain eta jarrerak dituzten emakume eta gizonak (sormena, tolerantzia, hobetzeko grina, arriskuak hartzea, jakin-mina, aldaketa eta dibertsitatea onartzea edo ikasteko nahia), beharrezkoak baitira une eta ingurune bakoitzean beharrak eta aukerak identifikatzeko (ingurune soziala edo enpresariala), eta ekintzara pasatzeko, jarduera eta proiektu ekintzaile bihurtzeko (enpresa bat sortzera bideratuta edo ez[35]).

*Laguntza ekosistema*

Ekintzailetza babesteko sistema publiko-pribatua, etengabe bilakatzen dena, ekintzailetza proiektuaren fase eta behar bakoitzean beharrezko laguntzak, laguntasunak eta konpetentziak eskaintzeko. Lankidetzan diharduten eta elkar osatzen duten eragileen sare bat, misio komun bateko partaide izatearen zentzuak elkartuta. Dauden ezagutza eta baliabideak efizientziaz aprobetxatzen dituzten aktoreak, gero eta proiektu eta enplegu berri gehiago sortzeko eta ontzeko baldintza egokiak bermatzeko, bereziki etorkizuneko sektore eta arloetan.

*Euskadi, ekintzailetzarako lekua*

Herrialde lehiakorra, orekatua eta berritzailea, bere gizartearen eta munduaren aurrean proiektu berri bati ekiteko leku erakargarri moduan aurkezten dena. Ekintzailetzarako leku ona. Bere historia, balio ea izaeraren bat eginda, Euskadik aukera anitz eskaintzen die bere herritarrei jarduera ekonomiko eta kalitateko enplegu berrien fluxu gero eta handiagoa sortzeko. Eta munduarekin konektatzen da, ekintzaletza industrial-teknologikorako erreferentziazko ingurune moduan.

[35] *Planean zehar bereziki azpimarratzen den arren "pertsona ekintzailearen" terminoaren esanahia dela "enpresa proiektu baten garapenaren fase desberdinetan konprometituta dagoen pertsona", Plan honen ikuspegi zabalaren barruan jotzen da pertsona ekintzaileak izan daitezkeela, hau da, arlo desberdinetan hausnarketa, sormena eta berrikuntza garatu eta ustiatzeko gai diren izakiak, arlo pertsonalean, sozialean zein profesionalean izan.*

## 3.2 Helburu estrategikoak

EEP 2020 planaren helburu nagusia da **ekintzaletza modu integralean babestea**, gero eta proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta iraunkor gehiago sortu eta hazteko, bereziki etorkizuneko sektoreetan, Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta sozialeko etapa berri bat sortzeko.

Helburu global hori lortzeko, **bederatzi helburu estrategiko** definitu dira, jarduera ardatz bakoitzeko bana:

**EEP 2020ren ARDATZAK eta *helburu estrategikoak***

1. **EKINTZAILETZAREN KULTURA eta BALIOAK**

   ***Ekintzailetzaren kultura eta balioak*** *gizarteko maila guztietan eta bizitzaren etapa guztietan sustatzea, herritarrek ekintzailetzaz daukaten kontzientzia –etorkizunerako aukera erakargarri gisa– positiboa dela ziurtatuz.*

2. **GIZA KAPITALAREN TREBAKUNTZA eta KONEXIOA**

   ***Giza kapital*** *ekintzailearen trebakuntza indartzea, eta kapital horren erakarpen, mugikortasun, interakzio eta ekintzailetzarako aukera berriekiko konexioaren alde egitea.*

3. **EKINTZAILETZA ITURRI eta IDEIAK**

   *“Arrantzategi” eta iturri desberdinetan sortutako* ***ideia*** *eta egitasmo berrien kalitatea eta masa kritikoa handitzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren behar espezifikoei erantzunez.*

4. **FINANTZAKETA eta INBERTSIOA**

   *Sortu, abiatu, hazi eta sendotzeko potentziala daukaten proiektuei* ***finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko*** *aukerak ematea.*

5. **MERKATURAKO SARBIDEA**

   *Ekintzailetza proiektuei, bereziki etorkizuneko RIS3 sektoreetan potentzial handia daukatenei,* ***merkatuan sartu*** *eta “lehen bezeroak” eskuratzeko aukerak ematea.*

6. **PROZESUAK, ZERBITZUAK eta LAGUNTZA PROGRAMAK**

   *Erakundearteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez, eta lankidetza publiko-pribatuaren bitartez, dauden prozesu, programa eta laguntza zerbitzuak herritar ekintzaileen beharretara egokitzea.*

7. **FISKALITATEA eta ARAUDI ERRAZTAILEA**

   ***Tresna fiskalak eta arau arlokoak*** *eguneratzea, zeregin ekintzaileari hesiak kentzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentzia gisa jartzeko zerga eta arau arloen garapenean.*

8. **AZPIEGITURA ADIMENDUNAK**

   *Proiektu berriak sortzen, umotzen, hazten eta sendotzen lagunduko duten* ***azpiegitura adimendunak*** *edukitzea.*

9. **POSIZIONAMENDUA eta EKOSISTEMA INDARTZEA**

   *Herritarren artean eta estatuko nahiz nazioarteko beste ingurune batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoa* ***“ekintzailetzarako leku on”*** *gisa posizionatzea, gero eta osoagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa den babes ekosistema batekin.*

## 3.3. Balio proposamena

Zer eskaintzen du EEP 2020k? Ekintzailetzaren eta hainbat eragile publiko eta pribaturen gaineko begirada integral baten bitartez, Planak Euskal Autonomia Erkidegoan proiektu ekintzaile berri bat martxan jartzeko behar diren baldintzak eta laguntzak eskaintzen ditu. **Tipologia, kolektibo, etapa eta motibazio mota guztietako ekimen berriei ekiteko** beharrezko "jokalekua".

Horrenbestez, EEP 2020k hona bideratzen du bere balio proposamena:

- **Geografiak:**
  - Planak lurraldearen aldagaia sartzeko, herrialde, Lurralde Historiko, eskualde eta udalerri mailako ekimenekin, ingurune bakoitzaren bereizgarri eta ezaugarriekin bat eginda, eragile eta maila instituzional desberdinen parte hartzeari esker.
  - Halaber, ekimenak babesten dira, bai hiriko ekintzailetzarako bai landa ingurunekorako, bi errealitateen arteko oreka sustatuz.
  - Azkenik, ingurune estatalari eta nazioartekoari[36] begiratzen dio, erreferentziazko errealitate, zentro eta programekin ikasteko eta konektatzeko.

- **Kolektiboak:**
  - EEP 2020k alternatibak eskaintzen dizkio ekintzaileari, bere tipologia posible guztietan: aurrez ekintzailetzako esperientziarik ez duten pertsonak, oinarrizko hezkuntzako, lanbide heziketako eta goi mailako hezkuntzako ikasleak, soldatapeko pertsonak, ikertzaileak, enpresariak, laguntza berezia behar duten kolektiboak (adinduak edo baztertzeko arriskuan daudenak) eta herritarrak oro har.
  - Gainera, bereziki bultzatzen du emakumeek gidatutako ekintzailetza, beraien ahalmen ekintzaile guztia aprobetxatzeko asmoz, baita gazteena ere, batzuetan arazo bereziak izaten dituztelako ekintzailetzara iristeko.
  - Halaber, pertsona horiek jarduera ekintzailea hasteko dituzten hainbat ingurune hartu dira kontuan, izan ingurune pribatu edo indibiduala, zein hezkuntza, gizarte edo lan ingurunea. Azken horri dagokionez, Planak bereziki azpimarratzen du finkatutako enpresa "ekintzaileen" baitan jarduera ekonomiko eta enplegu berria sortzeko dagoen ahalmen handia.

- **Motibazioak:**
  - Pertsona batek ekintzailetzan jarduteko izan ditzakeen motibazio posibleak aztertu dira. Hau da, beharra (enplegua bilatzea, ekintzaile inklusiboari bidea emanez) eta aukera (jarduera ekonomiko berria sortzeko ahalmena, ekintzailetza berritzailera zuzenduta), eta, horren arabera, kasu bakoitzean emandako laguntza, zerbitzu eta arreta motak bereizten dira.
  - Beharrean oinarritutako motibazioari dagokionez, autoenplegu eta/edo mikroenpresa baterako ekimena egon ohi da. Aukeraren motibazioekin, oro har, ikuspegi anbiziotsuagoa duten ekimenak gauzatu ohi dira (hazkundeari, errentagarritasunari, enplegua sortzeari eta bizirauteari dagokionez, besteak beste), eta lehentasunezko arreta jartzen zaio oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien OTEBBen potentzial handiko ekintzailetza berritzaile eta aurreratuari. Bitarteko puntu batean ekintzailetza soziala dago, ikuspegi enpresariala eta helburu sozialak uztartzen dituena.
  - Azkenik, PIE2020k sektore guztietara zuzendutako programak eta zerbitzuak dauzka, eta, besteak beste, sektore hauetan aurreikusi ditu ekintzailetzako aukera berriak sortzea: merkataritza, nekazaritzako elikagaiak, IKT, kultur industriak, zahartzaroa, "ekonomia berdea"… Gainera, tresna berezien bateria zabal bat proposatzen da EAEko etorkizuneko oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak sortzeko eta hazteko RIS3 sektorean (4.0 industria aurreratua, energia eta biozientziak), kontuan hartuta orain dauden ahalmenak eta eraldaketa produktibo eta sozialerako potentziala.

[36] *Arreta berezia jarriz euskal ekonomia bezalako "berrikuntzan oinarritutako beste ekonomia" batzuei, izaera horrek ekintzailetza prozesuan sortzen dituen antzekotasunak direla eta.*

- **Etapak eta epeak:**
  - Planak laguntza bereziak eskaintzen ditu jarduera ekintzailearen etapa bakoitzerako, ziklo osoa hartuz: ideia identifikatzea eta ontzea, proiektuaren garapena, sozietatearen eraketa, egitasmoa abiaraztea, enpresaren hazkundea eta finkapena, eta, azkenik, transmisio posiblea.
  - Azkenik, esan daiteke EEP 2020k epe labur, ertain eta luzerako begiradak uztartzen dituela. Azken urteotan ekonomiaren bilakaera aldekoa izan den arren, epe laburrera oraindik ere beharrezkoa da enplegua sortzeko neurriak proposatzea, batez ere ekintzailetza inklusiboaren bitartez. Epe ertainera, laguntzeko ahaleginak etorkizuneko lehentasunezko sektoreen ekintzailetza berritzailean zentratzen dira, proiektu berriak sortzea eta haztea bultzatuz. Epe luzera, gizartean eta ikasleen kolektiboan kultura eta balio ekintzaileen "euri txikia" indartzen da.

**EEP 2020ren balio integraleko proposamena**

**GEOGRAFIAK**

**Eremua:**
- Herrialdea
- Lurralde historikoa
- Eskualdea
- Udalerria

Ekintzailetza hauen arteko **oreka:**
- Hirikoa
- Landa eremukoa

Erreferentziako beste ingurune batzuei **begiratzea:**
- Estatuari
- Nazioarteari

**KOLEKTIBOAK**

**Kolektiboak:**
- Ekintzailetzan esperientzia daukatenak edo ez daukatenak
- Oinarrizko hezkuntzako ikasleak
- Lanbide heziketa eta goi heziketa
- Soldatapekoak
- Ikertzaileak
- Enpresaburuak
- Laguntza berezitua behar duten kolektiboak
- Herritarrak oro har

**Laguntza espezifikoa:**
- Emakumeei
- Gazteei

**Ingurunea:**
- Pribatua edo indibiduala

**Testuingurua:**
- Hezkuntza, gizartea edo lana

**MOTIBAZIOAK**

**Tipologia:**
- Premia
- Oportunitatea

**Emaitzak:**
- Premia: autoenplegua edota mikroenpresak
- Oportunitatea: enpresak eta OTEBak
- Ekintzailetza soziala: enpresa ikuspegia eta helburu sozialak

**Sektoreak:**
- RIS3 sektoreak: fabrikazio aurreratuan, energia eta biozientziak-osasuna.
- Merkataritza, nekazaritza eta elikadura, IKTak, kultura industriak, zahartzea, "ekonomia berdea", besteak beste.

**ETAPAK ETA EPEAK**

**Etapak:**
- Ideia identifikatu eta umotzea
- Proiektua garatzea
- Sozietatea eratzea
- Enpresa abian jartzea
- Haztea eta sendotzea
- Transmisioa / erreleboa

**Epeak:**
- Epe laburra: ekintzailetza inklusiboa.
- Epe ertaina: ekintzailetza berritzailea.
- Epe luzea: kultura eta balioak.

## 3.4. Kontaketa estrategikoa: UP Euskadi

Euskadi zergatik da ekintzailetzarako leku ona? EEP 2020ren oinarri estrategikoak kontuan hartuta (bisioa, helburuak, balio proposamena), ondoren hainbat ohar aurkezten dira, euskal ekintzailetzaren gaineko kontakizun komuna eraikitzeko lagungarriak. **Narratiba partekatu** bat sortzen lagundu nahi da, **ekosistemako eragile publiko eta pribatu guztiei azaldu ahal izateko EAEn ekintzailetzan jardutea zergatik merezi duen**.

UP Euskadi markaren pean EEP 2020k planteatzen duen kontakizun estrategikoaren oharrak edo piezak hauek dira, eragile bakoitzak bere errealitate eta lan esparrutik osatu eta ñabartuko duen proposamen ireki moduan aurkeztuta:

### Historia eta balioak

- Jarrera ekintzailea balio indibidual eta kolektibo moduan, ingurunearen erronkei erantzuteko.
- EAEren historia ekonomiko eta soziala, ekintzailetza eta berrasmatze etengabe moduan, non industriak protagonistaren rola jokatzen duen.
- Hogeita hamar urte baino gehiago ekintzaile etengabe babesten, instituzioen eta sektore pribatuaren lan konpartituaren bitartez.
- Laguntza publikoaren esparrua, oinarritzat hartuta zorroztasuna, pertsonen eta proiektu ekintzaileen beharretara egokitzea eta erakundeen arteko lankidetza.

### Ahalmenen oinarri sendoa

- Lehen eta bigarren belaunaldiko pertsona eta enpresa ekintzaileen oinarria.
- 350 OTEBB baino gehiago (1.500 enplegu) industria, IKT, biozientzia eta energia bezalako sektoreetan.
- Industri sare lehiakorra eta enpresa mentalitate hedatua.
- Erreferentziazko ekosistema enpresarial-industrial-berritzaile-teknologikoa, industri enhpresa, kluster eta ZTBES sare osatuan oinarritua, ekitzailetza babesteko, ideia berriak, proiektuak, pertsona ekintzaileak, bezeroak, inbertsioak eta mentoring-a eskainiz.
- Prozesu, programa, zerbitzu, azpiegitura eta profesional laguntzaileen eskaintza zabala eta espezializatua arlo publikoan zein pribatuan. Estatuko zein nazioarteko beste errealitate batzuekin parekagarria.
- EEP 2020, 100 eragile eta 300 ekintza baino gehiagoren lankidetzaren esparru estrategiko moduan.

### Euskal ekintzailetza eredua

- Ekintzaileen, eta bere ahalmenen eta balioen protagonista rola, ekintzailetza proiektuen "bihotzean".
- Proiektu sendoak, berritzaileak, konprometituak eta EAEn eta bertako ekonomian, industrian eta gizartean errotuak.
- Ideia, proiektu eta pertsona ekintzaileen "arrantzaleku" ugaritan jarduera ekonomiko berria sortzea: hezkuntza sistema (Lanbide Heziketako ikastetxeak eta Unibertsitateak), zientzia eta teknologia sarea, osasun sistema, industri-enpresa sarea eta sare asoziatiboa, eragile laguntzaileak, eta herritarrak.
- Lankidetza eta hurbiltasun publiko-publikoa eta publiko-pribatua.

### Etorkizuneko anbizioa

- Ekintzailearen balioa agerian jartzea, EAEn kalitatezko enplegua sortzeko, garapen ekonomikorako, lehiakortasunerako eta kohesio sozialerako palanka moduan, bereziki aukerako sektoreetan.
- Laguntza publiko-pribatuko ekosistema gero eta aktibo, osatu eta kohesionatuagoa sortzea.
- EAE "ekintzailetzarako leku on" moduan kokatzea, eta erreferentziazko lurraldea izatea ekintzailetza industrial-teknologikorako, euskal ereduaren ezaugarri bereizgarrietan oinarrituta.

***UpEuskadi. Ekinez egina. Ekintzailetza irudikatzea eta egitea da.***

# IV. blokea: Lehentasunezko jardute ardatz, ildo eta proiektuak

Nola gauzatzen da kontakizun hori? Zer lan ardatz proposatzen ditu EEP 2020k etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta EAEko jarduera ekintzailea handitzeko? Planaren bloke honek eragile publikoek eta pribatuek ekintzailetza babesteko lanean 2020ari begira definitu dituzten **lehentasunezko ardatzak, ildoak eta proiektuak** jasotzen dira, identifikatutako erronkei erantzun nahirik. Beheko eskeman ardatz bakoitzerako lehentasunezko jarduera ildoen eskema grafikoa aurkezten da.

**EEP 2020ren ARDATZAk,** ***helburuak*** **eta jardute ildoak**

**1 EKINTZAILETZAREN KULTURA eta BALIOAK**

***Ekintzailetzaren kultura eta balioak*** *gizarteko maila guztietan eta bizitzaren etapa guztietan sustatzea, herritarrek ekintzailetzaz daukaten kontzientzia – etorkizunerako aukera erakargarri gisa– positiboa dela ziurtatuz.*

1. Hezkuntza sistema
2. Erreferentziako ereduak
3. Inpaktu handiko ekitaldiak
4. Komunikabideak

**2 GIZA KAPITALAREN TREBAKUNTZA eta KONEXIOA**

***Giza kapital*** *ekintzailearen trebakuntza indartzea, eta kapital horren erakarpen, mugikortasun, interakzio eta ekintzailetzarako aukera berriekiko konexioaren alde egitea.*

1. Erakarpena
2. Kontratazioa
3. Trebakuntza
4. Mugikortasuna
5. Interakzioa
6. Erreleboa

**3 EKINTZAILETZA ITURRI eta IDEIAK**

*"Arrantzategi" eta iturri desberdinetan sortutako* ***ideia*** *eta egitasmo berrien kalitatea eta masa kritikoa handitzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren behar espezifikoei erantzunez.*

1. Langabeak
2. Emakumea
3. LH eta unibertsitateak
4. RIS3 sektoreak
5. Enpresa sendotua
6. ZTBES eta osasun sistema
7. Beste sektore batzuk

**4 FINANTZAKETA eta INBERTSIOA**

*Sortu, abiatu, hazi eta sendotzeko potentziala daukaten proiektuei* ***finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko*** *aukerak ematea.*

1. Informazioa eta orientazioa
2. Langabezia kapit. eta mikrokredituak
3. Diru laguntzak
4. Finantzaketa publikoa eta pub-prib
5. Inbertsio publikoa eta pub-prib
6. Iturri eta tresna pribatuak
7. Inbertsiogileen sareak eta *business angels*-ak

**5 MERKATURAKO SARBIDEA**

*Ekintzailetza proiektuei, bereziki etorkizuneko RIS3 sektoreetan potentzial handia daukatenei,* ***merkatuan sartu*** *eta "lehen bezeroak" eskuratzeko aukerak ematea.*

1. "Lehen bezeroa"
2. Erosketa publikoa
3. Proiektu erakusleak
4. Lankidetzazko ekintzailetza
5. Proiektuen azelerazioa

**6 PROZESUAK, ZERBITZUAK eta LAGUNTZA PROGRAMAK**

*Erakundearteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez, eta lankidetza publiko-pribatuaren bitartez, dauden* ***prozesu, programa eta laguntza zerbitzuak*** *herritar ekintzaileen beharretara egokitzea.*

1. Zerbitzu aurreratuak-BICak
2. Beharretara egokitutako programa eta zerbitzuak
3. Informazio zentralizatua
4. Tramite arinak

**7 FISKALITATEA eta ARAUDI ERRAZTAILEA**

***Tresna fiskalak eta arau arlokoak*** *eguneratzea, zeregin ekintzaileari hesiak kentzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentzia gisa jartzeko zerga eta arau arloen garapenean.*

1. Eguneratze fiskala
2. Arauak eguneratzea

**8 AZPIEGITURA ADIMENDUNAK**

*Proiektu berriak sortzen, umotzen, hazten eta sendotzen lagunduko duten* ***azpiegitura adimendunak*** *edukitzea.*

1. Laguntza azpiegituren egungo parkearen kudeaketa aktiboa
2. OTEBetarako azpiegitura adimendunak
3. Azpiegitura espezializatuetarako ezohiko inbertsioak
4. Oinarriko azpiegitura fisikoak

**9 POSIZIONAMENDUA eta EKOSISTEMA INDARTZEA**

*Herritarren artean eta estatuko nahiz nazioarteko beste ingurune batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoa* ***"ekintzailetzarako leku on"*** *gisa posizionatzea, gero eta osoagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa den babes ekosistema batekin.*

1. Ekosistemaren sustapena
2. Nazioarteko konexioa
3. Ekosistemaren gobernantza

Hurrengo orrietan jardute ardatz bakoitzerako zehazten da: diagnostikoari lotutako gakoak, helburua eta lehentasun maila (ardatzaren garapenean izango duen eraginaren arabera), eta eragile publikoek eta pribatuek 2027-2020 aldirako aurreikusitako hainbat proiektu nabarmen.

## 4.1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak

Helburu estrategikoa. **Ekintzailetzaren kultura eta balioak gizarteko maila guztietan eta bizitzaren etapa guztietan sustatzea, herritarrek ekintzailetzaz daukaten kontzientzia –etorkizunerako aukera erakargarri gisa– positiboa dela ziurtatuz.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Hezkuntza sistema** | ✔ Hezkuntza sistemaren gero eta zeregin handiagoa ekintzailetzaren balioen sentsibilizazioan eta transmisioan. Lagin moduan, 2015ean 820 euskal ikastetxek, 26.000 irakaslek eta 320.000 ikaslek parte hartu zuten ekintzailetza sustatzeko programetan.<br>✖ Ekintzailetza ez da prestakuntza arautuko maila eta kolektibo guztietan sartu. | Ikasleen kolektibo guztietan ekintzailetzarako gaitasuna eta ekimena garatzea (lehen hezkuntza, bigarrena, lanbide heziketa eta unibertsitatea), bultzatuz irakasleen prestakuntza etengabea (balioak, kontzeptuak, ekintzailetzarako metodologia berriak) eta ikasleen kolektiboa pertsona ekintzaileekin eta enpresariekin harremanetan jartzea. | Altua |
| **Erreferentziazko ereduak** | ✔ Ekintzailetzako erreferentziazko ereduak ezagutzen dituela dioten biztanle gehiago<br>✖ Ekintzailetzaren pertzepzio urria aukera profesional eta bital moduan, eta ekintzailearen eta enpresariaren errekonozimendu eta balorizazio sozial mugatua. | Ekintzailearen eta enpresariaren rola aitortzea eta baloratzea, ikusgarritasuna emanez eredu diren pertsonei Euskadin nahi diren ekintzailetzaren balioei (ekimena, konpromisoa, arriskua, autonomia) eta enpresa balioei dagokienez (lehiakortasuna, iraunkortasuna, errotzea, pertsonen parte hartzea). | Ertaina - altua |
| **Eragin handiko ekitaldiak** | ✔ Ekitaldi eta jardunaldi ugari, bai publikoak bai pribatuak, ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzeko. 2015ean, Eusko Jaurlaritzak edo foru aldundiek finantzatutako ekintzailetza sarien bidez 372 proiektu mobilizatu ziren.<br>✖ Ekintzak koordinatzeko eta ahaleginak batzeko beharra eragina handitzeko. | Eragin eta ikusgarritasun handiko ekitaldien alde egitea, erakundeen arteko koordinazioa areagotuz ekintzailetzaren kultura sustatzeko formatuen diseinuan, antolamenduan eta babesean. | Ertaina - baxua |
| **Komunikabideak** | ✔ Komunikabideen gero eta konpromiso handiagoa ekintzailetaren kultura ea balioak sustatzeko, bai zuzenean (programa eta ekintza propioak) bai zeharka (beste eragileen ekintzak sustatuz eta pertsona eta proiektu ekintzaileen zabalkundea eginez).<br>✖ Inkoherentzi arriskua transmititutako mezuetan eta ereduetan. | Komunikabideek iristeko duten ahalmena aprobetxatzea ekintzailetzaren kultura, balioak ea ereduak zabaltzeko, elkarrekin ekintzak diseinatuz eta komunikabideekin interakzioko kanal iraunkorrak ezarriz, ekintzailetzaren gaineko informazioa eta adibideak proaktiboki emanez. | Ertaina - altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Hezkuntza sistema | • ***Egin eta Ekin*** | *Erreferentziazko programak ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzeko euskal hezkuntza sistema publikoko maila guztietan.* | *Irakaskuntza orokorra* | *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Foru Aldundiekin lankidetzan* |
| | • ***Ikasenpresa*** | | *Lanbide heziketa* | |
| | • ***Entreprenari – Zitek - Inizia*** | *Ekimen ekintzailea sustatzeko egitasmoak eta programak komunitate unibertsitarioan* | *Unibertsitatea (EHU/UPV)* | |
| | • ***Unibertsitate pribatuen programak*** | | *Unibertsitatea* | *TECNUN, DU eta MU* |
| Erreferen-tziazko ereduak | • ***Toribio Echevarria sariak*** | *Ibilbide luze eta errekonozimendu handiko ekintzailetza eta enpresa indartzeko sariak Euskadin, ekintzaileak balorizatzeko.* | *Gizartea* | *BIC Gipuzkoa, Eibarreko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza* |
| Eragin handiko ekitaldiak | • ***Basque Industry 4.0 Biltzarra - Ekintzailetza*** | *Basque Industry 4.0 biltzarra indartzea, ekintzailetzari buruzko hainbat eduki gehitzeko.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak (industri sektorea)* | *SPRI - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |
| | • ***Ekintzailetzaren astea*** | *Ekintzailetza babesteko hainbat ekintza biltzen dituen ekitaldi publikoa, ikusgarritasuna eta eragina handitzeko.* | *Gizartea eta enpresa berriak* | *Arabako Foru Aldundia* |
| | • ***BIME Startup Summit*** | *Ekitaldi publiko-pribatu espezializatuak.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Inbertsio pribatua, Bilboko Udala ea Eusko Jaurlaritza* |
| | • ***Konekta Gipuzkoa - SmartUP*** | | *Enpresa berriak* | *Elkano Group, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia Sustapena* |
| Komunika-bideak | • ***B-Venture*** | *Ekintzailetza sustatzeko egitasmoak EAEko hainbat eragile publiko eta pribaturekin lankidetzan.* | *Enpresa berriak* | *Vocento Taldea* |
| | • ***Start Innova*** | | *Irakaskuntza Orokorra eta Lanbide Heziketa* | |

## 4.2. Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa

Helburu estrategikoa. **Giza kapital ekintzailearen trebakuntza indartzea, bereziki hezkuntzaren etapa guztietan, eta kapital horren erakarpen, mugikortasun, interakzio eta ekintzailetzarako aukera berriekiko konexioaren alde egitea.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Erakarpena** | ✓ Nazioarteko inguruneetako ekintzaileak erakartzeko egitasmo berriak.<br>✗ Proiektu eta pertsona ekintzaileen masa kritikoa handitzeko beharra, bereziki profil espezializatuetan eta etorkizuneko sektoreetan. | Nazioarteko giza kapital ekintzailea erakartzea, arreta berezia jarriz EAEren eta bertako enpresen eraldaketa sozial eta produktiborako beharrezkoak diren profilei, eta beraien esperientzia ekintzailean laguntzea, behar profesionalei eta pertsonalei erreparatuz. | Altua |
| **Kontratazioa** | ✓ Enpresa berrietarako beharrezko profilak kontratatzen laguntzen duten esperientzia positiboak.<br>✗ Laguntzak pertsonen kontratazioari hedatzeko beharra, arreta berezia jarriz beharrik handiena duten kolektiboei. | Enpresa sortu berrietan zein sendotuetan praktika ekintzaileak bultzatzen eta garatzen lagunduko duten pertsonen kontratazioa sustatzea, pertsona horien enplegagarritasuna hobetzen eta enpresetan ahalmenak indartzen laguntzeko. | Altua |
| **Trebakuntza** | ✓ Pertsona hobeto prestatuak eta ekintzailetzarako hobeto orientatuak. Adibidez, ekintzaileen artetik %57,6 goi mailako ikasketekin.<br>✗ Ekintzaileen eta eta eragile laguntzaileen trebakuntza eguneratzeko eta malgutzeko beharra. | Ekintzaileen eta euskal ekosistemaren gainerako eragile laguntzaileen etengabeko eta goi mailako trebakuntza sustatzea, eragile espezializatuen eta erreferentziazko zentroen eskutik. | Altua |
| **Mugikortasuna** | ✓ Hainbat eragile publikoren konexio lana, pertsonen eta proiektuen mugikortasun indibiduala erraztuz, ase gabeko beharren arabera.<br>✗ Proiektuen edo geografien artean profesionalen mugikortasuna errazteko programa egituratuen urritasuna. | Ekintzaileen mugikortasuna erraztea proiektu, eragile eta ekosistemen artean, garapen profesionala eta pertsonala sustatuz, eta enpresen umotze, hazkunde, barne ekintzailetza eta iraunkortasun beharrak asez. | Ertaina - baxua |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| Interakzioa | ✓ Konexio eta networking sare eta egitasmo anitz, pertsona eta proiektu ekintzaileen arteko ezagutza eta interakzioa sustatzeko.<br>✗ Dauden egitasmoak zabaltzeko proiektuen konfluentzia bultzatzeko aukera maila sektorialean eta geografikoan, elkarren arteko interakzioa eta lankidetza sustatuz. | EAEko ekintzaileen (eta beste eragile batzuen) arteko interakzioa eta elkarrizketa biderkatzea, sareak eta egitasmoak sortu eta dinamizatuz interakzioa sustatzeko eta ekintzaileei aukera emateko beste ekintzaile batzuen bezero, mentore, inbertitzaile edo prestatzaileak izateko, proiektuak aberastuz eta ekosistemarekiko lotura bultzatuz. | Ertaina - altua |
| Erreleboa | ✓ Programa publikoak eta egitasmo enpresarial pribatuak daude ondoretza prozesuak babesteko, belaunaldi erreleboko bazkideak sartzeko edo enpresa transmisiorako.<br>✗ Euskal ekonomiako enpresa eta sektore kopuru handi batean benetako eta berehalako premia dago. | Ekintzaileen eta ekintzailetza aukera berrien arteko konexioa bultzatzea, ondoretza, belaunaldi errelebo eta transmisio enpresarialeko prozesuen ondorioz. | Altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Erakarpena | • ***BIND 4.0*** – *nazioarteko startupak erakartzea* | *4.0 industriaren arloan startupen nazioarteko azelerazio programa indartzea, bere helburuen artean egonik mundu osoan giza kapital ekintzailea erakartzea.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI, Foru Aldundien lankidetzarekin* |
| | • ***Be Basque Talent Network*** | *Euskadirekin harremana duten edo eduki nahi duten profesionalek osatutako talentu sarea.* | *Gizartea, enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |
| Kontratazioa | • ***Lehen aukera*** | *Enpresentzako laguntzak gazteak, langabeak edo laneko esperientzia urria duten pertsonak kontratatzeko.* | *Langabeak, enpresak* | *Lanbide – Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Trebakuntza | • ***LEINN ekintzailetza gradua, eta barne ekintzailetzako Masterra*** | *Mondragon Unibertsitateko programak ekintzailetzan eta berrikuntzan prestatzeko.* | *Unibertsitatea* | *MU – Mondragon Unibertsitatea* |
| | • ***Innovandis*** | *DUko Berrikuntza eta Ekintzailetzako Espezializazio titulu propioa.* | | *DU – Deustuko Unibertsitatea* |
| | • ***AGUDEZIA programa*** | *Komunitate unibertsitarioko kolektiboei ekintzailetzarako trebetasun giltzarriak modu praktiko eta bibentzialean hurbiltzeko programa, zeharkako konpetentzia moduan ulertuta.* | | EHU/UPV (Arabako Campusa) / BIC Araba /Vitoria-Gasteizko Udala |
| | • ***Masterretan Ekintzailetzan Trebatzeko Moduluen Programa*** | *Ekintzailetzako modulu berezien programa EHU/UPVko masterretan aplikatuta (Kazetaritza, Medikuntza, Biozientziak, etab.)* | | EHU/UPV (Gipuzkoa eta Bizkaiko Campusak) |
| | • ***Ekintzailetza eta Enpresa Zuzendaritza Masterra*** | *Ekintzailetzan eta gaitasun enpresarialetan prestatzeko masterra.* | | *EHU_UPV eta Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***Ikertzaileen prestakuntza ekintzailea*** | *Ezagutza transferitzen laguntzeko prestakuntza programak, enpresa berriak sortzearen bitartez.* | *Ikertzaileak* | *TECNUN* |
| | • ***OTEBBen prestakuntza pertsonalizatua*** | *BICek sustatutako OTEBBetako taldeak prestatzeko ekintzak.* | *Enpresa berriak* | *BICak* |
| Mugikor-tasuna | • ***Masschallenge Biscay*** | *Euskadiko enpresa berrien eta pertsona ekintzaileen nazioarteko mugikortasunari laguntzeko programak.* | *Enpresa berriak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***CIC Cambridgekiko lankidetza*** | | | |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Interakzioa | • BICen lana OTEBBekin | *Hauetara zuzendutako jarduerak: aholkularitza, mentoringa, lankidetza bidezko ikasketa, kultura ekintzailearen sustapena, esperientzien zabalkundea, lankidetza konexioak eta sareak sortzea, eta eragile espezializatuekiko interakzioa (finantzarioak, lege arlokoak, etab.), beste ekintza batzuen artean.* | *Gizartea, enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *BICak* |
| | • Ekintzaileen foroak eta komunitateak | | | *ADEGI, CEBEK, SEA, garapen agentziak, ekintzaileen komunitate pribatuak, besteak beste.* |
| Erreleboa | • Gaztenek | *Ekintzailetza babesteko programa landaguneko belaunaldien arteko erreleboaren ondorioz.* | *Langabeak, enpresa sendotuak* | *Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza - Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |
| | • Bazkide berriak sartzea | *Gizarte Ekonomiako enpresetan pertsona bazkide berriak sartzen laguntzeko programa.* | | *Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila* |
| | • Negozioak transmititu eta saltzeko laguntzak | *Enpresen transmisiorako laguntza programa.* | | *Lanbide – Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila* |
| | • Belaunaldien arteko erreleboa enpresan | *Enpresako belaunaldien arteko erreleborako programa* | | *Tknika – Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila* |

## 4.3. Ekintzailetza iturri eta ideiak

Helburu estrategikoa. **"Arrantzategi" eta iturri desberdinetan sortutako ideia eta egitasmo berrien kalitatea eta masa kritikoa handitzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren behar espezifikoei erantzunez.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| Langabeak | ✓ Langabeen autoenplegua eta ekintzailetza bultzatzeko ekintzak. Emaitza moduan, 2014az geroztik, alta hartu duten enpresa eta autonomoen kopuruak bilakaera positiboa izan du.<br>✗ Langabezi tasa altua oraindik %(12,5 2016an). | Autoenplegua sustatzea eta langabeek edo enplegu eskatzaileei mikroenpresak sortzen eta garatzen laguntzea | Altua |
| Emakumeak | ✓ Emakume ekintzailearen sustapena, hainbat ekintza eta programa berezirekin, eta emakumeen ekintzailetza tasa (%46,3) estatuan eta Europan baino altuagoa.<br>✗ Eragile publiko eta pribatuek uste dute oraindik bidea dagoela egiteko emakumeen ekintzailetzaren sustapenean. | Emakumearen ahalmen ekintzailea aprobetxatzea eta jarduera ekonomikoan eta laboralean erabateko sarrera sustatzea, emakumeek gidatutako ekintzailetza modu berezian bultzatuz. | Ertaina - altua |
| LH eta unibertsitateak | ✓ Laguntza programa berritzaileak ea emaitza aipagarriak enpresen sorrerari dagokionez (eta biziraupenean) LHn; eta laguntza ugari euskal unibertsitateetan egitasmoak martxan jartzeko.<br>✗ Hezkuntza sistemaren rola indartzen jarraitu beharra, proiektu eta pertsona ekintzaile berrien iturri gisa. | Hezkuntza sistematik enpresa berriak sortea sustatzea, kolektibo guztien laguntasun integralaren bitartez (maila desberdinetako ikasleak, ikasle ohiak, irakasleak, ikertzaileak). | Ertaina - altua |
| RIS3 sektoreak | ✓ RIS3 sektoreetara orientatzea oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak babesteko eragile, programa eta zerbitzuetan. 2016an, 350 OTEBB aktibo (%50 RIS3 sektoreetan).<br>✗ OTEBB kopuru txikia berrikuntza eta teknologia maila altuarekin, eta zerbitzuen sektorearen nagusitasuna. | Euskadin oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak sortzen eta hazten laguntzea, batez ere RIS3 sektoreetan (fabrikazio aurreratua, energia eta biozientziak-osasuna), etapa eta behar bakoitzera egokitutako programen bitartez. | Altua |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Enpresa sendotua** | ✓ Etengabeko eraldaketa eta barne ekintzailetza euskal enpresa sarearen ADNaren parte dira. Instituzioen ahalegin etengabea sentsibilizatzeko eta laguntzeko.<br>✗ Jarduera bultzatzeko pizgarri sozialak eta korporatiboak sustatzen jarraitu beharra, EAEko 2015eko GEMek erakutsitako barne ekintzailetzaren tasa baxua ikusita (%1,4). | Sendotutako enpresa sareko barne ekintzailetzako eta negozio berrietako proiektuak laguntzea, ETE-ei eta enpresa handiei laguntza desberdinak emanez, sentsibilizazio, prestakuntza, aholkularitza eta beste enpresekiko (ETE-ak zein enpresa handiak), pertsona ekintzaileekiko eta bitarteko eragileekiko lankidetza ekintzen bitartez, besteak beste. | Altua |
| **ZTBES eta osasun sistema** | ✓ Ezagutza-teknologia transferitzeko aukerak progresiboki aktibatzea, zientzia eta teknologia sareko eta osasun arloko enpresa berriak sortzeko.<br>✗ Arlo horietan ideia eta proiektu berrien fluxua handitzeko programa eta ekintza espezializatuak garatzeko eta hedatzeko beharra. | Arlo horietan enpresa egitasmo berriak azaleratzea EAEn dagoen ikerketa eta ezagutza balorizatzearen bitartez, ikertzaileen kolektiboan profil ekintzaileak detektatuz eta laguntza zerbitzu espezializatuetan sartuz. | Ertaina - altua |
| **Beste sektore batzuk** | ✓ Ekintzailetza planak programa sektorialak Merkataritzan, Landa Ingurunean, Gazterian edo "Ekonomiz zirkularrean". Ekonomia sozialeko enpresen sorreraren bilakaera positiboa enpleguari eta entitate kopuruari dagokionez.<br>✗ Sektoreen arteko koordinazioa eta sinergiak aprobetxatu behar dira. | Ekintzailetzarako aukera berriak sortzea ekonomia sozialean eta landa inguruneko eskualdeetan, baita beste sektore batzuetan, esaterako merkataritzan, nekazaritzako elikagaietan, IKTetan, kultur industrietan, zahartzean, "ekonomia berdean", besteak beste. | Ertaina - baxua |

<u>Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak</u>

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| **Langabeak** | • ***Ekintzailetzarako laguntzak***<br>• ***Gaztenpresa***<br>• ***DEMA Programa*** | *Kolektibo horri zuzendutako programa bereziak, bideragarritasun azterketan eta negozio planean, abiaraztean, sendotean eta negozioen transmisioan aholkularitza eta laguntasun pertsonalizatua emateko.* | *Langabeak* | *Lanbide – Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, DEMA Enpresa Garapenerako Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundia* |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|---|
| Emakumea | • ***Emakume ekintzaileak babesteko programak*** | *Ekintzailetza femeninoa babesteko erreferentziazko eta ibilbide luzeko programa bereziak.* | *Emakumeak* | *Bizkaiko Foru Aldundia, AED-Bizkaiko Emakume Zuzendari eta Enpresarien Elkartearekin, CEBKekin edo Bilbao Mtropoli 30ekin lankidetzan* |
| | • ***Emekin*** | | | *Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| LH eta Unibertsi-tateak | • ***Urratsbat, MAE, Ekimntzailetza berritzaile-industriala*** | *Hezkuntza sistema publikoaren egitasmo nabarmenak komunitate unibertsitarioari laguntzeko, aukerak bilatzeko eta enpresa egitasmo berriak diseinatzeko.* | *Lanbide Heziketako ikasleak* | *Tknika – Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila* |
| | • ***Entreprenari-Zitek-Inizia*** *(EHU/UPVko hiru campusetan)* | | *Unibertsitatea (EHU/UPV)* | *Unibertsitateen Sailburuordetza-Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Foru Aldundiekin lankidetzan* |
| RIS3 sektoreak | • ***Ekintzaile*** | *Enpresa berritzaile berrientzako laguntasun programa nagusiak, BICen eskutik.* | *Oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| | • ***Ekintzailetza Araban*** | | | *Arabako Foru Aldundia* |
| | • ***Proiektu berritzaileen garapena*** | | | *Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***Txekintek*** | | | *Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| Enpresa sendotua | • ***Barne Ekintzailetzarako egitasmoa*** | *Barne ekintzailetza sustatzeko programak.* | *Enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, SPRI eta Foru Aldundiak* |
| | • ***Lehiabide Barne Ekintzailetza*** | | | |
| | • ***Ekintzaile - Barnekintzaile*** | | | |
| ZTBES eta osasun sistema | • ***Ezagutza zientifiko-teknologikoaren balorizazioa*** | *ZTBESen ezagutza zientifiko-teknikoa balorizatzeko lanaren hedapena, RIS3 sektoreei dagokienez.* | *RIS3 sektoreetako enpresa berriak* | *ZTBES* |
| | • ***BALIOSASUN*** | *Osasun sisteman berrikuntza kudeatzeko eta balorizatzeko egitasmo berria.* | *Osasun arloko taldeak / profesionalak eta kogaratzaileak diren pertsonak* | *Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila* |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|---|
| **Beste sektore batzuk** | • ***Ekintzailetza plan sektorialak*** | *Enpresa berriak babesteko programa sektorial espezializatuak* | *Langabeak, gazteak eta enpresa berriak* | *Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Zuzendaritza eta Gazteria Zuzendaritza, besteak beste* |
| | • ***Gizarte ekonomiako enpresak eratzeko laguntzak*** | | *Gizarte ekonomiako enpresa berriak* | *Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila* |
| | • ***EREIN, LEADER eta sendotu*** | | *Landa inguruneko enpresa berriak* | *Mendinet, HAZI eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza - Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |
| | • ***Bizkaia Sortzailea*** | | *Enpresa berri sortzaileak eta enpresa ekintzaileak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |

## 4.4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko bidea

Helburu nagusia: **Sortu, abiatu, hazi eta sendotzeko potentziala daukaten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko aukerak ematea.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Informazioa eta orientazioa** | ✓ Finantzaketa eta inbertsiorako gero eta tresna eta alternatiba gehiago eta mota gehiagokoak, publikoak zein pribatuak, ekintzailetza proiektuetarako.<br>✗ Dauden tresna publikoak eta pribatuak antolatu, argitu eta eskuratzen laguntzeko beharra. | Ahalmena duten proiektu ekintzaileak orientatzea eta laguntzea, “mapeoaren” bidez eta eskuragarri dauden finantzaketa eta inbertsio aukerak sustatuz, jatorri publikokoak zein pribatukoak izan, EAE, estatu eta Europa mailan. | Ertaina - altua |
| **Langabezia kapitalizatzea eta mikrokredituak** | ✓ Alternatibak daude autonomoen eta proiektu ekintzaile berrien hasierako behar ekonomikoak asetzeko.<br>✗ Mikrokredituak Lanbide Hezietatik datozen proiektuetara hedatu behar dira, besteak beste. | Ekintzaileei euren proiektua martxan jartzeko tresnak ematea, langabezia kapitalizatuz, eta mikrokredituak, bekak eta finantziazioa lortzeko abalak emanez. | Altua |
| **Diru laguntzak** | ✓ Erakunde publikoen laguntza etengabea eta segmentatua ekintzailetzako tipologia ugaritarako.<br>• Potentzial txikiko proiektuen biziraupen “artifiziala”. | Proiektu ekintzailea sortzen, abiarazten eta hazten laguntzea. | Altua |
| **Finantzaketa publikoa eta publiko-pribatua** | ✓ Finantzaketa tresna eta formula ugari etapa bakoitzerako, batez ere potentzial handiko proiektuetan.<br>✗ Inkesten arabera, finantzaketa eskuratzea da neurririk handienean jarduera ekintzailea galarazten duen oztopoa. | Proiektu ekintzaileen beharrak finantzatzen laguntzea (aktibo finkoak, kapital zirkulatzailea), hainbat kreditu lerroren bitartez, batez ere RIS3ko lehentasunezko sektoreetan. | Altua |
| **Inbertsio publikoa eta publiko-pribatua** | ✓ Pixkana inbertsio tresna berriak sortzea, egokituagoak eta sofistikatuagoak, batez ere izaera publikokoak, proiektu ekintzaileetarako.<br>✗ Proiektuetan koinbertsio publiko-pribatua sustatzeko aukera. | Proiektu ekintzaileen inbertsio beharrak asetzea, batez ere fase aurre-lehiakorretan eta 1M€ baino gehiagoko inbertsioa behar dutenetan, koinbertsio publiko-pribaturako mekanismoak gero eta gehiago sustatuz (match funding). | Altua |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Iturri eta tresna pribatuak** | • Iturri eta tresna pribatu berriak agertzea, eta bankuen finantzaketari buruz hautemandako optimismoa handitzea (proiektu berrien %43,5ek bide horretatik lortu ditu edo lortu nahi ditu funtsak).<br>✗ Proiektu enpresarial berriei baldintza eta tratu bereziak ematen dizkieten inbertsio eta finantzaketa iturri eta tresna pribatuak ezagutarazi behar dira. | Inbertsio iturri eta mekanismo pribatuak "azaleratzen" eta sustatzen laguntzea (*family offices, pledge funds, venture capital*, azeleragailuak, *corporate venture* capital, inbertitzaile teknologikoak, RIS3 sektoreetan espezializatutako funtsak RIS3, *venture builders edo crowdfunding*, besteak beste), baita finantzaketakoak ere (kutxa eta bankuak). | Altua |
| **Inbertsiogileen sareak eta business angels-ak** | ✓ Gero eta jarduera handiagoa business angeletan, "bigarren belaunaldiko" ekintzaileetan eta inbertitzaileen sareetan. Aldi berean, *business angeletatik* finantzaketa jasotzea espero duten proiektuak ugaritu dira (2015ean %4,4, eta 2014an %2,8).<br>✗ Proiektu inbertigarrien gaineko informazioa eta irispidea handitzeko beharra. | EAEn nazioarteko zein maila lokaleko *business angels*-inbertitzaile pribatu aktiboen sare gero eta handiagoa ehuntzen jarraitzea. | Ertaina - baxua |

<u>Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak</u>

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| **Informazioa eta orientazioa** | • ***Ekintzailetzarako finantzaketa eta inbertsio publikoaren, pribatuaren eta publiko-pribatuaren mapa.*** | *Tresnen informazio mapa berri bat argitaratzea eta eguneratzea (diru laguntzak, maileguak eta kapitala) euskal ekintzaileen esku.* | *Gizartea, enpresa berriak, enpresa ekintzaileak, bertako zein nazioarteko pertsona berritzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| **Langabeziaren kapitalizazioa eta mikrofinantzaketa** | • ***Langabeziaren kapitalizazioa*** | *Proiektuen berrien oinarrizko inbertsio beharrak martxan jartzeko eta asetzeko laguntza ekonomiko eta finantzariorako tresnak.* | *Langabeak* | *Lanbide – Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila* |
| | • ***Mikrofinantzaketa (LH, Seed Capital Bizkaia Mikro)*** | | *Lanbide Heziketako ikasleak, enpresa berriak* | *Lanbide Heziketako Sailburuordetza-Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Foru Aldundiekin lankidetzan* |
| | • ***Mikromeznasgoa - crowdfundinga*** | | *Enpresa berriak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Diru laguntzak | • ***Ekintzaile*** | *Enpresa berriak sortzeko laguntza programak* | *Enpresa berriak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| | • ***Ekintzailetza Araban, Bizkai Sortzailea edo Txekin*** | | | *Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| Finantzake-ta publikoa eta publiko-pribatua | • ***Ekintzaile II, Luzaro eta Gauzatu*** | *Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzeko maileguak* | *Enpresa berriak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| | • ***FEI-Finantzen Euskal Institutuaren maileguak*** | *FEI-Finantzen Euskal Institutuaren mailegu lerro berria ETE ekintzaile eta sortu berrientzat, industrialak edo loturiko zerbitzuetakoak izan, aktibo finkoetan eta kapital zirkulatzailean inbertitzeko, Elkargik abalatuta.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Finantzen Euskal Institutua (FEI) eta Elkargi* |
| | • ***Gipuzkoako Foru Aldundia-Elkargi hitzarmena*** | *Gipuzkoako Foru Aldundia-Elkargi hitzarmen berria, hamaika banku eta kutxak izenpetuta, OTEBBek finantzaketa lortzeko, SGRen abalarekin.* | *Oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak* | *Gipuzkoako Foru Aldundia-Elkargi eta hamaika banku eta kutxa* |
| Inbertsio publikoa eta publiko-pribatua | • ***Basque Funtsa*** | *Enpresa sortu osteko laguntza programa* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| | • ***Seed Capital Bizkaia, Seed Capital Gipuzkoa eta Hazibide*** | *Hazi kapital eta mikrofinantzaketarako tresnak* | | *Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| | • ***EAEko Arrisku Kapitala*** | *Inbertsioa hazten ari diren enpresetan, hedapenean, internazionalizazioan, langileen parte hartzean eta enpresa berrien erosketan.* | | *SGEIC S.A. -Eusko Jaurlaritzako Arrisku Kapitalaren Kudeaketa* |
| | • ***Adegi-Geroa-Elkargi funtsa*** | *"Startup"-ei laguntzeko funts berria, kapitalean eta epe luzerako maileguetan parte hartuz.* | | *Adegi, Geroa, Elkargi* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Iturri eta tresna pribatuak | • ***Inbertsio pribatua*** | *Family offices, pledge funds, azeleragailuak, corporate venture capital, eragile teknologikoen inbertsioa eta funts espezializatuak agertzea.* | *Enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *Kereon, Cardumen, Microwave, Emprendiza, besteak beste* |
| Inbertsiogileen sareak eta business angel-ak | • ***Business angels sareen garapena*** | *Business angels sareen garapena.* | *Enpresa berriak, enpresa ekintzaileak, pertsona inbertitzaileak* | *Crecer+, Cleantech Innvest edo Keiretsu Forum* |

## EAEko Ekintzaileetzarako laguntza ekonomiko-finantzariorako tresnen mapa




*Iturria: lanketa propioa, oinarritzat hartuta "Berrikuntzaren finantzaketa, inbertsio eta gaikuntzaren katalogoa" (Innobasque 2017) eta EAEko hainbat eragile finantzario publiko eta pribaturen ekarpenak.*

## 4.5. Merkaturako sarbidea

Helburu nagusia: **Ekintzailetza proiektuei, bereziki etorkizuneko RIS3 sektoreetan potentzial handia daukatenei, merkatuan sartu eta "lehen bezeroak" eskuratzeko aukerak ematea.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| "Lehen bezeroa" | ✓ Aldeko testuinguru enpresariala, enpresa berriekin inplikatzen den enpresa eta industri sare sendo eta esperientziadunak osatua.<br>✗ Lehen salmentak dira ekintzaileek adierazten dituzten oztopo nagusietakoa. | Proiektu ekintzaileei merkatuan sartzen eta "lehen bezeroak" bilatzen laguntzeko programak indartzea, batez ere RIS3ko lehentasunezko sektoreetan. | Altua |
| Lankidetza-erosketa publikoa | ✓ Gero eta kontzientzia publiko handiagoa horrelako praktikei buruz, eta azterketa eta proba pilotuak garatzea lankidetza-erosketa publikoko ekintzak martxan jartzeko, enpresa berriek euren produktu/zerbitzuak testatu eta merkatuan sartu ahal izateko.<br>✗ Erosketa publikoaren ahalmena aprobetxatzeko aukera, eta martxan jartzeko oztopo administratiboak egotea. | Lankidetza-erosketa edo aurre-erosketa publiko berritzaileko proba pilotuak martxan jartzea, euskal administrazioen eta sozietate publikoen erosteko ahalmena aprobetxatuz, berrikuntza eta teknologiaren kontratista eta kontsumitzaile moduan, enpresa sortu berrientzat merkatu berriak eta aukerak garatzen laguntzeko. | Ertaina - altua |
| Proiektu erakusleak | ✓ Egitasmo arrakastatsuak sektore jakinetan, lagun ekonomikoa eta proiektuen laguntasun pertsonalizatua uztartuta.<br>✗ Formula honen potentziala aprobetxatzeko aukera. | Proiektu erakusleak sustatzea, zeinetan eragile publiko eta pribatuen laguntasun teknologikoak, laguntza ekonomikoarekin batera, lagundu egingo duen soluzio berriaren eskari handiagoa sortzen eta laguntzarako beste tresna batzuetarako bidea azkartzen. | Ertaina - baxua |
| Lankidetzazko ekintzailetza | ✓ Lankidetzan jarduteko kontzientzia gero eta handiagoa (ekintzaileen, enpresa berrien, enpresa sendotuen edo beste eragile batzuen artean), lehiakorrak izateko.<br>✗ Lankidetza ororen arrakastari lotutako berezko zailtasunak. | Lankidetza bidezko ekintzailetzako egitasmoak sustatzea (ekintzaileen, enpresa berrien, enpresa sendotuen edo beste eragileen artean), dimentsioa irabazteko eta merkatuetan sartzeko eta hazteko bide gisa. | Ertaina - altua |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| Proiektuen azelerazioa | ✓ Proiektu ekintzaileekiko konpromiso gero eta handiagoa, eta etapa honetara zuzendutako programa, finantzaketa tresna ugari.<br>✗ Dauden programa lagungarri eta beraien emaitzen ibilbidea mugatua da oraindik. | Egitasmo berriei umotzen, merkatuan sartzen eta hazten laguntzea, proiektuen eta enpresa lehiakortasunari laguntzeko gainerako sistemen arteko konexioa azpimarratuz (berrikuntza, nazioartekotzea, ikerketa, kontratazioa). | Altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| "Lehen bezeroa" | • ***BIND 4.0 enpresa traktoreekin*** | *Startupen azeleraziorako nazioarteko programa 4.0 industriaren esparruan, eta, horren barruan, irabazten duen startup bakoitzarentzat kontratu bermatu bat industri enpresa handi batekin (lehen edizioan izan dira ABB, CAF, CIE Automotive, Danobat Group, Euskaltel, Iberdrola, ITP, Mercedes Benz, Michelin, Repsol eta Petronor), mentoring eta azelerazio programa pertsonalizatu batez gain.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| Lankidetza-erosketa publikoa | • ***BFA kontratazio publikoa*** | *Kontratazio publikoa babesteko neurri berriak ETE eta autonomoetara zuzenduta, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazioko klausula sozial berrien arabera.* | *Enpresa berriak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***Erosketa publikoaren bulego berritzailea*** | *Osakidetzan erosketa publiko berritzailearen bulegoa sortzea.* | *Enpresa berriak* | *Osakidetza Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila* |
| | • ***Lankidetza publiko-pribatuko pilotuen hedapena*** | *Arabako Parke Teknologikoak eta BIC Arabak OTEBBekin garatutako lankidetza publiko-pribatuko praktiken hedapena, beraien produktu eta zerbitzuak instalatzen, testatzen eta bistaratzen laguntzeko, Parketan azpiegiturak eta instalazioak lagaz, beste neurri batzuen artean.* | *Enpresa berriak, erakunde publikoak* | *Arabako Parke Teknologikoa eta BIC Araba* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Proiektu erakusleak | • ***Ekonomia zirkularreko proiektu erakusleetarako laguntzak*** | *Proba industrialak edo aurre-industrialak egiteko laguntzen deialdi berria, soluzio berritzaileen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa berresteko. 2014tik, 36 proiektu onartu dira eta 0,7M€-ko laguntzak eman dira.* | *Enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *IHOBE – Eusko Jaurlaritza* |
| Lankide-tzazko ekintzailetza | • ***Bizkaia Open Future*** | *Programaren helburua da industri sarea eredu digitalera aldatzea, bertako zein nazioarteko talentua erakartzea eta 4.0 Industriako startup berriak sortzea, lankidetza garatuz Bizkaiko talentu ekintzailearen, startupen, ETE-en eta erreferentziazko industri enpresen, eragile inbertitzaileen eta beste eragile batzuen artean.* | *Enpresa berriak, enpresa ekintzaileak, industri sarea* | *Bizkaiko Foru Aldundia eta Telefonica* |
| | • ***BIG Bilbao - Bilbao Ideien Gunea*** | *Bilboko herritarrentzako arreta eta zerbitzu zuzeneko zentro berria, ekintzaileei laguntzeko baliabide guztiak elkartzeko eta ekintzailetza babesteko udal azpiegituren sarearekin eta ekintzailetzari lotutako hiriko gainerako eragile eta azpiegitura publiko eta pribatuekin konektatzeko.* | *Gizartea, ikasleak, enpresa berriak* | *Bilboko Udala eta egitasmoaren bazkide estrategikoak* |
| | • ***"Exchange" eta "Test in red" egitasmoak*** | *"Exchange"-k (mikro) ETE-en eta beste eragile batzuen arteko soluzio berriak bilatzea sustatzen du, eta "Test in red"-ek OTEBBen produktu/zerbitzu berrien kontrastea eta esperimentazioa errazten du Innobasqueren sarean.* | *Enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *Innobasque (eta bere sarea)* |
| Proiektuen azelerazioa | • ***Startups-ETE azelerazio programa*** | *Hazteko laguntasun integrala (2014tik, 14 proiektu babestu dira, eta batez besteko hazkundea (1-2 urtean) fakturazioan %40 izan da eta enpleguan %25).* | *Enpresa berriak* | *BEAZ-Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***Innolab Bilbao*** | *Berrikuntza ireki eta enpresa, startup eta I+G proiektuen azelerazioko plataforma berria, neurrira egindako laguntza programen bitartez.* | | *Bilboko Udala, BBK, DU, Euskaltel, Iberdrola, Mondragon, IBM* |
| | • ***Berriup eta Metxa*** | *Proiektu ekintzaileen azelerazio programa pribatuak.* | | *Berriup eta Metxa* |

## 4.6. Prozesuak, zerbitzuak eta laguntza programak

Helburu nagusia: **Erakundearteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez, eta lankidetza publiko-pribatuaren bitartez, dauden prozesu, programa eta laguntza zerbitzuak herritar ekintzaileen beharretara egokitzea.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| Zerbitzu aurreratuak-BICak | ✓ BICen lan historikoa nabarmentzen da ekintzailetza aurreratua babesteko eta laguntzeko eragile moduan, eta zentro horiek berrantolatzeko prozesua, EAE mailan osatuta.<br>✗ Zerbitzuak progresiboki sofistikatzeko beharra, pertsona ea enpresa ekintzaileen behar berrien arabera, eta BICari buruz nazioartean onartutako kontzeptuaren arabera. | BICek irudi berria finkatzea, euren rola eta ekosistemaren gainerako eragileekin duten harremana sustatzea, eta pixkana zerbitzuen aukera sofistikatzea, proiektu ekintzaileei laguntzeko orduan. | Altua |
| Beharretara egokitutako programa eta zerbitzuak | ✓ Babes segmentatua eta laguntasun etengabea ekintzaile eta kolektibo tipologia guztientzat, udal, eskualde, lurralde eta EAEko mailako eragileen sarearen bitartez.<br>✗ Programen ebaluazio eta egokitzapen etengabearen kultura hedatzeko beharra, eta geografia eta kolektibo desberdinen eragile laguntzaileen arteko lankidetza eta koordinazioa handitzeko beharra (publikoak eta pribatuak). | Babes programa eta zerbitzu publikoak egokitzea, abiapuntutzat hartuta eraginaren ebalua, koordinazio publiko-pribatua eta ekintzaileen eta sektore pribatuaren arteko elkarrizketa, betiere kolektibo bakoitzaren behar bereziak eta jarduera ekintzailearen bizitza zikloaren etapa kontuan hartuz. | Altua |
| Informazio zentralizatua | ✓ Euskal ekintzailetza babesteko eragile publiko eta programa/zerbitzu kopuru handia eta mota ugari dago, tipologia, etapa eta behar guztiei dagokienez.<br>✗ Ekintzailea nahasteko arriskua, eragileen (>100) eta programa/zerbitzu publikoen (>300) kopuru handiagatik. | Babes zerbitzu eta programen multzoaren ikusgaitasuna eta irispidea handitzea, ekintzaileei sistemaren inguruko nahasmendua eta ulertzeko arazoak ez sortzeko (“nor da nor eta zer eman diezakedan”). | Ertaina - altua |

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| Tramite arinak | ✓ Euskadi erkidego autonomoen rankingeko buruan dago ekintzaileetzari lotutako tramite administratiboen balorazioari dagokionez. Adibidez, EAEn enpresa bati alta emateko behar den egun kopurua 3-10 egunekoa da. (Espainian, oro har, 14 egun behar dira)<br>✗ Burokrazia, zergak ordaintzea eta BEZaren tramitazioa, horiek dira ekintzaileek oraindik ere aurkitzen dituzten oztopo nagusiak. | Ekintzailetzaren jarduerari lotutako prozesu administratiboak arintzea, egon daitezkeen oztopoak deuseztatuz, tramitazio telematikoa bultzatuz, prozesuak eta hizkuntza sinplifikatuz eta malgutuz edo epeak hobetuz, besteak beste. | Ertaina - altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu aurreratuak-BICak | • ***BICen sofistikazioa*** | *Euskal BICak sofistikatzeko prozesu berria, aurreko legegintzaldian hasitako lan ildoari jarraipena emanez, euskal BICen sarean dauden baliabideak eta ahalmenak hobeto integratzeko eta aprobetxatzeko (esperientzia, harreman sareak, metodologiak), enpresei zerbitzu aurreratuak egiten laguntzeko (OTEBBak eta enpresa sendotuak), batez ere RIS3ko etorkizuneko sektoreetan.* | *BICak, oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak, enpresa ekintzaileak eta enpresa sendotuak* | *BICak-Foru Aldundiak* |
| Beharretara egokitutako programa eta zerbitzuak | • ***Babes programa eta zerbitzuen katalogoa*** | *Eragile publikoen eta parapublikoen babes eta laguntasunerako programa eta zerbitzuen katalogo berria, ekintzailetzaren bizitza zikloko etapa eta behar bakoitzerako.*<br>*Hurrengo orrialdean babes programa eta zerbitzu publikoen laburpen koadro bat jasotzen da. Eranskinetan katalogo zehatz bat ematen da, eragile publiko eta pribatu guztien programa eta zerbitzuekin.* | *Euskadiko ekintzailetza babesteko eragile guztiak* | *SPRI - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| | • ***Praktika onen hedapena*** | *Praktika onen hedapena, babestutako proiektuen trazabilitatea segurtatzeko, babes tresna eta programen eraginkortasuna eta iraungipena ebaluatzeko, eta eragin ekonomikoa eta sortutako itzulkin soziala neurtzeko.* | | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta Foru Aldundiak* |
| Informazio zentralizatua | • ***UP Euskadi atari berria*** | *UP Euskadi atari berria, informazio guztia zentralizatzeko euskal ekosistema ekintzaileko prozesu, programa, zerbitzu, finantza tresna, azpiegitura eta eragileei buruz, eta informazio hori modu erraz eta erakargarrian eskaintzeko interesa izan dezaketen bertako zein kanpoko eragile guztiei.* | *Euskal gizartea eta ekintzailetzaren eragileak* | *SPRI - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |
| Tramite arinak | • ***Leihatila Bakarrak eta Aholkularitza eta Tramitazioahasteko Guneak*** | *Ekintzaileari laguntzeko irispideak, informazioa eta babesa (orientazioa, prestakuntza, laguntasuna).* | *Gizartea eta enpresa berriak* | *BICak, Udalak, Merkataritza Ganberak, , autoenpleguan sartzeko guneen sarea eta Lanbide Heziketako Tknika sarea* |
| | • ***Tramitazio elektronikoa*** | *EAEn enpresa bat eratzeko tramitazio elektronikoa (Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia).* | *Enpresa berriak* | *Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| | • ***SPRIren azterketa tramitazioa arintzeko*** | *SPRIren azterketa berria ekintzailetza prozesuaren tramitazio administratiboa arintzeko.* | | *SPRI - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |

## EAEn ekintzailetza babesteko programa eta zerbitzu publikoen mapa




*Iturria: geuk egina*

## 4.7. Fiskalitatea eta araudi erraztailea

Helburu nagusia: **Tresna fiskalak eta arau arlokoak eguneratzea, zeregin ekintzaileari hesiak kentzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentzia gisa jartzeko zerga eta arau arloen garapenean.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Eguneratze fiskala** | ✓ Euskal Ogasunek neurri fiskalak progresiboki eguneratzea, ekintzailetza eta barne ekintzailetza indartzera, *business angels*-ak sustatzera eta enpresa proiektuak eta bere erabaki guneak sustraitzera zuzenduta. ✓ Lagin moduan, 2015ean ekintzailetza babesteko zuzenean aplikatutako neurri fiskalen gastua guztira 34,2 milioi eurokoa izan zen<br>✗ Euskadi arlo honetan estatuan eta nazioartean erreferente bihurtzeko aukera. | Aukerak esploratzen eta ekintzailetza babesteko neurri fiskalen etengabe eguneraketak sustatzea, ekintzailetza jardueran oztopoak kentzeko eta arriskuak arintzeko, eta euskal ekosistemaren filosofia eta kulturarekin bat etorriko diren portaerak saritzeko, erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren bitartez. | Altua |
| **Arauak eguneratzea** | ✓ Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legearen garapena, eta ekintzailetzaren berariazko errekonozimendua esparru gakoetako lege eta dekretuen bitartez, esaterako, hezkuntzan (LHaren lege berria eta hezkuntza sistemaren oinarrizko konpetentziak arautzeko dekretua).<br>✗ Trena legegileen potentziala aprobetxatzeko aukera hainbat esparru eta sektoretan kultura eta praktika ekintzailea hedatzeko. | Legedia aurreratu bat sustatzea, ekintzailearen jarduerari oztopoak kentzeko eta etorkizuneko sektoreetan aukera nitxo berriak sortzen laguntzeko, hala nola 4.0 fabrikazio aurreratuan, energia berriztagarrietan, garraioan eta mugikortasun iraunkorrean, besteak beste. | Ertaina - altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Eguneratze fiskala | • ***Ekintzailetza babesteko neurri fiskalak*** | *Foru Aldundietan ekintzailetza babesteko indarrean dauden neurri fiskalak (ikusi hurrengo orrialdeko koadroa) eta egitasmo berriak diseinu fasean.* | *Gizartea, enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak, inbertsiogileak* | *Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Ekonomia Sailarekin lankidetzan, Euskadiko EZKOren baitan* |
| | • ***Indarrean dauden neurri fiskalen azterketa konparatiboa*** | *Ekintzaletza babesteko Euskal Ogasunetan indarrean dauden neurri fiskalak, Lurralde Historikoen eta beste errealitate batzuen arteko konparazioaren bidez (Nafarroa eta estatua), eta neurri horiek Euskal Ogasunetan eragindako inpaktu ekonomikoa.* | | |
| | • ***Zerga aukera berriak esploratzea*** | *Fiskalitatearen inguruko aukera berriak etengabe esploratzea, bai enpresa berrietan bai startupen inbertsioan, jarduera honen erakarmena handitzeko, inplikaturiko aldeen oztopoak kentzeko eta Euskadi eta bere Lurtalde Historikoak erreferentziazko leku bihurtzeko arlo honetan.* | *Enpresa berriak eta inbertsiogileak* | *Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ogasun eta Ekonomia Sailarekin lankidetzan, Euskadiko EZKOren baitan* |
| Arauak eguneratzea | • ***Ekintzailetzaren Foru Araua*** | *Ekintzailetza sustatzeko foru arau berria.* | *Gizartea, enpresa berriak* | *Gipuzkoako Foru Aldundia* |
| | • ***Lanbide Heziketaren euskal legea*** | *LHren lege berria, eskaintza egonkorra egiteko ekintzailetzaren inguruan, ekintzailetza hezkuntzaren etapa guztietan sakonago integratzeko eta enpresariak ekintzailetza programetan sartzeko.* | *LHko ikasleak* | *Tknika – Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila* |
| | • ***I+G+Bko emaitzak ustiatzeko araudia*** | *Osasun sisteman I+G+Bko emaitzak ustiatzeko araudi orokor berria.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila* |

## EAEn ekintzailetza babesteko indarrean dauden zerga neurriak

| Zerga | Ekintzailetza babesteko EUSKADIn aplikatzeko neurri fiskalak (2017ko apirila) |
|---|---|
| SZ | ▪ Ekintzailetza babesteko EUSKADIn aplikatzeko neurri fiskalak (2017ko apirila)<br>▪ Ekintzailetza sustatzeko eta produkzio jarduera indartzeko erreserba berezia (53. art.). |
| Sozietate Zerga/PFEZ | ▪ Ikerketa eta garapeneko proiektuetan edo berrikuntza teknologikoan parte hartzea. |
| PFEZ | ▪ Langabeziagatik ordainketa bakar bidez jasotako zenbatekoak salbuestea (9.13 art.).<br>▪ Ekintzaile berrien jarduera ekonomikoen errendimendu garbi positiboaren %10eko murrizketa (25.5 art.).<br>▪ Enpresa sortu berrietan inbertsioa egiteagatiko kenkaria (90. art.).<br>▪ Jarduera profesionalen errendimenduei aplikagarri zaien atxikipen tasa murriztea. |

| Zerga | Ekintzailetza babesteko EUSKADIn aplikatzeko beste neurri fiskal batzuk (2017ko apirila)* |
|---|---|
| SZ | ▪ Enpresa kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa (51. art.).<br>▪ Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia (52. art.).<br>▪ Karga tasa murriztua. |
| PFEZ | ▪ Langileek enpresan parte hartzeagatiko kenkaria (89. art.). |
| EJZ | ▪ Kuotaren %50erainoko hobaria. |
| BEZ | ▪ Kutxa irizpidearen araubide berezia: araubide hau autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat sortu da, eta boluntarioa da.** |

Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa.
* Jarduera ekonomikoa ea enplegua sustatzeko neurri fiskalak, ez bereziki pertsona ekintzaileentzat, baina ekintzailetzako jarduera berriak ere baliatu daitezke horietaz.
**BEZ: Arautzeko eskumenik gabe Kontzertu Ekonomikoaren arabera.

## 4.8. Azpiegitura adimendunak

Helburu nagusia: **Proiektu berriak sortzen, umotzen, hazten eta sendotzen lagunduko duten azpiegitura "adimendunak" edukitzea.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Azpiegituren egungo parkearen kudeaketa aktiboa** | ✓ Ekintzailetza babesteko azpiegituren sare zabala, EAE-GEM txostenetan oso positibo baloratuta.<br>✗ Erabiltzeko eta txandakatzeko irizpideak berrikusteko beharra, eta azpiegiturak eta eragile jabeak konektatzeko beharra, dauden ahalmen guztien aprobetxamenduari lehentasuna emanez. | Erabilgarri dauden azpiegitura espezializatuen parkearen kudeaketa aktiboa eta jasangarria egitea, gutxiegi erabiltzen direnen aprobetxamendurik handiena eta azpiegituren arteko harremana bultzatuz, eragileen arteko koordinazioaren bitartez. | Ertaina - altua |
| **OTEBBetarako azpiegitura adimendunak** | ✓ Ekintzailetza aurreratuko proiektu eta sektoreen beharretara egokitutako azpiegitura espezializatu ugari.<br>✗ Azpiegitura horietan ematen diren zerbitzuak indartzeko beharra, izaera teknologiko eta berritzaileko enpresei laguntza espezializatua emateko. | Azpiegitura espezializatuen sare bat edukitzea ahalmena duten ekintzailetza proiektu berritzaile eta teknologikoen inkubazioa, umotzea eta azelerazioa sustatzeko, batez ere RIS3 sektoreetan, emandako balio erantsiaren, lankidetzaren eta efizientziaren irizpideekin bat eginda. | Altua |
| **Azpiegitura espezializatu berrietarako ezohiko inbertsioak** | ✓ Azpiegituretarako inbertsio berriak egokitzea potentzial handiko proiektu/sektoreen edo zerbitzu publikoen integrazioaren behar bereziak estaltzeko.<br>• ✗ Alderdi kualitatiboari lehentasuna emateko beharra (pertsonak, ezagutza, zerbitzuak) azpiegituraren gainean, ahal den heinean. | Izaera bereziko azpiegitura espezializatu berrietan inbertitzearen alde egitea, eta neurri handiko proiektu berrietarako lurzoru erabilgarri eta irisgarriaren arloan dauden gabeziak progresiboki arintzea. | Ertaina - baxua |
| **Oinarrizko azpiegitura fisikoak** | ✓ Euskadiko azpiegitura fisikoen parkea osatuta, oro har.<br>✗ Azpiegituretan dauden gabeziak pixkana konpontzeko beharra, ekintzailetza proiektuen garapenean egon daitezkeen oztopoak kentzeko. | Azpiegitura fisikoen parke osatu bat eta zentzuzko prezioan sustatzea (banda zabala, bulegoak eta lurzorua, energia, azpiegitura logistikoak eta garraiokoak). | Ertaina - baxua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Azpiegituren egungo parkearen kudeaketa aktiboa | • **Azpiegituren mapa eta ikusgaitasuna** | *Ekintzailetza babesteko erabilgarri dauden azpiegituren parkearen mapa eta ikusgaitasuna (inkubagailu espezializatuak, udal eta eskualdeko hazitegiak, parke zientifiko-teknologikoak eta industrialdeak, besteak beste), erabilgarri dauden ahalmen espezializatuak bistaratzeko eta gutxiegi erabiltzen diren espazioak aprobetxatzeko udal, eskualde, lurralde eta EAE mailan.* | *Gizartea, enpresa berriak, enpresa ekintzaileak* | *SPRI, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, Foru Aldundiak, Udalak eta azpiegitura lagungarrien jabe edo finantzatzaile diren beste eragile batzuk* |
| OTEBBetarako azpiegitura adimendunak | • **Inkubagailu espezializatuen sarea** | *Inkubagailu espezializatuen sarea OTEBBei laguntzeko RIS3 sektoreetan: BEAZ-BIC Bizkaia eta BIC Bizkaia Ezkerraldea, BIC Gipuzkoa eta BIC Araba.* | *Enpresa berriak* | *Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak* |
| | • **Entreprenari / Inizia / Zitek programetako Inkubagailu Sarea** | *OTEBBei laguntzeko inkubagailu espezializatuen sarea, EHU/UPVren programen bitartez* | | Foru Aldundiak eta EHU/UPV |
| | • **Azeleragailu pribatuak** | *Ahalmena duten izaera berritzaile eta teknologikoko azeleragailu pribatuak, inbertsiogileen kolektiboen eta arlo honetan esperientzia duten mentoreekin.* | *Enpresa berriak* | *Metxa, Berriup, besteak beste* |
| Azpiegitura espezializatu berrietarako ezohiko inbertsioak | • **Auzo Factory zentroen sarea** | *Hiriko espazio sortzaile berriak sortzeko gunea, erabiltzen ez diren espazioak leheneratuz eta enpresa jarduerak sustatzeko erabiliz, bere jarduera Bilbo udalerrirako definitu diren sektore estrategikoetara zuzenduz. Sortutako espazioen artean daude: KBI Digital Bilbao Bizkaia, Innolab Bilbao, Boluetaberri, Ensanche eraikina eta Harrobia.* | *Gizartea, ikasleak enpresa berriak* | *Bilboko Udala eta egitasmoaren bazkide estrategikoak* |

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Oinarrizko azpiegitura fisikoak | • ***Banda zabal ultraazkarra*** | *Banda zabal ultraazkara industrialdeetan hedatzea* | *Enpresa berriak, enpresa sendotuak* | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| | • ***StartUps Euskaltel*** | *Euskaltelen teknologia, ahalmenak eta komunitate berritzailea startup, azeleragailu, bezero eta sektore produktiboekin konektatzeko programa berria, OTEBBei hainbat zerbitzu eskaintzeko* | *Oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak* | *Euskaltel* |

## 4.9. Ekosistemaren posizionamendua

Helburu nagusia: **Herritarren artean eta estatuko nahiz nazioarteko beste ingurune batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoa "ekintzailetzarako leku on" gisa posizionatzea, gero eta osoagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa den babes ekosistema batekin.**

Jardute ildoak

| Jardute ildoa | Diagnostikoaren gakoak | Ildoaren helburua | Eragina/ lehentasuna |
|---|---|---|---|
| **Ekosistemaren sustapena** | ✓ Ekintzailetzaren euskal ekosistemaren kalitatea eta heldutasuna; bere eragile, programa/zerbitzu, tresna eta azpiegituren multzoa estatuko zein nazioarteko ekosistema gehienen parekoa da.<br>✗ Ekintzailetzaren euskal ekosistemaren eta ereduaren onurak eta ahalmenak beste ingurune batzuetara eramateko beharra. | Euskadi ekintzailetzarako ekosistema industrial-teknologiko erakargarri moduan sustatzea, ekintzailetzaren euskal eredua definitzen duten ezaugarriak eta onura lehiakorrak ikusaraziz, bai EAEn bai kanpoan. | Altua |
| **Nazioarteko konexioa** | ✓ Gero eta egitasmo instituzional gehiago euskal ekosistema eta bere proiektuak eta bere ekintzaileak nazioarteko erreferentziazko beste ekosistema batzuekin konektatzeko. Gainera, herrialdeen eta ekosistemen konexio hori bultzatzen duten euskal enpresa eta pertsona ekintzaile indibidualen rola nabarmentzen da.<br>✗ Ekintzailetzaren euskal ekosistema eta bere eragileak eta proiektuak progresiboki irekitzeko beharra. | Euskal ekosistema ekintzailetzaren nazioarteko erreferentziazko beste ingurune, eragile eta zentro batzuekin konektatzea, irekiera, jardueren kontrastea eta etengabeko ikasketa sustatzeko, eta egon daitezkeen dinamika endogamikoak arintzeko. | Altua |
| **Ekosistemaren gobernantza** | ✓ Eragileen arteko sintonia eta prestasuna ahaleginak bateratzeko eta ekintzailetza babesteko euskal ekosistema sendotzeko, gero eta efiziente eta efikazagoa izan dadin, jarduera ekonomikoa, enplegua eta kohesio soziala sortzeko.<br>✗ "Errelatu", printzipio eta balio komunak lantzeko beharra, ekosistema gero eta osatu, aktibo, sinergiko eta ezagunagoa eraikitzeko, eta ekosistema horretako partaidetza sentimendua sortzeko ekintzailetza babesten parte hartzen duten eragile publiko eta pribatu guztiengan. | Gobernu onaren, informazioaren gardentasunaren, koordinazioaren eta kudeaketa aurreratuaren (planifikazioa, ebaluazioa, kontrastea) printzipioak finkatzea instituzioen eta ekosisteman parte hartzen duten gainerako eragileen artean. | Ertaina - altua |

Jardute ildo bakoitzeko proiektu nabarmenak

| Jardute ildoa | Proiektu nabarmena | Deskribapena | Hartzailea | Eragile arduraduna |
|---|---|---|---|---|
| Ekosistemaren sustapena | • ***Basque Industry 4.0*** | *Ekintzailetzari buruzko nazioarteko biltzarrak indartzea, ekintzailetzaren euskal ekosistema sustatzeko bitarteko moduan.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *SPRI, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila* |
| | • ***BIND 4.0*** | | | |
| Nazioarteko konexioa | • ***Sare globaletan parte hartzea*** | *Sare globalekin konektatzeko edo enpresa berrien nazioarteko azeleraziorako programak, euskal ekosistema nazioarteko beste ingurune batzuekin konektatzeko.* | *Enpresa berriak eta enpresa ekintzaileak* | *Bizkaiko Foru Aldundia* |
| | • ***Masschallen-ge Biscay*** | | *Enpresa berriak* | |
| | • ***CIC Cambridgeki-ko lankidetza*** | | | |
| | • ***BIND 4.0*** | | | *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila eta SPRI* |
| Ekosistemaren gobernantza | • ***Euskadiko Ekintzaile-tzari buruzko Unibertsita-tearteko Ikerketa Zentroa (EUIZ)*** | *Ekintzailetzari buruzko Unibertsitatearteko Ikerketa Zentro berria, euskal unibertsitateen lankidetzarekin sortua, euskal ekintzailetzaren behatoki etengabe moduan. Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundien et EUIZren arteko erakundearteko hitzarmena, gaur egun Euskadiri buruz egindako txostenak handitzeko.* | *Euskadiko ekintzailetza babesteko eragile guztiak* | *Euskadiko unibertsitate publikoa eta unibertsitate pribatuak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, Foru Aldundiak* |

# V. blokea: ekintza plana eta gobernantza eredua

## 5.1. Ekintzak eta aurrekontua

5.1.1. Ekintzak

EEP 2020 planak EAEko eragile publikoak eta pribatuak **ekintzailetza babesteko** garatzen ari diren edo datozen urteetan garatzea aurreikusita dituzten **300 ekintza baino gehiago** jaso ditu, bere aldaera eta tipologietan.

Ekintzaileak babesteko zerbitzu eta programen multzo hori ikusgarriagoa eta eskuragarriagoa izateko helburuarekin ("nor den nor eta zer eman diezadakeen"), **UP Euskadi atari berrian online katalogo bakar bat sortuko** da. EAEko babes ekosistemari buruzko informazio eguneratua mantenduko du, gaur egun dauden katalogoak integratuz edo konektatuz.

Eranskinetan **katalogo zehatz** bat ematen da, ekintzailetza babesteko euskal ekosistemako eragile publiko eta pribatu nagusien **programa eta zerbitzuekin**.

5.1.2 Aurrekontua

2017an **Planari zuzenean lotutako aurrekontua 72,5 milioi eurokoa** da, kontuan hartuta sartu diren proiektuetako batzuek ez dutela aurrekonturik esleituta, diseinu fasean daudelako edo aurrekontuko esleipenik behar ez duten programak direlako (adib., lankidetzak).

EEP 2020ren aurrekontuan Plana sustatzen duten eragile publikoen eta bere menpeko edo berari lotutako sozietate publikoen ekintzailetzari lotutako ohiko aurrekontuak daude. Euskal administrazio publikoen aurrekontuen egonkortasunaren esparruak baldintzatutako aurrekontu bat izanik ere, **%20 inguruko igoera** dakar aurreko Planarekiko (EJLEP 2013-2016), eta %3koa 2016arekiko. Etorkizunari begira, antzeko bilakaeraren alde egiten da, eta, hipotesi horiek kontuan hartuta, XI. Legegintzaldi osora estrapolatuta, guztira 295 milioi euro inguruko aurrekontua esleituko litzateke.

**2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuaren bilakaera**[37]

| Jardute eremua | 2017an onartutako aurrekontua | 2018an aurreikusitako aurrekontua | 2019an aurreikusitako aurrekontua | 2020an aurreikusitako aurrekontua |
|---|---|---|---|---|
| 1. EKINTZAILETZAKO IDEIA ETA EGITASMO BERRIAK | 13.898.939 € | 14.116.818 € | 14.338.112 € | 14.562.875 € |
| 2. HAZKUNDEA, SENDOTZEA ETA TRANSMISIOA | 40.781.494 € | 41.420.782 € | 42.070.091 € | 42.729.579 € |
| 3. EKINTZAILETZAREN KULTURA ETA BALIOAK | 1.546.789 € | 1.571.036 € | 1.595.664 € | 1.620.677 € |
| 4. EKINTZAILETZA KORPORATIBOA | 3.716.806 € | 3.775.070 € | 3.834.248 € | 3.894.354 € |
| 5. LAGUNTZA EKOSISTEMAREN INTEGRAZIOA | 12.546.583 € | 12.743.262 € | 12.943.025 € | 13.145.919 € |
| | 72.490.611€ | 73.626.969 € | 74.781.140 € | 75.953.404 € |

[37] *EEP 2020ren aurrekontua JEBEP 2013-2016 planaren jardute eremuen arabera sailkatzen da, bi planen arteko konparazioa errazte aldera. Plan berriaren ezarpenaren lehen hilabeteetan aurrekontuaren sailkapen zehatza egingo da, bere bederatzi jardute eremuekin.*

## 5.2. Kudeaketa eta koordinazioa

a) Planaren lidergoa

EEP 2020 **Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak (EGAS)** bultzatu eta gidatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzako Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizartearen Zuzendaritzak kudeatu eta koordinatzen du. Gainera, bi horiek arduratuko dira Planean aurreikusitako hainbat proiektu eta ekintza nagusi dinamizatu, gauzatu, komunikatu eta ebaluatzeaz.

EGASen lidergoaren helburu nagusiak izango dira jarraibideak ezartzea, Planari lotutako jarduera administratiboa orientatzeko eta testuinguru egokia sortzeko, Plan hau beste estrategia, plan, programa eta ekintza propioekin zein beste administrazio batzuenekin egokitzeko[38].

Halaber, EGAS Sailak EEP 2020 onartu eta gero, Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, eta, horrek ezagututzat jo eta gero, Eusko Legebiltzarrera bidaliko du, informaziorako jakinarazpen moduan, 2017ko lehen seihilekoan zehar

EGASekin batera, **Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Finantzen Euskal Institutuak** ere rol nabarmena jokatzen dute, hainbat fondo eta finantzaketa tresnaren arduradunak eta horien hedapenaren gauzatzaileak diren heinean (SGRei lotutako abal lerroak eta Luzaro eta Basque Funtsari lotutako kreditu tresnak, besteak beste).

b) Sailen eta erakundeen arteko harremana eta koordinazioa (Erakundearteko Mahaia)

Aurreko legegintzaldian ezarritako lan dinamikari jarraituz, EEP 2020ren Erakundearteko Mahaiak sailen eta erakundeen arteko harremana eta koordinazioa artikulatuko ditu:

- **EEP 2020 diseinatu, landu, kontrastatu eta aurre-onarpena egiteko** organo arduraduna da. Halaber, Planaren ezarpenaren jarraipena eta urteko ebaluazioa egiteaz arduratuko da, indarrean dagoen bitartean. Azkenik, Mahaia ekintzailetzaren inguruko **informazioa trukatzeko eta koordinatzeko** espazioa izango da, eragileen/proiektuen arteko sinergia eta lankidetza posibleak identifikatzeko eta proiektu partekatu berriak planteatzeko.
- EGASek gidatuta, bere partaideak izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Osasun Saila eta Lan eta Justizia Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekaren Departamentua eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapen eta Lurralde Oreka Saila.
- Mahaia, *a priori*, **lau hilean behin** elkartuko da. Bertan aipatutako erakundeetako bakoitzean ekintzailetzaren inguruan maila politikoan edo teknikoan ardura duten lagunek parte hartuko dute, eta beste eragile publiko edo pribatu batzuen presentzia erabaki ahal izango da komenigarritzat jotzen denean.

c) Koordinazio operatiboa (BICak, lantaldeak eta idazkaritza)

EEP 2020ren exekuzioan eta koordinazio operatiboan, aurreikusitako ardatz, proiektu eta ekintzen bitartez, hainbat eragilek parte hartuko dute:

- BICak: EAEko Business Innovation Centres (BIC) edo Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (EBZ), Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek sustatuta, izaera berritzaile eta oinarri teknologikoko ekintzailetza aurreratua babesteko politika eta programen "beso gauzatzailea" dira, hiru Lurralde Historikoetako bakoitzean. BICen bitartez gauzatutako programa, zerbitzu eta ekintzen koordinazio operatiboa egiten laguntzeko (batez ere ekintzailetza aurreratuaren eta barne ekintzailetzaren arloetan), **koordinazio operatiboko batzorde berri** bat ezarriko da, zeina **lau hilean behin elkartuko** den. Bertan parte

[38] *Eranskinetan Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundietan ekintzailetza babesteari lotutako plan publikoetan jasotako konpromisoen zerrenda bat gehitzen da, EEP 2020ren ardatz, proiektu eta ekintzekin duten loturarekin.*

hartuko dute EGASeko, SPRIko eta euskal BICeetako ordezkariek, hau da, BIC Araba, BIC Bizkaia, BIC Bizkaia Ezkerralde eta BIC Gipuzkoako ordezkariek.

- Lantaldeak: gai eta behar zehazten arabera Erakundearteko Mahaiak *ad hoc* proposatuta, Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta ekosistemaren gainerako eragileen talde teknikoetako ordezkariek osatuko dituzte, kasuaren arabera. Helburu eta emaitza jakin batera bideratuta, Erakundearteko Mahaiarentzat interesgarria izan daitekeen gai espezifiko bat aztertzeaz eta lantzeko proposamenak planteatzeaz arduratuko dira. Behin-behineko talde gisa antolatuko dira, eta iraupena aldakorra izango da kasu bakoitzean egin beharreko zereginen arabera.
- Idazkaritza teknikoa: EEP 2020ren aurrerapen mailaren jarraipen, koordinazio eta ebaluazio lanak egiten laguntzeko idazkaritza tekniko bat eratuko da.

d) Ekintzailearen arloko eragileek parte hartzea (foro publiko-pribatuak)

Planaren ezaugarri nagusietakoa bere izaera irekia da. EAEn ekintzailetza babestearen inguruko eragile publiko eta pribatu nagusiekin izandako elkarrizketa bileretan, Erakundearteko Mahaiaren borondatea helarazi da eragile bakoitzaren ekarpenak kontuan hartzeko, lanketan eta inplementazioan zehar EEP 2020 aberasteko.

Ildo horretan EEP 2020k **Planean parte hartzeko** eta Planaren eta euskal ekintzailetzaren egoeraren **jarraipena egiteko aldizkako foroak** bultzatuko ditu, eragile guztiekin harreman indibidualak izateaz gain. EGASek gidatuta, foro horiek zabalik egongo dira euskal ekintzailetzaren eragile politiko, ekonomiko, akademiko eta sozial nagusiek parte hartzeko. Lehenengo deialdia 2018an zehar egitea planteatzen da.

## 5.3. Jarraipen eta ebaluazio sistema

EEP 2020k, erraztasun eta praktikotasun irizpideei jarraituz, urtero ebaluazioa egiteko, kontuak jendaurrean aurkezteko eta lehentasunak berrikusteko sistematika bat planteatzen du:

Planaren aurrerapenaren ebaluazioa

- Urtearen lehen lauhilekoan, amaitutako urtean martxan jarritako ekintzen gauzapen maila, jarduera maila eta eragina ebaluatzeko lan bat egingo da.
- Ebaluazio hori EGASek eta SPRIk egingo dute, Planean parte hartzen duten erakunde guztien lankidetzarekin. Erakundearteko Mahaiak, urteko lehen lauhilekoan egingo duen bileran, ebaluazio ariketa hori balidatuko du.
- Ebaluazioa bi tresna nagusitan oinarrituko da (aurrerago zehazten dira): urtero neurtutako adierazleen Aginte Panela, eta urteko Balantzearen Txostena, zeinak aipatu adierazleen neurketa jaso eta analizatuko duen.

Kontrastea eta kontuak jendaurrean ematea

- Gardentasunaren eta aldizka kontu emateko konpromisoaren parte gisa, urteko Balantzearen Txostena Eusko Legebiltzarrari igorriko zaio, Planaren aurrerapenaren jarraipena errazteko bide moduan. Halaber, Planaren urteko Balantzearen Txostena argitaratuko da.
- EGASek erantzungo die jaso daitezkeen kontsulta edo zuzenketei, Erakundearteko Mahaiarekin koordinatuta.

Lehentasunen berriskuspena

- Erakundearteko Mahaiaren azken bileraren baitan, eta Planean parte hartzen duten erakunde bakoitzaren aurrekontuen lanketarekin denboran bat eginda, EEP 2020ren ardatz bakoitzaren hurrengo urteari begirako lehentasunak berrikusiko dira, eta beharrezko izan daitezkeen Planaren doikuntzak erabakiko dira.

a) Aginte panela

**Jarraipen eta ebaluaziorako** sistema hori hedatu ahal izateko, Planak adierazleen aginte panel bat dauka, joan den legegintzaldia landu dena, Erakundearteko Mahaiko kide diren eragile instituzionaletako talde teknikoen ekarpenei esker, zehaztasun, erraztasun ea garrantziaren printzipioetan oinarrituta.

Adierazle horiek ESALek eta SPRIk kudeatuko dituzte, Planaren erakunde sustatzaileek neurtuko dituzte, urteko Balantzearen Txostenean analizatuko dira eta Erakundearteko Mahaiaren bileretan baloratuko dira.

Aginte panelak, zeina eranskinean jasotzen den azken urteetako neurketarekin, **hiru adierazle maila** ditu:

1. Gauzatzearen eta ahaleginaren adierazleak (2). Planaren betetze maila globalaren eta eskainitako baliabide ekonomikoen maila norainokoa den jakiteko aukera ematen dute.
2. Jardueraren adierazleak (21). Ekintzek zuzenean sortutako jarduera ezagutzera zuzenduak. Jardueraren adierazlerik esanguratsuenak hautatu dira eta, edonola ere, gaur egun existitzen diren adierazleak erabili dira.
3. Eraginaren adierazleak (14). Helburua da Planak azpimarratu nahi dituen ekintzailetza eremuen bilakaera ezagutzea da. Interes azterketa bat da, ekintza publiko-pribatuak berez inpaktu mugatua izango badu ere. Adierazle esanguratsuak hautatu dira, eta euskal inguruneko erakunde ezagunek neurtuko dituzte (Euskat, INE eta GEM).

b) Urteko Balantzearen Txostena

Txosten hori EEP 2020ren jarraipena egiteko bigarren tresna da, aginte panelaren osagarria. Planaren helburu, ardatz, proiektu eta ekintzen aurrerapen mailaren gaineko **ebaluazio ariketa partekatua** da, eta parte hartzen duten eragileek urtero egiten dute. Txostenean hauei buruzko aurrerapen maila zehazten da:

1. **Planaren ekarpenak**: Planaren ekarpen nagusien xehetasuna, bere jarduera ardatzak garatzearen ondorioz sortutako lorpen edo onura moduan ulertuta.
2. **Planaren azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa**: bertan sartutako proiektu eta ekintzen emaitza kualitatibo eta kuantitatibo nagusien azterketa:
    a. Azterketa kuantitatiboa, aipatutako adierazleen aginte panelean oinarrituta.
    b. Azterketa kualitatiboa, eragileek proiektu eta ekintza nabarmenetan,jarduera berrietan eta kendutako ekintzetan egindako lanari buruzko informazioa, edo lantaldeek landutako gaien aurrerapenaren gainekoa, azpimarratzen duena.

# Eranskinak

## A1. 2013-2016 EJLEPren ebaluazioa

2013-2016 aldirako Ekintzailetza Jarduera Babesteko Erakundearteko aurreko Planaren ebaluazioa egiteko ariketa honek erakusten du oso betetze maila altua dagoela helburu estrategikoetan, jardute ildoetan eta planteatutako 300 inguru ekintzetan, eta orain dela hiru hamarkada baino gehiago ekintzailetzaren alde epe luzera begira hasitako erakundearteko lanari jarraipena eta bultzada ematen dio.

Ondoren, Planean parte hartu duten eragileen multzoak ebaluaziorako egindako ariketa konpartitua aurkezten da. Balorazio global positibo batean oinarrituta, eragileek uste dute **EJLEPren ekarpen** nagusiak hauek direla:

1. Ekintzailetza sustatzen du, **EAEko ekonomia eta gizartea eraldatzeko tresna** baita.

2. Erakundearteko **konpromisoa eta borondatea** ikus daiteke, Plana guztien artean egin, garatu eta ebaluatzerakoan, izan ere, euskal administrazioen arteko elkarlanaren adibide ona da**.**

3. Jarduera ekintzailearen eta euskal ekintzailetzaren ekosistemaren arteko **aldizkako diagnostiko konparatua**, eragileek elkarrekin egindako lanari esker garatua.

4. Planaren **lehentasunak planifikatzeko eta zehazteko esparru** estrategiko komuna.

5. Planean parte hartu duten eragileen **aurrekontuen ahalegin partekatua**.

**2013-2016 EJLEPren aurrekontuen bilakaera jardute esparruen arabera**

| Jardute eremua | 2013an onartutako aurrekontua | 2014an onartutako aurrekontua | 2015ean onartutako aurrekontua | 2016an onartutako aurrekontua |
|---|---|---|---|---|
| 1. EKINTZAILETZAKO IDEIA ETA EGITASMO BERRIAK | 13.460.565 € | 13.051.373 € | 11.340.113 € | 11.375.550 € |
| 2. HAZKUNDEA, SENDOTZEA ETA TRANSMISIOA | 26.342.533 € | 38.426.231 € | 35.920.356 € | 35.998.880 € |
| 3. EKINTZAILETZAREN KULTURA ETA BALIOAK | 1.509.029 € | 2.852.737 € | 1.991.728 € | 2.787.400 € |
| 4. EKINTZAILETZA KORPORATIBOA | 2.105.519 € | 3.452.712 € | 3.081.524 € | 3.473.460 € |
| 5. LAGUNTZA EKOSISTEMAREN INTEGRAZIOA | 17.477.562 € | 10.319.249 € | 16.299.734 € | 16.614.130 € |
| | 60.895.208 € | 68.102.302 € | 68.633.455 € | 70.239.420 € |

6. Lehenengo aldiz, Erakundearteko planak **ekintzailetzaren ikuspegi integrala** bateratzen du EAEko ekintzailetzaren eremuan, eta baita administrazioen baterako lana eta ikasketa partekatua ere.

7. B**arne ekintzailetzaren aldeko apustu bereizlea,** enpresa sarearekin eta EAEn dauden gaitasunekin bat datorrena, proiektu ekintzaile berrien, jarduera ekonomikoaren eta kalitatezko enpleguaren garapenerako benetako eragilea baita.

8. **Jarraipen eta ebaluazio** etengaberako **mekanismo komun** baten definizioa.

- Efizientzia eta pragmatismo irizpideei jarraituz, eragile parte hartzaileek egiazki neurtuko dutela segurtatzeko, urtero Adierazleen Talde Teknikoak definitutako adierazleak neurtu dira.




- Aurreko Planaren bost jarduera esparruetako bakoitzerako, hiru tipologietako neurketa adierazleak definitu ziren: Gauzatzearen, jardueraren eta eraginaren adierazleak. Gauzatzearen adierazleak Planean aurreikusitako ekintza kopuru totalari eta jarritako aurreko globalari erreparatzen zioten (zifra horiek eman dira dagoeneko), eta ondoren jardueraren eta eraginaren adierazleen neurketaren panela erakusten da.

| JARDUERA adierazleak | | 2013ko neurketa | 2014ko neurketa | 2015eko neurketa |
|---|---|---|---|---|
| 1. jardute ardatza | Eragile publikoen bidez egindako kontsulta kopurua | 8.330 | 8.141 | 8.069 |
| | Eragile publikoen bidez prestatutako pertsona kopurua, generoaren arabera | 3.714 (2.228 emakume eta 1.486 gizon) | 3.377 (1.580 emakume eta 1.797 gizon) | 3.402 (1.712 emakume eta 1.680 gizon) |
| | Eragile publikoen aholkularitza izan duten proiektuen kopurua | 4.224 | 4.404 | 4.048 |
| | Eragile publikoen laguntzarekin landutako bideragarritasun planen kopurua | 2.836 | 3.010 | 2.867 |
| | Dekretuen laguntzaz sortutako enpresa kopurua | 2.500 | 2.639 | 2.947 |
| 2. jardute ardatza | Hazkundeari eta lehiakortasunari laguntzeko jarduketen kopurua | 26 | 28 | 33 |
| | Enpresa transmisioari laguntzeko jarduketen kopurua | 4 | 4 | 4 |
| | Enpresa arteko lankidetza dinamiken kopurua | 44 | 44 | 132 |
| 3. jardute ardatza | Ekintzailetza programaren batean parte hartzen duten zentroen kopurua, hezkuntza etapen arabera | 796 zentro | 808 zentro | 820 zentro |
| | Ekintzailetza programetan parte hartzen duten irakasleen kopurua, zentro motaren arabera (oinarrizko hezkuntza, batxilergoa, lanbide heziketa eta unibertsitatea) eta generoaren arabera | 26.758 irakasle (14.206 emakume eta 12.552 gizon) | 26.849 irakasle (14.263 emakume eta 12.586 gizon) | 26.898 irakasle (14.293 emakume eta 12.605 gizon) |
| | Ekintzailetza programaren batean parte hartzen duten ikasleen kopurua, zentro motaren arabera (oinarrizko hezkuntza, batxilergoa, lanbide heziketa eta unibertsitatea) eta generoaren arabera | 309.777 ikasle (146.168 emakume eta 163.609 gizon) | 314.674 ikasle (148.505 emakume eta 166.169 gizon) | 319.906 ikasle (151.529 emakume eta 168.377 gizon) |
| | Eusko Jaurlaritzak edo foru aldundiek finantzatutako ekintzailetza sarien bidez mobilizatutako proiektuen kopurua | 383 | 328 | 372 |
| | Eusko Jaurlaritzak edo foru aldundiek enpresa espiritua errekonozitzeko finantzatzen dituzten sarien kopurua | 15 | 15 | 21 |
| 4. jardute ardatza | Barne-ekintzailetza programetan parte hartzen duten enpresen kopurua | 50 | 47 | 48 |
| | Enpresek barne-ekintzailetza programetan inbertitutako euroak | 5.484.930 | 5.386.272 | 6.705.445 |
| 5. jardute ardatza | Ekintzailetza jarduerari Laguntzeko Erakundearteko Planaren esparruan egindako erakundearteko bileren kopurua | 2 | 45 | 10 |
| | Erakundearteko jarduketa publikoen kopurua | 19 | 19 | 19 |
| | Enpresa batek Espainian modu indibidualean alta hartzeko behar dituen egunak (Munduko Bankua) | 23 | 13 | 14 |
| | Urtebete lehenago, aholkularitza jaso ondoren, sortutako enpresen kopurua, eta sortu eta urtebetera bizirik irauten duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereiziz | Enpresak: %86,3<br>Autonomoak: %90,1 | Enpresak: %89,7<br>Autonomoak: %84,5 | Enpresak: %91,6<br>Autonomoak: %83,8 |
| | 3 urte lehenago, aholkularitza jaso ondoren, sortutako enpresen kopurua, eta sortu eta 3 urtera bizirik irauten duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereiziz. | Enpresak: %86,7<br>Autonomoak: %73,4 | Enpresak: %84,7<br>Autonomoak: %74,3 | Enpresak: %86,6<br>Autonomoak: %79 |
| | Enpresa sendotuen jabe diren biztanleen % (soldaten ordainketa 42 hilabete baino gehiagoan) (GEM) | %7,9 | %8 | %7,1 |

| INPAKTU adierazleak | | 2013ko neurketa | 2014ko neurketa | 2015eko neurketa |
|---|---|---|---|---|
| 1. jardute ardatza | Ekintzaile tasa totala, generoaren arabera (GEM) | Guztira: %3 (Emakumeak: %2,6; gizonak: %3,3) | Guztira: %3,7 (Emakumeak: %2,7; gizonak: %4,6) | Guztira: %3,4 (Emakumeak: %3,1; gizonak: %3,6) |
| | Oportunitateak eta premiak motibatutako proiektu ekintzaileen % (GEM) | Oportunitatea: %74,1<br>Premia: %5,9 | Oportunitatea: %65,6<br>Premia: %30,7<br>Beste batzuk: %3,6 | Oportunitatea: %73,1<br>Premia: %25,4<br>Beste batzuk: %1,5 |
| | EAEko autonomoen alta kopuruaren (Gizarte Segurantza) eboluzioa (aurreko urtearekiko %) | %17,3 | %11,6 | -%3,8 |
| | EAEn sortutako merkataritza enpresen kopuruaren (anonimoak eta mugatuak) eboluzioa (aurreko urtearekiko %) (INE) | %6,7 | %7,5 | -%8,9 |
| 2. jardute ardatza | 5 enplegatu baino gehiagoko negozio ekintzaileen % (GEM) | %7,1 | %6,2 | - |
| | Dauzkaten bezero guztientzat edo batzuentzat berria den produktu edo zerbitzu bat eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM) | %30,5 | %28,6 | %28,3 |
| | Lehiakiderik batere ez edo lehiakide gutxi dauzkaten negozio ekintzaileen % (GEM) | %40,5 | %48,3 | %40,3 |
| | Ekintzaileak berak jartzen duen hazi kapitalaren % (GEM) | %76 | %53,3 | %64,2 |
| | Orientazio internazionala daukaten enpresen % (GEM) | %13 | %21,6 | %25,5 |
| 3. jardute ardatza | Hurrengo 6 hiletan ekintzailetzarako aukerak hautematen dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM) | %13,7 (Emakumeak: %12,9; gizonak: %14,5) | %22,2 (Emakumeak: %20,5; gizonak: %24) | %25,2 (Emakumeak: %23,7; gizonak: %26,6) |
| | Proiektu ekintzaile bat martxan jartzeko behar diren trebetasunak eduki uste dituzten pertsonen %, generoaren arabera (GEM) | %43,2 | %44 | %40,5 |
| | Porrot egiteko beldurra, ekintzailetzarako eragozpentzat jotzen duten pertsonen kopurua, generoaren arabera (GEM) | %50,2 (Emakumeak: %53,8; gizonak: %47,9) | %45,4 (Emakumeak: %49,5; gizonak: %43,6) | %42,7 (2015eko GEMen neurtu gabeko banakapena) |
| 4. jardute ardatza | Azken hiru urteetan barne-ekintzailetzako jardueraren bat egin duten enplegatuen %, generoaren arabera (GEM) | %2,7 | %1,8 | %1,4 |
| | Barne-ekintzailetzako proiekturen batean parte hartzen duten enplegatuen %, generoaren arabera (GEM) | %4,9 | 2014ko GEMen neurtu gabeko datua | 2015eko GEMen neurtu gabeko datua |

*2016ko maiatzean, EJLEPren Betetze Mailari buruzko Balantzearen Txostena argitaratu zenean, EAEko 2015 GEMeko datuak ez zeuden eskuragarri eta, ondorioz, Plan honetarako eguneratu dira.*

9. **Euskal Ekintzailetza Sistemaren etengabeko sofistikazioa**, eragileen ahalegin partekatuari eta ekosistemaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeari esker.

10. **Ekintzailetza** eta bere balioen **hedapena eta horiei buruzko sentsibilizazio etengabea indartzea**, hainbat baliabide (esaterako, UP Euskadi bloga edo eragile bakoitzaren kanal espezifikoak) eta materialen bidez (Planaren dokumentua bera, urteroko jarraipen txostenak eta ekintzaile talde bakoitzarentzako era askotako material espezifikoak), eta baita ekitaldi eta jardunaldien bidez ere.

# A2. Testuinguru instituzionala eta normatiboa: euskal testuinguruko plan eta araudien xehetasuna

## Garapen Iraunkorrerako NBEren Agenda 2030

Agenda 2030 egitasmoaren xedea da **munduko bakea indartzea** eta **pobrezia errotik desagerrarazteko** erronkari aurre egitea, **garapen iraunkorra** bermatzeko ezinbesteko baldintza moduan.

Horretarako, **Garapen Iraunkorreko 17 Helburu** zehaztu ditu **(GIH)**, garapen iraunkorraren hiru dimentsioak uztartzen dituztenak: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

**Nazio Batuen garapen iraunkorraren helburuak**




*Iturria: Nazio Batuak*

Zehazki, jarduera ekintzailea garatzeko esparruaren barruan garapen iraunkorreko helburu hauek jasotzen dira, besteak beste:

- <u>4 helburua.</u> **Kalitatezko heziketa inklusiboa eta bidezkoa** bermatzea eta ikaskuntza etengaberako aukerak sustatzea denentzat.
    - 4.4. helmuga. Hemendik 2030era, enplegu, irakaslan eta ekintzailetzan sartzeko behar besteko konpetentziak dituzten pertsona gazte zein helduen kopurua nabarmen handitzea, bereziki konpetentzia teknikoei eta profesionalei dagokienez.
- <u>5 helburua</u>. Emakume eta neskatila guztientzako **genero berdintasuna** lortzea eta ahalduntzea
    - 5.c. helmuga. Politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea emakume eta neskatila guztientzat eta mailan guztietan genero berdintasuna sustatzeko eta ahalduntzeko.
- <u>8 helburua</u>. Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, erabateko enplegua eta enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea denentzat.
    - 8.3. helmuga. Garapenera zuzendutako politikak sustatzea, laguntzeko jarduera produktiboetan, lanpostu duinak sortzen, ekintzailetzan, sormenean eta berrikuntzan, eta mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundea sustatzea, baita finantza zerbitzuak eskuratzen laguntzea ere.

## Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren (EGAS) 2020rako Estrategia

Legegintzaldi honetarako EGASen estrategiaren lehentasun estrategikoetako bat ekintzaletzaren babesa da. Bi helburu planteatzen dira: ideia berritzaileak kalitatezko enplegua sortuko duten produktu eta zerbitzu bihurtzea, eta Euskadi 4.0 Industriaren arloan egitasmo berriak garatzeko erreferentzia eta erakarmena izan dadin lortzea, hainbat lan ildo eta egitasmoren bitartez:

- Ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea, eta ekintzailetza gizartean aitortzea (pertsona ekintzaileak-enpresariak).
- Industria-berrikuntza-telnologiako ekintzailetzaren eta barne ekintzailetzaren aldeko apustua indartzea.
- Ekintzailetzaren euskal ekosistema bultzatzea, gaur egungo tresnak indartuz (Ekintzaile, Basque Funtsa, BIND 4.0…) eta tresna berriak diseinatuz.
- Ekintzailetza babesteko formula berriak esploratzea: fondo publiko-pribatuak, fiskalitatea, izapide administratiboak…
- BICen irudi berria finkatzea eta ZTBESeko eragileekin duten harremana bultzatzea, baita ekintzailetza babesteko eragile pribatuekin dutena ere.
- Euskadi nazioartean ekintzailetza industrial-teknologikoaren ekosistema erakargarri moduan posizionatzea.

Azkenik, Sailak Agenda Digitalaren estrategiaren aldeko apustua planteatzen du, balio erantsi handiko produktu eta zerbitzu berriak sortzeko, besteak beste, euskal industriaren manufakturatik harantzago; programa espezifikoen definizioa landa ingurune eta itsasertzaren sustapen ekonomiko, prestakuntza eta ekintzailetzarako.

**<u>Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2020 Plana</u>**

2010-2015 aldirako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari jarraipena emanez, 2014ko amaieran, Europako Horizon 2020 esparruarekin bat eginda, 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikunzta Plana onartu zen. Helburu nagusia da "euskal gizartearen ongizatea, ekonomiaren hazkunde iraunkorra eta enplegua hobetzea, ikerketa eta berrikuntzarako politika baten bitartez, espezializazio adimentsua eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistemaren efizientzia oinarri hartuta". Azken helburu horrekin, Planak hainbat lan ildo proposatzen ditu ekintzailetzari dagokionez:

- I+G+Ban atzerriko enpresen inbertsioak erakartzea, pertsona ekintzaileak eta enpresa teknologiko berriak bultzatzeko ekintzak hobetuz, arrisku kapitaleko funtsak erakarriz eta nazioarteko business angels erakarriz, besteak beste.
- Ingurune erakargarri eta estimulatzailea sortzea, pertsonen motibazioa eta euren gaitasunen erabateko garapena errazteko, eta teknikoak ez diren adlerdiak ere sustatzea, hala nola kultura ekintzailea eta espiritu sortzailea.
- Gizarte lankidetza eta ekintzailetzari lotutako egitasmoak babestea, berritzaileak izan daitezkeen eragileak detektatuz eta euskal gizartearen erronkei aurre egitea ahalbidetuko duten proiektuak babestuz.
- Planean definitutako ekintzen jarraipena egiteko lankidetzazko sistema bat bultzatzea, "Ekintzailetza Aurkitzeko Espazioen" bitartez, Euskadiko zientzia, teknologia eta berrikuntzako lehentasunetan sakontzeko.

**<u>Landa Garapeneko Programa 2015-2020</u>**

2015ean argitaratua, LGPk hainbat neurri ditu landa inguruneetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen eragin zuzena dutenak, batez ere gazteen artean, eta finantza tresnak antolatzea aurreikusten du, finantza merkatuan sartzen eta laguntzeko eta EAEko landa ingurune guztien garapen iraunkorra bermatzeko, arreta berezia jarriz gazteengan Landa garapeneko laguntzak Europako Landa Garapeneko Nekazaritza Funtsaren bitartez bideratzen dira (FEADER).

LGPk, besteak beste, ekintzailetzaren arloari nabarmen eragiten dioten neurri hauek hartzen ditu kontuan: gazteentzako arreta, LEADER programa (Start up), prestakuntza eta elkartrukeak eta hurbilpena nekazaritzaren sektorera eta, hein txikiago batean, lankidetza proiektuak, edo inbertsioetarako proiektuak nekazaritzako elikagaietako edo egurra eraldatzeko enpresetan.

## Invest in the Basque Country Estrategia

Invest in the Basque Country estrategia 2013an onartu zen, Euskadiren posizioa hobetzeko atzerriko zuzeneko inbertsioa erakartzeko erreferentziazko lurralde moduan, enplegua eta aberastasuna sortu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta SPRIk bultzatuta, 2014-2016 aldian, atzerritik 41 proiektu erakartzea lortu du eta ia mila enplegu sortzea Euskadin, eta bere helburuen artean ekintzailetza teknologikoko proiektuak erakartzea dago.

## Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Enpleguaren Euskal Estrategia

2016ko uztailean argitaratua, 2020ko Enpleguaren Euskal Estrategia bat dator Europar Batzordearen 2020 Europa estrategiarekin, eta hazkunderako eta enplegurako helburuak eta jarduera ildoak aurkezten ditu.

Euskal Estrategiak ekintzailetza sustatu nahi du, enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei lagundu, gazteen enplegua bultzatu eta emakumeak jarduera ekonomikoan eta lanekoan sartzea. Ekintzailetzari dagokionez, egitasmo hauek planteatzen ditu:

- Aukerak sortzea espiritu enpresariala eta ekintzailea garatuz eta bere balioa agerian jarriz, eta ekimen ekintzaileak modu integralean babestuz.
- Bertako talentua atxikitzea pizgarri bereziak eskainiz talentu ekintzailea itzultzeko, eta batez ere gizarteari nazioartean arrakastaz esperimentatzen ari diren produktu eta zerbitzu berriak ematen dizkioten proiektu berritzaileak babestuz.
- Nazioarteko talentua modu selektiboan eta adimentsuan erakartzea, arreta berezia jarriz “balio handiko talentuen nitxoei”, esaterako, talentu ekintzaileari.
- Hezkuntzako curriculumean zeharkako eta sormenezko gaitasunak indartzea, espiritu ekintzailea bultzatzeko ekintzak garatuz.
- Programa espezifikoak garatzea, ekintzaileei eta I+G alorrean ibilbide profesionala garatzeko interesa duten pertsonei zuzenduta, nazioarteko bere esperientziatik hasita ezagutza berrietarako “trakzio lana” egin dezaten.

## Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko 2020ko Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia

Euskal osasun sistema “eragile ikertzailea eta berritzailea ez ezik, produktu, prozesu eta zerbitzu berrien sustatzaile, balidatzaile, agintzaile, erosle eta erabiltzailea ere” badenez, bere 2020ko Osasun arloko Ikerketa Berrikuntza Estrategian I+G+Bko jardueren eragina handitzearen alde egiten du, herritarren osasuna hobetzeko eta aberastasuna sortzen laguntzeko, arreta berezia jarriz oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien rolari. Gaiari lotutako hainbat lan ildo dira:

- Euskadiko Espezializazio Adimendunerako RIS3 Estrategiako aurkikuntza ekintzailearen prozesua gidatzea biozientziak-osasuna bikotean, eta dagokion pilotaje taldea koordinatzea.
- Bere helburu estrategikoak betetzeko, osasun sistemako profesional oso kualifikatuak, berritzaileak eta ekintzaileak babestea eta kapitalizatzea.

## Hezkuntza Sailaren Heziberri 2020 Plana

Europaren esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako ildo estrategikoei jarraituz, HEziberri Planaren helburua euskal hezkuntza sistema hobetzea da. Hobekuntza Plan osoaren ezaugarri komuna da euskal sistemaren ekitatean eta kalitatean aurrera egitea bikaintasunerantz, hainbat ildo estrategikorekin, horien artean hezkuntza komunitatearen prestakuntza hainbat gairi buruz:

ekintzailetzarako heziketa, eleaniztasuna, ikaskuntza digitala, koheziketa, bikaintasunerako berrikuntza, heziketa zientifikoa edo teknologikoa, besteak beste.

Heziberri Plana hiru egitasmok osatzen dute:

- 1. egitasmoa: hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa, 2014an amaitua.
- 2. egitasmoa: EAEko zurriculum dekretuak, 2015ean amaitua.
- 3. egitasmoa: Euskal hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak egitea. Legegintzaldi honetarako proiektua da.

**Euskadiko Hezkuntza Sisteman oinarrizko konpetentziak arautzen dituen 2015eko Dekretua**

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen 175/2007 Dekretuan sartutako funtsezko aldaketen ondoren, 2015eko abenduan beste dekretu bat onartu zen, Euskadin hezkuntza sistemak lortutako hezkuntza mailari eusteko eta hezkuntza helburu berrietarantz bultzatzeko.

Aldaketa horren nobedadea da hezkuntzaren hainbat maila eta esparrutan ekintzailetza sartzen dela:

- Oinarrizko zehar konpetentziak: "ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia" sartzen da, definizio honekin: "ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen".
- Ekintzailetza hautazko ikasgai moduan sartzen da, bigarren hezkuntzan.
- Irakasleen prestakuntza eta ebaluazioa: zehazki, prozedurak eta jarrerak landu behar dira, ikasleek pentsatzen eta ikasten ikas dezaten, komunikatzen, besteekin bizitzen, bera izaten eta, azkenik egiten eta ekiten ikas dezaten.

**Eusko Jaurlaritzaren 2015-2018 Unibertsitate Plana**

2011-2014 Unibertsitate Planari jarraipena emanez, 2015eko plan berriak oinarri berberak ditu: prestakuntza, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia, eta hezkuntzaren inklusioa, efizientzia eta kalitatea.

Planaren helburu estrategikoen artean daude "euskal gizartearen goi mailako prestakuntza beharrei erantzutea, irakaskuntza eredu eta metodologia berritzaileen bidez" eta "ekintzailetzari lotutako balioetan sentsibilizatzearen bidez", eta "euskal gizartearen ekonomia eta gizarte erronkei segurtasunez laguntzea, ezagutzak transferituz" Lotutako lan ildoetako batzuk dira:

- Ekintzailetza eta laneratzea bultzatzea.
- Ikerketaren emaitzen balorizazioa, enpresen sorkuntza, ekintzailetzaren kultura eta gizarte ingurunerako transferentzia sustatzea.

**Eusko Jaurlaritzaren 2015ko Lanbide Heziketaren Legea**

2015eko abenduan aurkeztu zen Lanbide Heziketaren Lege berriak euskal sarearen beharretara hobeto egokitutako Lanbide Heziketa bat diseinatzearen alde egiten du, berrikuntza aplikatua eta ekintzailetza aktiboa sustatuz.

Zehazki, Legeak aldarrikatzen du "ikasleek sormenezko zein kontzeptuzko gaitasun eta trebetasun berriak gara ditzaten bultzatuko da, zeintzuk ekintzailetzaren kultura sustatzera zuzenduta egongo baitira, eta jarduera erreal baten arabera finkatutako esperientzia praktikoetan oinarrituta antolatuko baitira". Helburu horiek, etorkizunera begira, honela zehazten dira:

- Irakasle guztientzat ekintzailetza eta enpresa kudeaketari buruzko prestakuntza eskaintza bermatzea, dauden hezkuntza etapa eta ematen duten ikasgaia gorabehera.
- Ekintzailetzaren lanketa integratuan sakontzea, hezkuntzako etapa guztietan.

- Enpresariak ekintzailetza programetan sartzeko formula ausartak bilatzea.
- Programak elkarrekin diseinatzea sustatzea.
- Ekintzailetzari eta antzeko gaiei buruz ikertzeko beharrak identifikatzea, eta ekosistema ekintzaile guztia elikatuko duten proiektuak garatzea.

**Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua ekonomia suspertzeko eta kalitatezko enplegua sustatzeko**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia Goazen 2030 Estrategiaren esparruan, Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailak ikuspegi bat aurkeztu du 2015-2019 aldirako, zeinean ekonomia eta enplegua sortuko duen Bizkaiaren alde egiten baitu. Horretarako, ekintzailetza bere alderdi guztietan babestea planteatzen du, Bizkaian ekintzailetzaren kultura sustatuz eta ekimen ekintzaileei balio erantsi handiko zerbitzuak eta laguntzak eskainiz. "Ekin eta hazi” ardatz estrategikoaren barruan, beste egitasmo batzuen artean planteatzen du:

- Enplegu kualifikatua eta kalitatezkoa sortuko duten enpresa berritzaileen alde egiten du –startupak–, bokazio globalarekin beraien sorreratik, nazioarteko erreferentziazko nodoetan azkar hazteko aukerarekin, horiekin harreman iraunkorra ezarri ahal izateko.
- Startupak finantzatzeko aukera zabala eskaintzearen alde egiten du: Dauden arrisku kapitaleko funtsak indartzea mikrofinantzaketaren, crowdfundingaren eta nazioarteko finantzaketaren bitartez.
- Emakumeak buru dituen ekintzailetzaren bultzada irmo eta proaktiboa.
- Hezkuntza ingurune, unibertsitate eta erakunde teknologikoetan ekintzailetza eta ekintzailetzaren kulturaren sustapena indartzea, lanbide heziketa eta enpresa traktoreak ere inplikatuz, arreta berezia jarriz gazteengan.
- Ekintzailetza eta gizarte berrikuntza sustatzeko tresnak.
- Kanpoan talentu ekintzailea hauteman eta erakartzeko ahalegin intentsiboa eta proaktiboa, eta arrisku kapitaleko funtsak eta nazioarteko business angels erakartzeko.
- Lurraldeko enpresa txiki eta ertainak hazteko programak, enpresen barruko lankidetza sustatuz.

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2016-2020 Ekonomia Suspertzen Laguntzeko Plana**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekaren Departamentua 2015-2019 legegintzaldirako bere ikuspegi aurkeztu du, eta horren apustua da “enpresa eta enplegu gehiago eta hobeak sortzea, bereziki Gipuzkoaren etorkizunerako sektore estrategikoetan”. Xede horrekin, 2016-2020 Gipuzkoako Ekonomia Suspertzen Laguntzeko Planaren apustua da Gipuzkoa sortzaile eta ekintzaile batean jarduera ekonomiko berria sortzen laguntzea. Horrenbestez, proiektu berritzaile eta bideragarriei ekitearen alde egiten duenek sendotzea eta haztea ahalbidetuko dieten babesak eta erraztasunak izango dituela segurtatu nahi du.

Helburu estrategiko hori garatuz, hainbat jarduera ildo planteatzen dituzte:

- Laguntza (finantzaketa, azpiegiturak, prestakuntza edo diru laguntza, besteak beste) espezializazio adimendunera (RIS3) zuzendutako eta oinarri teknologikoko enpresak sortu eta martxan jartzeko, Lurralde Historikoaren lehentasunei (elektro mugikortasuna eta biltegiratzea, biozientziak, 4.0 industria eta nekazaritzako elikagaien industria) eta oro har jarduera ekonomiko berriari erreparatuz.
- Enpresa barruko barne ekintzaileren jarduera babestea, izaera berritzaile edo teknologiko industrial edo horiei loturiko zerbitzuak egingo dituzten enpresa proiektu berrien sorrera sustatzeko.
- Eta iraganean Gipuzkoaren ezaugarria izan den mentalitate ekintzailea berraktibatzera zuzendutako beste neurri batzuk, ekimena, konpromisoa, arriskua edo autonomia bezalako balioa berreskuratuz, eta enpresari ekintzailearen rola erreibindikatzea, aberastasun eta ongizatea sortzeko protagonista moduan.

**Arabako Foru Aldundiaren markoa ekintzailetza jarduera babesteko**

Arabako Foru Aldundiaren 2015-2019 legegintzaldirako Plan Estrategikoaren barruan, Ekonomiaren Garapen eta Lurralde Orekaren Sailak hau aurkeztu du lehentasunezko jarduera esparru moduan: “suspertze ekonomikoa, industria bultzatuz eta enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortuz”. Horretarako, apustu irmoa da “ekintzailetza jarduera gehiago garatzea, konbentziturik enpresa berriak direla, bereziki profil berritzailea dutenak, Lurraldean enplegua eta aberastasuna sortzeko funtsezko oinarrietakoa”. Ildo horretan, hainbat neurri eta programa planteatu dituzte, hala nola:

- Babes ekonomikoa ematea sortu berri diren eta izaera berritzaile eta teknologikoa duten enpresa proiektuei, balio erantsi eta hazkunde gaitasun altua duten horiei bereziki erreparatuta. Babes hori Arabako lurralde osora hedatu nahi da.
- Gainera, enpresa espiritua indartu nahi da, bai eta egungo enpresak ekintzaile berriengana hurbiltzeko tresnak ere.
- Ekintzaile Araban programa eta Araba Ekintzaile Programa garatzea.
- BIC Arabaren (lehen CEIA) funtzionamendua babestea.
- Hazibide funtsa sustatu eta berrikustea eta Basque Fondo Arabarekin lankidetzan aritzea.
- Araba-Ekintzailetzako Merkataritza eta Industria Ganberarekin, Ajebaskekin eta Ampearekin hitzarmenak sinatzea.
- Ekintzailetzaren erakundearteko mahaia Lurraldean hedatzea.

# A3. Ekintzailetzaren erreferentziazko nazioarteko praktikak: xehetasuna

Praktiken azterketa errazteko, praktikak 2013-2016 aldirako Ekintzailetza Jarduera Babesteko Erakundearteko aurreko Planean definitutako bost jardute esparruetan sailkatu dira, eta kasu bakoitzean kolektibo hartzailea identifikatu da.

## Ekintzailetzaren kultura eta balioak

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***Enternships.com; Founders4Schools***<br><br>Enpresak praktiketan dauden persronekin eta pertsona ekintzaile potentzialekin konektatzeko plataforma pribatuak | EUROPA | *Enternships.com*-ek 5.500 enpresari baino gehiagori lagundu die ekintzailetzako praktikak egiteko talentua bilatzen.<br><br>*Founders4Schools*-ek ekintzaileak eta kasu arrakastatsuen bitartez talentua inspiratzen duten irakasleak konektatzen ditu. 2011-2012an 2.500 ikasle lortu zituen programa pilotu batean. | ❖ Irakaskuntza orokorra<br>❖ Unibertsitatea (ikasleak eta irakasleak)<br>❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria |
| ***Junior Achievement Young Enterprise Europe; The European Forum for Entrepreneurship Research (EFER)***<br><br>Eragile pribatuak eskolekin eta unibertsitateekin lotzen dituzten plataforma publiko-pribatuak, hezkuntza programak konfiguratzeko, proiektuak garatzeko edo ekitaldiak antolatzeko, ikasleak kasu arrakastatsuekin inspiratzeko. | EUROPA | *Junior Achievement Young Enterprise Europe* Europako ekintzailetza programen hornitzailerik handiena da. 2012an 3,1 milioi ikasle hartu zituen.<br><br>Enpresa Ikerketarako Europako Foroak (EFER) 472 irakasle ditu ekintzailetzan prestatuta, ekitaldiak antolatzen ditu eta, 1987an sortu zenetik, ekintzaileri buruz argitaratzen du erregulartasunez. | ❖ Irakaskuntza orokorra<br>❖ Unibertsitatea (ikasleak eta irakasleak)<br>❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria |
| ***European Young Innovators Forum (EYIF)***<br><br>Behetik goranzko ikuspegia duten sareak (bottom-up), behetik goranzko politikak ezartzeko laguntza ematen duten pertsona ekintzaileekin | EUROPA | Europako Gazte Ekintzaileen Foroa (EYIF) ekosistema berritzaileak eraikitzen ari da Europan, europar gazteak bultzatuz berrikuntzan eta ekintzailetzan arriskuak har ditzaten, eta gobernuak, enpresak, gizartea eta norbanakoak animatuz arriskuak hartu izana babesteko eta saritzeko, marko politiko baten bitartez eta mentore, finantzaketa eta merkatuetarako sarbidea emanez. EYIF berehala bihurtu da Europako gazteen ekintzailetzarako fundazio lider, eta 500.000 parte hartzaile ditu. | ❖ Ekosistemaren hartzaile guztiak. |
| ***The Entrepreneurship and Innovation Programme***<br><br>Ekintzailetza programak | EUROPA | Ekintzailetza eta Berrikuntza Programa Lehiakortasun eta Berrikuntza Programan (CIP) sartuta dago, eta 2,17 milioi euroko aurrekontua izan du 2007-2013 aldirako. Lorpenen artean daude unibertsitateekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin egindako proiektu ugari ekintzailetzari buruzko heziketa hobetzeko, Europako enpresa txiki eta ertainen astea, eta 1.562 ekitaldi Europan 2012an. | ❖ Irakaskuntza orokorra<br>❖ Unibertsitatea (ikasleak eta irakasleak)<br>❖ Pertsona ekintzailea |
| ***Office of Entrepreneurship Education (OEE)*** | AEB | *Young Entrepreneurs* webgune espezializatu bat da, nerabeei zuzendua, enpresa proiektu bati ekiteko material, aholku eta laguntzekin. | ❖ Irakaskuntza orokorra<br>❖ Pertsona ekintzailea |
| ***EXIST*** – Startup zientifiko eta akademikoak | ALEMANIA | Alemaniako Ekonomia eta Energiaren Ministerio Federalaren laguntza programa bat da, unibertsitate eta ikerketa institutuetan ekintzailetzaren ingurunea hobetzeko. Bere helburuen artean dago, baita ere, teknologian eta ezagutzan oinarritutako startupen kopurua eta arrakasta. | ❖ Enpresa ekintzailea |

## Ekintzailetzako ideia eta egitasmo berriak

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***Global Entrepreneurship Week***<br>Eskala handiko ekitaldien seriea ekintzailetza sustatzeko | EUROPA | Ekintzailetzaren Aste Globala ekintzailetza sustatzeko kanpainarik handiena da, eta etorkizuneko ekintzaile potentzialak inspiratzen eta konektatzen ditu. Gutxi gorabehera 35.000 ekitaldi egin dira 125 herrialdetan. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| **Irlandako Ekintzailetza Politika Nazionala**<br>Denek negozio bat hasteko eta zuzentzeko aukera berdinak izan dezaten segurtatzeko egitasmoa | IRLANDA | Babes Sozialeko Departamentuak sustatutako egitasmoa, startupei laguntzeko, *mentoring* edo mikrokredituen bitartez, besteak beste.<br>Bere helburuak dira laguntza programetan sartzen diren gazte ekintzaileen kopurua handitzea, ekintzailetza karrera profesionalaren aukera moduan aitortzea, eta emakumeen ekintzailetza sustatzea, rol femeninoen identifikazioaren eta sustapenaren bitartez, ekitaldi zehatzekin eta sariekin. | ❖ Segmentu espezifikoak |
| ***Forny2020*** | NORVEGIA | Gizartearentzako balioa eta onurak sortzen ditu, ikerketen emaitzen bitartez. Programak ikerketa institutu publikoek zuzendutako ikerketa proiektuen emaitzak komertzializatzen laguntzen du, produktuak eta zerbitzuak merkatura eramaten lagunduz. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***Futurpreneur*** | KANADA | Gobernuz kanpoko erakunde honek finantzaketa, *mentoring*-a eta laguntza ematen die 18 eta 39 urte bitarteko gazteei.<br>Programaren helburua da inpaktua eta emaitza demostragarriak dituzten pertsona ekintzaileei eta enpresa gazteei laguntzea. | ❖ Pertsona ekintzaileak - gazteak |
| ***Campus Party, Le Web and Pioneers***<br>Goitik beheranzko *bottom-up* sareak pertsona ekintzaileentzat | EUROPA | *Campus Party, Le Web eta Pioneers* nazioarteko konferentzia liderrak dira, non pertsona ekintzaileak ea talentua duten pertsonak elkartzen diren, eta ekintzailetza sustatzen dute, kontaktu sare zabal eta dinamiko baterako sarbidea eskainiz. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |

## Hazkundea, sendotzea eta transmisioa

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***TechFounders*** | ALEMANIA | *TechFounders* startupen azeleragailu bat da, industriari lotutako B2B proiektuetan zentratua. Berrikuntzaren alde egiten duten Alemaniako 6 enpresak osatutako talde batek finantzatzen du, eta formatu honetan bide bat aurkitu dute teknologia eta soluzio berriak aurkitzeko, euren produktuak eta fabrikazio prozesuak hobetu ahal izateko. Taldea BMW, Bosch, Siemens, Festo, HypoVereinsbank eta Munich RE enpresek osatzen dute.<br>Hautatutako startupak 25.000€-ko laguntza jasotzen dute (trukean inolako partaidetzarik gabe) eta 20 asteko programa bat, zeinean enpresa sustatzaileetako mentore eta aholkulari talde baten laguntza jasotzen duten, TechFounders osatzen duten pertsona taldearekin batera..<br>Startupek, lehenengo egunetik, zuzeneko harremana dute enpresekin, zeinak, era berean, beraien bezero potentzialak diren. Harreman horri esker, produktuak edo soluzioak zuzenean testatu ditzakete bezeroekin, hark dituen beharrak edo arazoak lehen eskutik ezagututa. Euren produktuak hazteko inbertsioa aurkitzeaz gain. Enpresa handiek, berriz, ideia freskoak jasotzen dituzte, produktu eta soluzio berritzaileak. | ❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***Future Fifty*** | ERRESUMA BATUA | Erresuma Batuko Enpresa Berrikuntzaren eta Trebetasunen Departamentuak sortutako erakundea da. Puntako eta hazkunde handiko enpresa teknologikoen sare bat da, bazkide pribatuekin aliantzak egiteko eta Erresuma Batuko Gobernuarekin harreman zuzena edukitzeko. | ❖ Enpresa berria |
| ***Upscale*** | ERRESUMA BATUA | Erresuma Batuko puntako eta hazkunde handiko enpresa teknologikoen sare bat da, hainbat erronka jakini aurre egiteko. Pertsona ekintzaile esperientziadunen aholkularitza, *mentoring*-a eta mintegiak eskaintzen zaizkie. | ❖ Enpresa berria |
| ***Start-up Europe; The European Digital Forum***<br>Interes taldeekiko aliantza marko arautzailea hobetzeko | EUROPA | Startup Europe 2013ko martxoan abiarazi zen, tokiko ekintzailetza eta ekosistema azeleratzeko eta konektatzeko. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***CONNECT*** | SAN DIEGO | *CONNECT* programa erregional bat da, San Diego eskualdean teknologia berritzailea eta proiektu zientifikoak sortzen laguntzeko, asmatzaileak eta ekintzaileak konektatuz eta giza baliabide, kapital eta teknologiarako irispidea emanez. Batez ere teknologia komertzializatzen eta natur zientzietan dihardu. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria |
| ***Startup Catalonia*** | KATALUNIA | Kataluniako startupen online katalogoa, dauden startupak mapeatu eta sailkatzeko eta ekintzailetzaren ekosistema sustatzeko. ACCIOk sustatzen du.<br>Startupak hainbat aldagairen arabera sailkatzen dira: sorrera urtea, sektorea, negozio eredua, sektore bezeroak, dimentsioa, duen finantzaketa etapa eta parte hartu duen finantzaketa erronden xehetasuna, jasotako laguntza publikoak, sariak eta errekonozimenduak, kokapena eta harremanetarako datuak, besteak beste. | ❖ Ekosistemaren hartzaile guztiak. |

## Barne ekintzailetza (edo ekintzailetza korporatiboa)

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***Intrapreneurship Global Conference*** | GLOBALA | Helburua da berritzaile korporatiboei laguntzea barne ekintzailetza martxan jartzen, mundu zabalean ekitaldiak antolatuz, eta euren enpresa barruan aurkitzen ez dituzten pertsona ekintzaile liderren multzoari edukia eta sarbidea emanez.<br>Barne ekintzailetzarako espazioak sortzen laguntzen du, eta gorantz doan esparru honetako ideia, pertsona eta historiarik onenak aurkitzen.<br>2.500 enpresa ekintzaileri baino gehiagori lagundu die. | ❖ Enpresa ekintzailea |
| ***IMP³rove Academy*** | EUROPA | *IMP³rove*-k barne ekintzailetzako esperientziak eskaintzen ditu (hau da, enpresa barruan pertsona ekintzaile moduan jardutea), enpresa txiki eta ertainei berrikuntza kudeatzen lagunduz, Europako Benchmarking datu base batean oinarrituta. 30 herrialdetako 3.500 enpresak baino gehiagok erabili dute IMP³rove. | ❖ Enpresa ekintzailea |
| ***Nexxt-change***<br>Enpresa ondoretza | ALEMANIA | Nazioarteko bilera dagoeneko existitzen den enpresa bat transferitu edo bere gain hartu nahi duten pertsona ekintzaileentzat.<br>800 aliatuk baino gehiagok broker moduan erosleen eta saltzaileen artean. | ❖ Pertsona ekintzailea |
| ***Applying Lean Startup Methods In The Public Sector*** | ERRESUMA BATUA | Gobernua ohartu zen herritarrei eskaintzen zizkien online zerbitzu gehienak zaharkituta zeudela eta ez zirela oso irisgarriak.<br>400 egunean bere zerbitzu nagusietako 25 eraldatzeko proiektu bat sortzea erabaki zuten, Agile and Lean Startup metodologia erabiliz herritarrei zuzenean zerbitzua ematen dieten sozietate eta enpresa publikoetan. | ❖ Enpresa (publikoa) ekintzailea |

## Laguntza ekosistemaren integrazioa (politikak, azpiegiturak eta finantzaketa)

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***STARTAU*** | ISRAEL | Israeleko ekintzailetza zentro handi eta aktiboenetakoa izanik, *Startau*-k enpresa proiektu berri bat sortzeko behar den ezagutza ematen die ekintzaileei eta ekintzailetzaren arloko ikasleei.<br>Bere laguntza hainbat sektore eta enpresa tipologiatara zuzentzen da, tartean egonik sektore bioteknologia, digitala, aplikazio mugikorrak, *low-tech* eta aplikazio medikoak, besteak beste.<br>Bere laguntza tresnen artean daude: workshopak, mintegiak, ikastaroak (3.500 ikasle baino gehiago), mentoringa (350 mentore baino gehiagoko datu basea), finantzaketarako irispidea (250 business angels eta arrisku kapitaleko funtsen datu basea),azpiegitura eta networkingerako aukerak. | ❖ Pertsona ekintzaileak<br>❖ Enpresa berria |
| ***The Small Business Charter*** | ERRESUMA BATUA | *The Small Business Charter* erakundeak lehen mailako negozio eskolak erakarri nahi ditu Erresuma Batura, baita startup eta ETE-en hazkundea sustatzera zuzendutako erakundeak eta instituzioak ere, eta bere helburu nagusia da jarduera ekonomikoa eta enplegua sortuko duten enpresa iraunkorrak bultzatzea. | ❖ Enpresa berria |
| ***Creative Quarter*** | ERRESUMA BATUA. Nottingham North | *The Creative Quarter* konpainiak gidatzen duen egitasmo publiko-pribatua, Nottigham Northeko startupei prestakuntza eta tresnak emateko, beraien hazkundea eta iraunkortasuna lurraldean bermatzeko, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea bultzatuz. | ❖ Pertsona ekintzailea<br>❖ Enpresa berria |
| ***ICO Global Funtsa*** | ESPAINIA | Espainian sortu den arrisku kapitaleko lehendabiziko "Funtsen Funtsa" da, eta gaur egun 1.500 milioi euroko hornidura du. Funtsak kudeaketa pribatuko arrisku kapitaleko funtsak sustatzea du helburu, enpresetan garapen fase guztietan inbertsioak egiteko (%70 enpresa sendotuetara bideratuta eta %30 hasierako fasean dauden enpresetara). | ❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***INVEST*** | ALEMANIA | *INVEST*-en bitartez, Ekonomia Gai eta Energiaren Ministerio Federalak inbertsio pribatua babestu eta sustatzen du, bereziki *business angels*, enpresa ekintzaile sortu berrietan inbertsioak egiteko.<br>*Invest*-ek startup batean egindako inbertsioaren gehienez ere %20rainoko kenkaria ematen die pertsona inbertitzaileei, inbertsioaren arriskua minimizatzeko. | ❖ Enpresa berria |
| ***Scottish Co-Investment Fund (SCF)*** | ESKOZIA | 72 milioi liberarekin hornitutako inbertsio funtsa kapitaleko inbertsioetarako. Arrisku kapitaleko inbertsioei dagokienez, funtsak 0,5-2 milioi liberako laguntzak ematen ditu 2-10 milioi liberako inbertsioetarako. Inbertsioak sorrera fasean dauden enpresetan (startup) zein sendotze/hedapen fasean dauden produktu edo merkatu berrietan. | ❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***Danish Growth Fund*** | DANIMARKA | Danimarkako estatuak sortutako inbertsio funtsa, enpresa berriak sortzeko helburuarekin, ekintzailetzaren gaian adituak diren pertsonen finantzaketa eta babesaren bitartez.<br>Inbertitzaile pribatuekin eta erakunde finantzarioekin lankidetzan, orain arte 6.600 daniar enpresaren sorrera ko-finantzatu du. 17 milioi DKK baino gehiagoko konpromisoarekin. *The Danish Growth Fund*-ek kapital inbertsioak babesten ditu maileguak eta bermeak ematen dizkie ETE eta enpresa sortu berriei. | ❖ Enpresa berria |
| ***Dutch Venture Initiative*** | HERBEHEREAK | 2013an sortutako funtsen funtsa, oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berrien kapitaleko inbertsioak bultzatzeko. Guztira 202,5 milioi eurorekin hornituta, European Investment Fund eta Participatiefonds PPM Oost dira sortzaileak, Holanadako Ekonomia Gaietarako Ministerioaren eta *Brabantse Ontwikkelings Maatschappij*-ren laguntzarekin. | ❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |

| Programaren / egitasmoaren izena | Herrialdea Eskualdea | Programaren / egitasmoaren deskribapena | Zein kolektiborentzat |
|---|---|---|---|
| ***The British Business Bank*** | ERRESUMA BATUA | *The British Business Bank* 2013an sortu zen, sektore pribatuaren inbertsioa babesteko, ETE eta enpresa sortu berriei maileguak emateko eta, horrenbestez, ekintzailetzaren arloko eskaintza finantzarioan zegoen gap-a zuzentzeko. 2013. urtean zehar, guztira 650 milioi liberako inbertsioak lagundu ziren. | ❖ Enpresa berria<br>❖ Enpresa ekintzailea |
| ***SEIS - Seed Enterprise Investment Scheme*** | ERRESUMA BATUA | Erresuma Batuak, SEISen bitartez, onura fiskalak eskaintzen dizkie Erresuma Batuko startup txiki sortu berrien alde egiten duten inbertsiogileei. *Seed Enterprise Investment* sistema laguntza publikoak babesten dituen sistema fiskalik errespetatuenetakoa da.<br>Inbertsioek errentaren gaineko %50erainoko kenkaria izan dezakete gehienez ere, urte fiskal batean egindako inbertsioetan. Gainera, inbertsioek onura gehigarriak dituzte, hala nola: salbuespenak kapitalaren irabazien gainean, salbuespenak galerengatik, salbuespenak transmisio edo oinordetzagatik. | ❖ Enpresa berria |
| ***The Start Your Own Business (SYOB) Fiscal policy*** | IRLANDA | *The Start Your Own Business (SYOB)* errentaren gaineko zergaren karga arintzen die enpresa berri bat duten pertsonei, aurrez iraupen luzeko langabezi egoeran egon badira (gutxienez 12 hilabeteko langabezia eta langabeziako diru laguntzen onuraduna izanik). Sistemak urteko 40.000 eurorainoko kenkaria ematen du errentaren gaineko zergan, gehienez ere 2 urtez. | ❖ Pertsona ekintzaileak<br>❖ Enpresa berria |
| **Zerga pizgarria** | SUEDIA | 2013ko abenduaz geroztik, Suedia zerga pizgarri bat dauka kotizatu gabeko enpresen inbertsioetarako, eta, horrenbestez, inbertsio pribatuetan inbertsioaren %50 deduzitu daiteke errentaren gaineko zergari dagokionez, 1.300.000 SEK-eko mugaraino (140.000 euro inguru). Harrezkero, business angels inbertsioa handitu dela ikusi da. | ❖ Enpresa berria |

## A4. “Babson Entrepreneurship Ecosystem Project" eredua

“Babson Entrepreneurship Ecosystem Project" delakoa 2010ean landu zuen Babson Collegeko Daniel Isenbergek, herrialde eta eskualdeei jarduera ekintzailea bultzatzeko ekosistema aurreratuak garatzen laguntzeko eredu gisa landu ere.

Jarduera ekintzailea eraldaketa produktibo eta sozialaren motortzat hartzen duten herrialdeen esperientziak aztertuta (besteak beste, AEB, Kanada, Australia, Israel eta Erresuma Batua), errendimendu handiko ekosistema batek **arrakasta izateko behar dituen zenbait faktore kritiko** identifikatzen ditu ereduak.

“Babson Entrepreneur Ecosystem Project" ereduak proposatzen duen eskemaren arabera, hauek dira faktore horiek:

**Ekosistema ekintzaile bat garatzeko faktore kritikoak**




*Iturria: Babson Collegek landutako “The Babson Entrepreneurship Ecosystem Project” eredua*

Ondoren, ekosistema bat errendimendu handikoa izatea eragiten duen faktore bakoitzaren osaera deskribatuko dugu laburki:

- **Politika:** ekosistemaren lidergo publikoa, "aterki” estrategia bat egotea eta ekintzailetzaren alde egingo duen politika, lege, zerga eta finantza esparru bat sortzea, eta baita laguntza programa multzo bat egotea ere; horra hor, laguntza ekosistema baterako ukigaitzak baina kritikoak diren faktoreak.
- **Finantzak:** ekosistemak nahikoa tresna eta finantzaketa nahiz inbertsio eragile izan behar ditu ekintzailetzaren fase desberdinetan, ahalmena eta premia erakusten duten enpresa berriek eta pertsonek finantzaketa ziurtatuta eduki dezaten.

- **Kultura:** ekosistema orok, epe luzera biziraungo badu eta egoki garatuko bada, ezinbestekoa izango du ekintzailetzaren balioak eta enpresa espiritu sendo bat lantzea. Horretarako, sentsibilizazio ekintzak eta arrakasta kasuak behar dira.
- **Euskarria:** jarduera ekintzailearen tipologia bakoitzaren araberako azpiegitura egoki eta espezializatuak, eta laguntza zerbitzu espezializatuen sare oso bat.
- **Giza kapitala:** konpetentzia ekintzaileetan trebatuta egotea, hezkuntza sistema protagonista dela (maila guztietan), eta talentua erakartzeko eta talentuari eusteko mekanismoak egotea.
- **Merkatua:** merkatuari emandako babesa jarduera ekintzailea erabat baldintzatzen duen faktore bat da eskualde bakoitzean, enpresa sortu berriek "lehen bezeroak", enpresa egitura bat eta merkaturako sarbide progresiboa bultzatuko duten eragileak behar dituztelako.

Lurralde bakoitzean, faktore horiek era batera edo bestera konfiguratzen dira, eta modu batera edo bestera jartzen dira interakzioan. Faktoreak ikuspegi integral batetik analizatuz gero, ekintzailetzari laguntzeko edozein ekosistemak dauzkan hobekuntza arloak eta erronkak identifikatuko ditugu.

# A5. Ekintzailetzako ekintzen katalogoa

Ondoren, euskal ekosistemako eragile nagusiek ekintzailetzari laguntzeko martxan jarrita edo diseinatze prozesuan dauzkaten ekintzak zerrendatuko ditugu.

## Eusko Jaurlaritza

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskripzioa | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila | **UP Euskadi ataria** | UP Euskadi atari berria, euskal ekosistema ekintzaileko prozesu, programa, zerbitzu, finantza tresna, azpiegitura eta eragileei buruz behar den informazio guztia zentralizatuko duena, eta informazio hori interesa daukaten bertako zein kanpoko eragile guztiei modu erraz eta erakargarrian eskainiko diena. | Ekintzailetzan interesa daukaten kolektibo guztiak | SPRI<br>Ekosistemako eragileak | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Basque Industry 4.0 Biltzarra - Ekintzailetza** | Basque Industry 4.0 biltzarra indartzea, ekintzailetzari buruzko hainbat eduki gehitzeko. | OTEBBak<br>Enpresa ekintzaileak | Eusko Jaurlaritza<br>SPRI | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideiak eta egitasmo berriak |
| | **Ekintzaile** | Oinarri teknologikoko industria arloko enpresa proiektu berritzaileei euskal BICen bidez eta beste eragile ekintzaile batzuen bidez lagun egiteko eta proiektuok finantzatzeko programa.<br>Bertan sartzen da Barnekintzaile programa, enpresa industrial sendotuetan barne ekintzailetzako proiektu berri bat aztertu, zehaztu eta martxan jartzeko laguntza ematen duena. | OTEBBak | BICak<br>Foru Aldundiak<br>SPRI | Ideiak eta egitasmo berriak |
| | **BIND 4.0** | Startupen azelerazioko nazioarteko programa 4.0 industriaren esparruan, eta, horren barruan, irabazten duen startup bakoitzarentzat kontratu bermatu bat industri enpresa handi batekin (lehen edizioan izan dira ABB, CAF, CIE Automotive, Danobat Group, Euskaltel, Iberdrola, ITP, Mercedes Benz, Michelin, Repsol eta Petronor), mentoring eta azelerazio programa pertsonalizatu batez gain. | OTEBBak<br>Enpresa ekintzaileak (industriako enpresa txiki eta ertainak) | Eusko Jaurlaritza<br>SPRI<br>Foru Aldundiak<br>Enpresa parte hartzaileak | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa<br>Barne ekintzailetza |
| | **Berrikertu** | Giza kapital ikertzailea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean txertatzeko laguntzak, ikertzaileak kontratatzeko diru laguntza ez-itzulgarrien bidez. | | ZTBES | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Hazitek** | EAEko enpresa sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi planaren espezializazio alorretan, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak –lehiarako proiektuak nahiz proiektu estrategikoak– gauzatzen laguntzeko programa. | | Eusko Jaurlaritza<br>SPRI | |
| | **Industria digitala** | Enpresa berriak eta enpresa sendotuak garatzen laguntzeko egitasmoa da, eta EIKTak manufaktura industrialeko enpresa txiki eta ertainetan txertatzea du xede. | | SPRI | |
| | **Global Lehian** | EAEko enpresa txiki eta ertain indibidualak eta kooperaziokoak internazionalizatzeko laguntzak. | | Eusko Jaurlaritza | |
| | **Gauzatu** | Enpresa txiki eta ertain industrialak nahiz lotutako zerbitzu berritzaile eta oinarri teknologikokoak sortu eta garatzeko laguntzak. | | Eusko Jaurlaritza<br>SPRI | |
| | **Barne ekintzailetzari laguntzeko egitasmoa** | Barne ekintzailetzari laguntzeko egitasmoa, produktu, zerbitzu edota negozio berriak garatuz ekintzaile izatearen alde egiten dute enpresa industrialetan (>50 langile) sentsibilizazioa, trebakuntza eta konexioa sustatuz, eta halako enpresei lagunduz. | Enpresa ekintzaileak | SPRI<br>Foru Aldundiak<br>BICak | Barne ekintzailetza |
| | **Lehiabide barne ekintzailetza** | Industri enpresa sendotuetan barne ekintzailetzari buruzko hausnarketa estrategikoa egiten eta antolaketa eredu bat zehazten laguntzeko programa. | | | |
| | **IN FOCUS proiektua** | Europako hirien hazteko potentziala eta posizionamendu globala indartzeko proiektua, bere espezializazio estrategiak eskualdeko RIS3ri lotuz, maila askotako gobernantzaren bitartez. Maila lokalean espero den emaitza Ekintza Plan bat egitea da, Bilbon aukeratutako 3 sektoreak garatzeko (industria sortzaileak; ekonomia digitala; zerbitzu aurreratuak), lurralde osoari ekarpena egiteko ikuspegiarekin (Bizkaia-Euskadi). BIG BILBAOk ikuspegi bertikal batetik bultzatzen eta babesten du ekintzailetza, ekintza espezifikoen bitartez, sektore estrategiko horietan kokatutako proiektuen beharretara egokituta. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Bilbao<br>Ostrava, Bielsko-Biala<br>Grenoble, Bordele<br>Plasencia<br>Frankfurt<br>Turin<br>Bukarest eta Oporto | Denak |
| Donostiako Sustapena, Donostia-San Sebastianeko Udala | **Pertsona ekintzailearen eguna. Donostia Ekin!** | Urteko topaketa, sentsibilizazio, errekonozimendu eta lankidetzaren inguruan, hiriko ekintzaileen eta enpresa berrien artean. Ideia eta esperientzia ekintzaileen tailerrak, sariak... | Enpresa berriak | Donostiako Sustapena<br>Irakaskuntzako institutuak<br>Lanbide<br>Heziketako ikastetxeak<br>Unibertsitateak | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Ekin +** | Profil eta proiektu berritzaile berriak garatzeko eta azeleratzeko egitasmo trinkoa. Helburua da gaitasun handiko pertsona ekintzaileei laguntza ematea, 3 hilabeteko programa trinko baten bitartez, zeinean hautatutako proiektuek tutoretza indibiduala jasotzen duten, tailer praktikoak, lanerako espazioak eta proiektuen inkubagailuak, mentoreen sarerako sarbidea, etab. | Pertsona ekintzaileak | Donostiako Sustapena | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Yuzz programa** | Osagai teknologikoko ideia berritzaileak dituzten gazteen sentsibilizazio eta prestakuntzarako programa trinkoa. 3 urtetan zehar, edizio bakoitzean hogei gazte ingururekin lan egin da 8 hilabetez. | Beste segmentu espezifiko batzuk | Banesto Fundazioa<br>Donostiako Sustapena | |
| | **Prestakuntza programa (Aditu saioak)** | Prestakuntza eredu berria, enpresa garapenerako 4 arlotan saioak emanez (Ideia eta profil ekintzaileak; Negozio eredua; Enpresa kudeaketa eta Finantzaketa). | Pertsona ekintzaileak | Donostiako Sustapena | |
| | **Ekintzaileetzarako ibilbideak** | Laguntza ideia sortzen denetik sendotzen den arte, "ibilbide" espezifikoekin ekintzaile bakoitzaren arabera. Zerbitzuak: prestakuntza, finantzaketarako irispidea, aholkularitza aditua, azpiegiturak, etab. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Donostia Ekin Soziala** | Gizarte ekintzailetzarako laguntza zerbitzuak. | Beste segmentu espezifiko batzuk | Elkartu (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Kontrataziorako laguntzak** | Talentu ekintzailea kontratatzeko laguntzak (30 urte baino gutxiagoko pertsona kualifikatuak, talentu berritzailea, talentuaren itzulera, langabeak, profesional esperientziadunak). | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Donostiako Sustapena | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Bonu teknologikoak** | Proiektu berritzaile lokalak sustatzea, martxan jartzeko, hazteko eta merkatuan sendotzeko, zein Euskadiko sarea osatzen duten enpresen hobekuntza lehiakorra eta posizionamendua indartzeko. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Tecnalia, IK4 eta Biodonostia | |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskripzioa | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Donostiako Sustapena, Donostia-San Sebastianeko Udala | **Enpresen azeleraziorako babesa eta laguntza ekonomikoak** | Enpresei doan eskainitako zerbitzuak euren proiektu estrategikoak garatzeko. Eta laguntza ekonomikoak, Elkargirekin sinatutako hitzarmenaren eta EKIN+ programaren bidez, proiektu ekintzaileak azeleratu, hazi eta sendotzeko. | Enpresa berriak Enpresa ekintzaileak | Donostiako Sustapena | Babes ekosistemaren integrazioa (finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea) |
| | **Ekintzailetza Babesteko Zentroak** | Espazio fisiko espezializatuak, pertsona ekintzaileen prestakuntza hobetzeko, prestakuntza gela, coworking, lan bulego eta abarrez hornituak. Erabil daitezkeen espazioak dira, besteak beste: Pi@ Eraikina Ikus-entzunezkoen Berrikuntza Gunea; Enertic, smart sektorea eta ekintzailetza babesteko M. Cristina eraikineko zentroa. | Pertsona ekintzaileak Enpresa ekintzaileak | | Babes ekosistemaren integrazioa (azpiegitura adimendunak) |
| | **Pop UP Commerce** | Proiektuen inkubagailua tokiko dendetan ezarri daitezkeen ideia berritzaileak garatzeko. 8 asteko prestakuntza eta 2 asteko erakusketa PUC! Expo Marketen. | Enpresa berriak Enpresa ekintzaileak | | |
| | **San Sebastian Connecting Talent** | Talentu profesionala erakartzen laguntzeko programa. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak Enpresa ekintzaileak | | Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa |
| Vitoria-Gasteizko Udala | **Ekintzailetza Babesteko Plan Integral Personalizatua** | Ekintzaileei aholkularitza emateko zerbitzu etengabea proiektuaren etapa desberdinetan. Bere baitan: elkarrizketa, prestakuntza, aholkularitza, bekak eta inkubagailua. | Pertsona ekintzaileak | Ekonomia Sustapen Saila Europako Gizarte Funtsa | Ekintzailetzaren kultura eta balioak Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Enpresa eta pertsona ekintzaileei zuzendutako prestakuntza** | Prestakuntza programa, hainbat arlotako prestakuntza ekintzekin, modu presentzialean edo e-learning bidez egiteko. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Enpresa zentroak bulego eta lokalekin** | Ekintzailetza babesteko azpiegiturak. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | Eusko Jaurlaritza Lanbide Europako Gizarte Funtsa | Babes ekosistemaren integrazioa (azpiegitura adimendunak) |
| | **Ekintzailetzarako bekak** | Enpresa proiektua garatzen laguntzeko bekak. | Pertsona ekintzaileak | Ekonomia Sustapen Saila Europako Gizarte Funtsa | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Enpresa sendotzea** | Enpresa sendotzen laguntzeko programa. | Enpresa berriak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Basaldea** | Enplegua eta negozioak sortzeko programa produktu ekologikoaren ekoizpenaren eta banaketaren inguruan. | Segmentu espezifikoak | Vitoria-Gasteizko Udala | Ideia eta egitasmo berriak |
| Garapen | **Lankidetza ekintzailetzaren ekosistemako eragileekin** | Tknika eta Lanbidekiko lankidetza, ekintzaileen kolektiboari programak eta tresna lagungarriak hedatzeko. | Irakaskuntza orokorra - LH | Tknika, LHko ikastetxeen euskal sarea | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| Garapen agentzia | **Ekintzailetzako ideia eta egitasmo berriak** | Informazio eta aholkularitza zerbitzu presentzialak ematea eta enpresa egitasmoak martxan jartzen laguntzea. | Pertsona ekintzaileak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Prestakuntza Enpresen sorrera** | Pertsona ekintzaileei zuzendutako ikastaroak. Gai hauek ikasten dira: negozioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak (finantzaketa iturriak eta motak, kobraketak eta ordainketak kudeatzeko ohiko tresnak eta zergak), laneko arriskuak eta ingurumenekoak. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | |
| | **Haztea eta sendotzea** | Enpresa sortu berrien lehiakortasuna hobetzera zuzendutako ekintzak. | Pertsona ekintzaileak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskripzioa | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Debagoieneko Mankomunitatea | **Kimuberri** | Ekintzailetzaren kultura sustatzea unibertsitatearen eta lanbide heziketaren ingurunean. | Irakaskuntza orokorra – LF Unibertsitatea | MU, Saiolan, ISEA, ATHLON | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Gazela Enpresak** | Ekintzailetzaren kultura sustatzea unibertsitatearen eta lanbide heziketaren ingurunean. | | MU, Saiolan, ISEA | |
| | **Goiaz Azoka** | Ekintzailetzari buruzko sentsibilizazioa kasu errealen bitartez. | Irakaskuntza orokorra | Debagoieneko LH Zentroak | |
| Inguralde | **Enpresa ideien lehiaketa** | Ezkerraldeko eta Meatzaldeko garapen agentziek antolatutako lehiaketa, etorkizuneko enpresa proiektuei buruzko ideiak sortzea bultzatzeko. | Gizartea oro har | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Aurre-ekintzailetza tailerra** | Lan saioak ekintzailetzari buruzko hasierako informazioarekin eta lehen hausnarketekin. | Pertsona ekintzaileak | | |
| | **Ekintzailetzaren kultura** | Adin goiztiarretan ekintzailetzari buruz sentsibilizatzea. Ekintzailetza jarduera bat martxan jartzeko konpetentzia giltzarriak lantzea. | Irakaskuntza orokorra - LH | | |
| | **Prestakuntza Enpresen sorrera** | Ekintzaileei zuzendutako prestakuntza ekintzak, helburu bikoitzarekin: enpresa ideiaren bideragarritasuna baloratzea, eta enpresa kudeaketaren inguruko ezagutzak barneratzea. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Aholkularitza Enpresa proiektuak** | Aholkularitza indibidualizatuko zerbitzua, ekintzaileari bere proiektua umotzea ahalbidetzeko, enpresa martxan jartzearen inguruko erabakia hartu ahal izateko. | Pertsona ekintzaileak | | |
| | **Enpresa berrien jarraipena** | Aholkularitza pertsonalizatua enpresa sortu berrientzat, biziraupena handitzeko helburuarekin. | Enpresa berriak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Enpresa Zentroak Innobak** | Langune egokituetarako sarbidea, enpresa sortu berrientzat eta enpresa sendotuentzat. | Enpresa berriak Enpresa ekintzaileak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| Iraurgi Berritzen | **ASLErekiko lankidetza Lanzituz programan** | Lanzituz Lan Sozietateak Sortuz egitasmoa, langabezian dauden pertsonak laneratzen edo lan merkatuan berriro sartzen laguntzeko, Gizarte Ekonomiaren arloan ekintzailetza sustatuz eta babestuz, eta parte hartzean oinarritutako enpresen eta lan sozietateen bidez. | Langabeak | ASLE<br>Eusko Jaurlaritza<br>Gipuzkoako Ganbera<br>FSE CC.OO.<br>Gezki | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Ekintzailetasuna Urola Erdian II** | Urola Erdiko eskualdean ekintzailetza bultzatzeko elementuak garatzeko proiektua. 2015ean "Ekintzailetzaren mahaia" eratu zen, inguruko eragileak elkartzeko eta eskualderako proiektu komun bat sortzeko. | | Ekintzailearekin harremana duten Urola Erdiko eragileak | |
| Urola Kostako Udal Elkartea | **Ekin ideia lehiaketa** | Negozio ideia bihurtu daitezkeen ideia berritzaileen lehiaketa eskualderako. | Pertsona ekintzaileak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Ideiak aztertzeko aholkularitza** | Aholkularitza indibidualizatua negozio ideia aztertzeko, bideragarritasun plana eginez. | | | Ideia eta egitasmo berriak Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Martxan jartzeko aholkularitza** | Aholkularitza indibidualizatua martxan jartzeko izapideei dagokienez: forma juridikoa, zerga betebeharrak, diru laguntzak, finantzaketa, etab. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | |
| | **Ekiten tailerrak** | Sormen, komunikazio eta errentagarritasunaren azterketaren inguruko tailer praktikoak, negozio ideia lantzeko. | Pertsona ekintzaileak | | |
| | **Autoenpleguari buruzko informazioa** | Autoenpleguari buruzko informazio orokorra banaka edo taldeka. | Gizartea oro har Pertsona ekintzaileak | | |
| | **Kudeaketari buruzko aholkularitza** | Negozioa kudeatzeko laguntza (erabakiak hartu, zergak, diru laguntzak, etab.), jardueraren lehen 3 urteetan. | Enpresa berriak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Ekiten gunea** | Doako langunea pertsona ekintzaileentzat, negozio ideia garatzeko espazioa. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | Azpiegitura adimendunak |
| | **Ekiten komunitatea** | Pertsona ekintzaileen komunitatea, ekintzaileen arteko lankidetza bultzatzeko. Espazioa eta tailerrak. | | | |
| | **Enpresagune** | Enpresen hazitegia jarduera sortu berrietarako. | Enpresa berriak | | |

## Beste eragile publiko eta publiko-pribatu batzuk

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuetako Ganbera | **Berriz Enpresa – Enpresa transmisioko programa** | Enpresaren jarraipena ahalbidetzera zuzendutako programa, aholkularitzaindibidualizatua ematen duena. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Eusko Jaurlaritza<br>EAEko ganberak | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Enpresak sortzen eta sendotzen laguntzeko zentroa** | Enpresa proiektu berriak sortzen laguntzeko egitasmoa da, hasi ideiaren sorkuntzatik eta ideia sendotu arte. Garatze eta martxan jartze fase desberdinetan aholkularitza indibidualizatu eta diziplina anitzekoan oinarritutako metodologia. Helburua da enpresa bideragarri eta luzaroan iraungo dutenak sortzea. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Arabako Foru Aldundia | |
| | **Hasten programa** | Araban enpresa proiektu bat garatzen ari diren eta jarduerari oraindik ekin ez dioten ekintzaileei zuzendutako egitasmoa. Programak 10 enpresa proiektu hautatuko ditu, eta bakoitzak zera jasoko du: 1.000 euro garbiko poltsa ekonomikoa, eta aholkularitza eta segimendu programa indibidualizatu baterako sarbidea Arabako Ganberaren Laguntza Zentroan. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Vital Fundazioa | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Arabako Ganberaren eta Michelin Fundazioaren arteko hitzarmena** | Xedea da industria arloko edo industriari lotutako zerbitzuen arloko enpresa proiektu berriak identifikatzea eta horiei lagun egitea, eta Michelin Fundazioak eskaintzen dituen laguntzetarako sarbidea kanalizatzea. | Enpresa berriak | Michelin Fundazioa | |
| | **Finkatuz programa** | Oraindik ere enpresa proiektua sendotze fasean daukaten enpresa sortu berriei zuzendutako egitasmoa. Programak 10 enpresa proiektu hautatuko ditu, eta bakoitzak zera jasoko du: 1.000 euro garbiko poltsa ekonomikoa, eta aholkularitza eta segimendu programa indibidualizatu baterako sarbidea Arabako Ganberaren Laguntza Zentroan. | | Vital Fundazioa | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| Bilboko Merkataritza Ganbera | **Enpresa Leihatila Bakarra** | Enpresa leihatila (Ekintzaileei Laguntzeko Zerbitzua) | Pertsona ekintzaileak | BFAko Ekonomia Sustapeneko Saila | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Ekintzaileari Arreta emateko Gunea** | Bai enpresa egitasmoak definitzean bai enpresaren lehen jarduera urteetan, ekintzaileei informazioa eta aholkua emateko egitasmoa. Enpresa eratzeko administrazio tramitearen hasiera Dokumentu Bakar Elektronikoaren bidez (DEB). | | | |
| | **Berriz Enpresa – Enpresa transmisioko programa** | Enpresaren jarraipena ahalbidetzera zuzendutako programa, aholkularitza indibidualizatua ematen duena. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Eusko Jaurlaritza<br>EAEko ganberak | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **PAEM - Emakumeei Enpresa Arloan Laguntzeko Programa** | Emakumeak autoenpleguaz eta enpresa jardueraz sentsibilizatzeko programa, helburu honekin: tresna eraginkorra izatea emakumeek gidatutako enpresak sortu eta sendotzeko. Programa diseinatu da ekintzailetzarako ardura daukaten emakumeen egitasmo eta proiektuei edozein fasetan laguntzeko, izan enpresa ideiaren hasieran, izan proiektua martxan jartzean nahiz sendotzean. | Emakumeak | | |
| BARRIXE | **Berrikuntza Behatokia** | Bizkaiko berrikuntzaren eta ekintzailetzaren egoeraren gaineko informazio plataforma, zeinak laguntza, lizitazio, prestakuntza, joera eta berrikuntza interesgarriei buruzko informazioa ematen duen. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | BFAko Ekonomia Sustapeneko Saila<br>Bilboko Merkataritza Ganbera | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| Gislur | **Lurzoru eta pabiloi industrialen eskaera** | Lurzoru industriala eta merkataritza nahiz zerbitzu eremuak bilatzeko online plataforma, industrialde nahiz enpresa parke guztiei buruzko informazio oso eta geolokalizatua ematen duena. | Enpresa berriak | Bizkaiko Foru Aldundia<br>Bilboko Merkataritza Ganbera | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| Gipuzkoako Ganbera | **Gazteentzako ekintzailetza ibilbideak** | Gazte ekintzaileei zuzendutako prestakuntza eta aholkularitza planak. | Pertsona ekintzaileak | Europako Gizarte Funtsa eta Incyde | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Enpresa Leihatila Bakarra** | Gipuzkoan enpresa jarduera berri bati alta eman nahi dioten pertsona edo enpresentzako arreta gunea. | | Gipuzkoako Foru Aldundia | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Berriz Enpresa – Enpresa transmisioko programa** | Enpresaren jarraipena ahalbidetzera zuzendutako programa, aholkularitza indibidualizatua ematen duena. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | Eusko Jaurlaritza<br>EAEko ganberak | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Bideragarritasun planak** | Bideragarritasun planak egitean pertsona ekintzaileei aholkularitza emateko egitasmoa. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| ASLE | **Lanzituz** | Pertsona ekintzaileei informazioa, prestakuntza eta aholkularitza emateko egitasmoa, gizarte ekonomiako enpresa berriak martxan jartzeko. | Pertsona ekintzaileak | Iraurgi Berritzen<br>Eusko Jaurlaritza<br>Gipuzkoako Ganbera<br>Europako Gizarte Funtsa, LK, Gezki | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| Innobasque | **Jarduketen katalogoa** | Ekintzailetza/berrikuntza sistema indartzera bideratutako jarduketen inbentario bat egiteko helburua duen egitasmoa, berrikuntzaren finantzaketa, inbertsio eta trebakuntza katalogo batean sartzeko. | Gizartea oro har<br>Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | | Finantzaketa eta inbertsiorako sarbidea |
| | **Exchange** | (Mikro) enpresa txiki eta ertainen artean soluzio berriak bilatzea sustatzen duen egitasmoa. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **ETE tresna** | ETE Tresnaren finantzaketa eskuratuz, enpresak hazteko egitasmoak finantzatzea eta horiei laguntasuna ematea. | Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Voluntare – Boluntariotza korporatiboaren sarea** | Boluntariotza korporatiboko sare honek, Nittuarekin batera, barne ekintzaileetzaren arloko lantalde bat gidatu behar du. | Enpresa ekintzaileak | Nittua | Barne ekintzailetza |
| | **Test in red** | Innobasqueren sarean OTEBBen produktu/zerbitzu berriak – behin betiko merkaturatu aurretik– testatu, kontrastatu eta probatzea ahalbidetzen duen egitasmoa. | Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | | Merkaturako sarbidea |
| Saiolan | **Hegogipuzkoa Industria Berritu eta Indartu** | Lurraldea sustatzeko programa honek, besteak beste, honako egitasmoak gauzatzen ditu:<br>-Katalogo industrial bat.<br>-Behar industrialei buruzko mapa bat.<br>-ZTBESen ezagutza eta nazioarteko antena aukerak enpresekin konektatzeko metodologia.<br>-Lurraldean garapen proiektuak bultzatu eta martxan jartzea (banakakoak eta lankidetzazkoak). | Unibertsitatea<br>Teknologia Zentroak<br>Enpresa berriak | BIC Gipuzkoa | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Erakundeekiko lankidetza** | Hezkuntza erakundeekin lankidetzan jarduteko egitasmoa, ekintzailetzaren kultura sustatzeko eta ideiak sortzeko, zerbitzu hauen bidez:<br>-Saiolan ereduaren transferentzia.<br>-Ekintzailetza ereduak hezkuntza inguruneetan.<br>-Ekintzailetza instituzionala. | Irakaskuntza orokorra - LH<br>Unibertsitatea<br>Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Ekintzaileentzako zerbitzuak** | Pertsona ekintzaileei aholkua eta laguntza emateko zerbitzuak, ideien eta egitasmo berrien sorkuntza sustatzeko. Hona hemen eskaintzen diren zerbitzuetako batzuk: prestakuntza; enpresaren bideragarritasun plana egiteko laguntza; tutoretza eta lagun egitea merkatu errealean ideia garatu eta kontrastatzeko orduan; laguntza eta finantzaketa programetarako sarbidea; eta proiektua gauzatzeko baliabide erabilgarriak. | Pertsona ekintzaileak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Enpresa zerbitzuak** | Aholkularitza eta laguntza zerbitzuak, bai ideia eta egitasmo berriak garatzean bai enpresa berrien hazkunde prozesuan, besteak beste, egitasmo hauen bidez: prestakuntza; ideiak eta negozio aukerak identifikatzea; produktuari eta prozesuei aplikatutako berrikuntza proiektuak garatzea; laguntza enpresaren bideragarritasun plana egitean; laguntza eta finantzaketa programetarako sarbidea; eta barne ekintzailetzako prozesuak. | Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Nazioarteko antena, aliantzen motor gisa** | Nazioarteko aliantzak bultzatzeko ekintzak, nazioarteko antena gisa jardunez. Egitasmo honen bidez, zerbitzu hauek eskaintzen ditu Saiolanek:<br>-Euskal enpresa egiturako enpresei zuzendutako produktuen/soluzioen bilaketa.<br>-Espezializazio geografikoa eta sektoriala teknologia berrietan eta manufacturing aurreratuan espezializatutako sektoreei lotutako bilaketan.<br>-Harremanak intereseko sektoreekin lotutako atzerriko inkubagailuekin.<br>-Atzerriko startupen eta Euskadiko enpresen arteko konexioak. | Enpresa berriak<br>OTEBBak<br>Enpresa ekintzaileak | | Ideia eta egitasmo berriak |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Orkestra Crecer+ | **Investment readiness programa** | Finantzaketa programa hau pertsona ekintzaile berritzaileen artean hautaketa prozesu bat eginda gauzatzen da. Programaren bidez, aurkeztutako bost programatik hiru finantzatzen dira. | Enpresa berriak | | Finantzaketa eta inbertsiorako sarbidea |
| | **Inbertsio foroak** | Ekintzaileen eta inbertsiogileen arteko topagunea da. Proiektu ekintzaileak erakusteko eta networkinga egiteko aukera ematen du. | | | |
| | **Business Angels Crecer+** | Inbertsiogile komunitate baten sustapena –Business Angelsak–, fase goiztiarrean dauden eta aurreikuspenen arabera agudo haziko diren negozioak dauzkaten ekintzaileei kapital adimenduna eskaintzeko. | | GFA<br>AEBAN (Espainiako Business Angelsen Elkartea), besteak beste | |
| | **Finantzaketa publikoa** | Tokiko eta estatuko instituzioen programak eskuratu ahal izateko egitasmoa. | Enpresa berriak | | |

## Unibertsitateak

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| EHU/UPV | **Enpresa ideien lehiaketak** | Etorkizuneko proiektuen inguruko ideien sorkuntza sustatzeko (Laborde, Inizia, Think Big) edo proiektu arrakastatsuak errekonozitzeko (Abiatu) antolatzen dira. | Unibertsitatea | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Kultura ekintzaileko jarduera masiboak** | Ekintzailetzaren figura positiborekiko gertutasuna indartzen duten jarduera ludikoak (Etorkizulan); on line jokoak (Ekinduz). | | | |
| | **Enpresa arloko Serious Game-a** | Enpresa bat sortzeari eta kudeatzeari buruzko E-Game bat sartzeko programa pilotua, gelako hezkuntza tresna gisa (B-Cubes). | | | |
| | **Junior enpresak sortzeko laguntza programa** | Unibertsitateko Gazte Ekintzaileen Taldeen I. Topaketa antolatzea. | | | |
| | **Aurre-ekintzailetzako mintegiak** | 15 eta 50 ordu bitarteko ikastaro hauetan ekintzailetzari buruzko hasierako informazioa ematen da, eta horri buruz hausnartzen (Hasten Ikasten, Ikasberri, moduluak Masterretan…). | | | |
| | **Enpresa sorkuntzari buruzko prestakuntza** | Ekintzaileei zuzendutako prestakuntza ekintza hauek helburu bi dauzkate: enpresa ideiaren bideragarritasuna baloratzea eta enpresa kudeaketari buruzko ezagutzak hartzea (Agudezia, Ikasberri, Xtartup Xperience). | | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Enpresa proiektu berriei aholku ematea** | Aholkularitza zerbitzu indibidualizatu honi esker, ekintzaileak bere proiektua umotu dezake, enpresa martxan jarri ala ez erabakitzea helburu. | | | |
| | **Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen segimendua** | Enpresa sortu berriei zuzendutako aholkularitza pertsonalizatua, enpreson biziraupena luzatzea helburu. | | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Inkubazioa enpresa zentroetan, Entreprenari / Inizia / Zitek** | Oinarri teknologikoko enpresei edo enpresa berritzaile sortu berriei zuzendutako langune egokituetarako sarbidea. | | Foru aldundiak BICak | |
| Mondragon Unibertsitatea | **Bilbao Berrikuntza Faktoria** | Bilbon dagoen aurreneko ikaskuntza, berrikuntza eta ekintzailetza ekosistema, non espazio bakarrean eta integralki biltzen diren unibertsitate prestakuntza eta enpresa egitasmo berritzaileak bultzatzen dituen pertsona komunitate bat. | Unibertsitatea | Init Taldea Bilboko Udala | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Mondragon Team Academy** | Ekintzaileen nazioarteko sare bat da. Ikaskuntza erradikaleko hainbat programatan murgilduta dauden 1.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute lantaldea. | | | |
| | **LEINN** | Lehenengo europar gradua Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan, non ikasleak ekintzaile izateko prestatzen diren. | | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| | **MINN** | Barne Ekintzailetza eta Berrikuntza Irekiari buruzko masterra. Enpresa arloko lider exekutiboak sortzeko diseinatuta dago, izan ere, lider horiek izango dira, berrikuntzako eta enpresa berriak (ekintzailetza) edo spin-offak (barne ekintzailetza) sortzeko proiektuen bidez, beren enpresak eraldatuko dituztenak. | | | |
| | **TEAMINN Mastery** | Ezagutza, tresna, esperientzia eta kontaktuei buruzko masterra taldeko coachingaren arloan eta "Tiimiakatemia moldean". Programak 1,5 urte irauten du eta irakasleei, ekintzaileei eta gerenteei zuzenduta dago. | | | |
| | **Profesionalentzako prestakuntza** | Ekintzailetzari, berrikuntza proiektuen kudeaketari eta barne ekintzailetzari buruzko ikastaroak enpresa eta erakundeen barruan. | Enpresa ekintzaileak | | Barne ekintzailetza |
| Tecnumen Berrikuntza eta Ekintzailetza Zentroa | **BINVAS (Bio Innovation CANVAS)** | Sentsibilizazio berritzailea eta enpresa ideia berrien bideragarritasuna bilatzera bideratutako lehiaketa, biozientzien arloari aplikatua eta TECNUNen ekintzailetza sustatzeko programaren barruan landua. | Unibertsitatea | BIC Berrilan Osakidetza beste batzuk | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| | **INVAS (Innovation CANVAS)** | Sentsibilizazio berritzailea eta enpresa ideia berrien bideragarritasuna bilatzera bideratutako lehiaketa, industriaren eta zerbitzuen sektoreei aplikatua eta TECNUNen ekintzailetza sustatzeko programaren barruan landua. | | Gipuzkoako Foru Aldundia | |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Innovation Fast Track** | Ibilbide esperientzial honek laguntza sustatzen du, ideien sorkuntzatik hasi eta enpresa sortu arte. Hona hemen eskaintzen diren zerbitzu aipagarrienak: 100 lanordu baino gehiago, Learning by doing, diziplina anitzeko lantaldeak, hautazko prestakuntza saioak, derrigorrez bete beharreko mugarriak eta adituen parte hartzea. | | Sektore desberdinetako aditu eta profesionalak | |
| Tecnumen Berrikuntza eta Ekintzailetza Zentroa | **Inbertsio aukeren bilaketa** | Proiektu inbertigarrien detekzioa. | Gizartea oro har Pertsona ekintzaileak | Arrisku kapitaleko sozietateak Pertsona ekintzaileak Nafarroako Unibertsitatea | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Gardentasunari buruzko ikastaroa, ikertzaileei zuzenduta** | Enpresen sorkuntzaren bidez, ikertzaileak prestatzea eta transferentziarekiko sentikor bihurtzea, balorizagarriak izan daitezkeen ikerkuntza emaitzak detektatzeko. | Unibertsitatea Teknologia Zentroak | Sektore desberdinetako aditu eta profesionalak | |
| Deustuko Unibertsitatea | **Berrikuntzari eta Ekintzailetzari buruzko titulu propioa** | Prestakuntza osagarriko egitasmo hau aldi berean egin dezakete, ikasketekin batera eta beren prestakuntzaren osagarri bikain gisa, Donostiako Campuseko Graduko eta Gradu Bikoitzeko ikasleek. Titulu honek gaitasuna ematen die ikasleei portaera berritzaile eta ekintzailea lantzeko. | Unibertsitatea | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Deusto Ekintzaile Astea-World Entrepreneurship Week-Semana Deusto Emprende** | Fakultateetan ekintzailetzari eskaintzen zaion astea. | | | |
| | **Enplegu eta ekintzailetza foroa** | Unibertsitate ikasketak bukatzean enplegagarritasuna eta ekintzailetza sustatzeko egitasmoa. | | Eusko Jaurlaritza Bizkaiko Foru Aldundia | |
| | **DeustoSTART** | Programa honen bidez, parte hartzaileen konpetentzia, asmo eta autoefikazia ekintzailea lantzen dira. | | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Berrikuntza, Ekintzailetza eta Sostengarritasun Modulua – Unibertsitate Masterra** | Egitasmo honen bidez, parte hartzaileen konpetentzia, asmo eta autoefikazia ekintzailea lantzen dira. | | | |
| | **Berrikuntza, Ekintzailetza eta Sostengarritasun Modulua – Enpresa Zuzendaritzako Unibertsitate Masterra** | Egitasmo honen bidez, parte hartzaileen konpetentzia, asmo eta autoefikazia ekintzailea lantzen dira. | | | |
| | **Berrikuntza, Ekintzailetza eta Sostengarriasun Modulua – Business Innovation Masterra** | Egitasmo honen bidez, parte hartzaileen konpetentzia, asmo eta autoefikazia ekintzailea lantzen dira. | | | |
| | **Berrikuntza, Ekintzailetza eta Sostengarriasun Modulua – International Business Masterra** | Egitasmo honen bidez, parte hartzaileen konpetentzia, asmo eta autoefikazia ekintzailea lantzen dira. | | | |
| | **Egitezko Ekintzailetzako Master Duala** | Konpetentziak garatzeko egitasmo honen bitartez, enpresa proiektu berritzaileak –bai jatorriz berriak direnak bai enpresetan bertan sortutakoak– kontzebitu eta gidatzeko konpetentziak garatzen dira. | Unibertsitatea Empresa ekintzaileak | Eusko Jaurlaritza Bizkaiko Foru Aldundia Enpresak | Ekintzailetzaren kultura eta balioak Barne ekintzailetza |
| | **Tailerrak** | Beren proiektu ekintzailea diseinatu eta plazaratzeko prozesuan dauden pertsona ekintzaileei zuzendutako tailerrak. | Unibertsitatea | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Emakumeen ekintzailetza** | Emakumeen ekintzailetza bultzatzeko egitasmoa. | Emakumeak | MET, Community of Insurance Beste eragile publiko eta pribatu batzuk | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Deusto Digital Accelerate** | Proiektu digitalak azeleratzeko programa. | Unibertsitatea Enpresa berriak | | Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| | **DeustobanK** | Egitasmo honek spin-off unibertsitarioen bidez ezagutza transferitzeko estrategia babestea sustatzen du, Business Angelsen sare bat eraikiz. | Enpresa berriak | | |
| | **Business Angelentzako eskola** | Business Angel izan nahi duten pertsonentzako prestakuntza programa. | Unibertsitatea<br>Inbertsiogileak | | |
| | **DeustoSTART-Corporate** | Barne ekintzailetzan lagun egiteko programa. | Empresa ekintzaileak | | Barne ekintzailetza |
| | **Ekintzailetza Modulua – Executive MBA** | Egitasmo honen bidez zenbait konpetentzia lantzen dira barne ekintzailetzako proiektuak abian jartzean. | | BEAZ<br>BIC Gipuzkoa | |
| | **DeustoKabi** | Proiektu ekintzaile berritzaileen inkubagailua/azeleratzailea. | Unibertsitatea | BEAZ<br>BIC Gipuzkoa | Denak |

## Eragile pribatuak

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| Ajebask | **Ekintzaileltza** | Gazte ekintzailetzari, besteak beste, honako ekintza hauen bidez laguntzea: diru laguntzei buruzko aholkularitza; Egitasmo Profesionalen Eskola Gaztea; enpresa arloko topaketak; eta Arabako Enpresari Gaztea Saria. | Beste segmentu espezifiko batzuk | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zuzendaritza | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Lan orientazioa** | Talde ekintzak eta banakako orientazioak, Ajebask eta Lanbide lankidetzanarituz. | Langabeak | Lanbide | Ideia eta egitasmo berriak |
| ADEGIko Ekintzaileen Foroa | **Ekintzaileen foroa** | Pertsona ekintzaileen komunitate honen xedea da pertsona horien arteko interakzioa, konexioa eta lankidetza sustatzea, baita ikaskuntza partekatzea eta ekintzailetzaren ekosistema hobetzeko proposamenak lantzea ere, hainbat jarduera eta espazioren bidez. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Ekintzaileen eskola** | Mentorizazio kolektiboko tailerrak; startupei, enpresa sendotuei eta hazten ari diren enpresei laguntzeko ikastaroak, eta baita ekintzailetzari buruzko saioak ere, irakaskuntza orokor pribatuko eskolei zuzenduta. | Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | | |
| | **Aupa Zuek** | Pertsona ekintzaileen eta kanpoko pertsona gonbidatuen arteko lau hilean behingo ekitaldiak. Networkinga. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | | |
| | **Ekintzaileen Foroaren urteroko errekonozimendua** | Gipuzkoako ekintzaileen lana errekonozitzeko saria. | Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Arrisku kapitaleko fondoa** | Enpresa berriak sortzeko arrisku kapitaleko fondo espezifikoa, Geroa eta Elkargirekin batera sortua. 5 M€-ko hasierako inbertsio batekin, balio kate osoa hartzen du, startupen sorkuntzatik hasi eta garapeneko zein hazkundeko laguntza tekniko eta finantzarioraino. | | Geroa, Elkargi eta Adegi | Ideia eta egitasmo berriak<br>Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Mentorizazioa** | Ikaskuntza eta kontrasteko ibilbide berria pertsona ekintzaileentzat | | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Konekta Gipuzkoa Foroa** | Smartupekin lankidetzan, BerriUp, Adegi, Orkestra Crecermas, Tecnalia Ventures, Elkargi eta Geroaren arteko kooperazio formatu berria. Startupen aurkezpen espazio hau baliagarria da Gipuzkoan enpresa jarduera berria sortzeko. Hautatutako 10 startupi aukera ematen zaie interesa daukaten inbertsiogile eta enpresa txiki eta ertainekin harremanetan jartzeko. | Enpresa berriak<br>Enpresa ekintzaileak | BerriUp, Adegi, Orkestra Crecermas, Tecnalia Ventures, Elkargi eta Geroa | |
| | **Kolaborazioa Startinnovan** | Diario Vascorekiko kolaborazio honen bidez, 16 eta 20 urte bitarteko ikasle gazteen prestakuntza zikloetan portaera ekintzaileak sustatzen dira. | Irakaskuntza orokorra | ADEGIko Ekintzaileen Foroaren kolaborazioa Diario Vascorekin | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |
| CEBEK Emprende Foroa | **CEBEK Emprende Foroa** | Pertsona ekintzaileen komunitate honen xedea da pertsona horien arteko interakzioa, konexioa eta lankidetza bultzatzea, baita ikaskuntza partekatzea, esperientziak trukatzea eta enpresa berriak sustatzea ere, hainbat jarduera eta espazioren bidez. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **Pertsona ekintzaileei laguntzeko lankidetza hitzarmenak** | Ekintzaileei eta mikroETEei laguntzeko zerbitzuak; horretarako, lankidetza hitzarmenak izenpetzen dira finantza eta inbertsio eragileekin eta lege, telekomunikazio nahiz osasun eragileekin, besteak beste. | Enpresa berriak | La Caixa Obra Soziala, Clarke, Modet & Co, IMQ eta Euskaltel. | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Inbertsio foroa** | Finantzaketa premian dauden enpresentzako inbertsio foroa. | | Orkestra Crecer+ | |
| | **Kolaborazioa DEMArekin** | Urtebetetik gorako proiektu ekintzaileei hazten eta sendotzen laguntzeko. | | | |
| | **Mentoringa** | Bizkaia Mentoring Networking (BEAZ) eta SECODekiko lankidetza, ekintzaileei mentoring zerbitzuak emateko. | | Bizkaia Mentoring Networking (BEAZ) eta SECOD | |
| SEA Emprende Foroa | **Ekintzaileen foroa** | Pertsona ekintzaileen komunitate honen xedea da pertsona horien arteko interakzioa, konexioa eta lankidetza bultzatzea, baita ikaskuntza partekatzea eta zerbitzuetarako sarbidea izatea ere, hainbat jarduera eta espazioren bidez. | Pertsona ekintzaileak<br>Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak<br>Ideia eta egitasmo berriak |

| Eragile arduraduna | Ekintza | Deskribapena | Hartzailea | Kolabora-tzaileak | Bizi zikloaren ardatza / fasea |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Alava Crowfunders** | Crowfundingari buruzko aholkularitza pertsonalizatua eta informazio buletina, Arabako ekintzaile eta proiektuei zuzenduta. | Enpresa berriak | BIC Araba, Arabako Teknologia Parkea | Ideia eta egitasmo berriak |
| Elkargi | **Arrisku kapitaleko fondoa** | Enpresa berriak sortzeko arrisku kapitaleko fondo espezifikoa, Geroa eta Adegirekin batera sortua. 5 M€-ko hasierako inbertsio batekin, balio kate osoa hartzen du, startupen sorkuntzatik hasi eta garapeneko zein hazkundeko laguntza tekniko eta finantzarioraino. | Enpresa berriak | Geroa, Elkargi eta Adegi | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **PADEM-Ekintzaileentzako Zuzendaritza Programa Aurreratua** | Programa honen barruan, finantzaketa lerro espezifikoak, lagun egitea, mentoringa eta proiektu ekintzaile berriak kudeatzearen inguruko prestakuntza espezializatua sartzen dira. Oinarri zientifiko-teknologikoa eta hazteko potentzial handia edukitzeaz gain, finantzaketa bilatzen duten proiektu edo enpresa berritzaileak gidatzen dituzten ekintzaileei zuzenduta dago. | Enpresa berriak Enpresa ekintzaileak | BIC Gipuzkoa | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Prestakuntza finantzarioa** | Ikastaro, mintegi, jardunaldi eta programa exekutibo bidezko laguntza, finantza gelan. | | | |
| | **Hitzarmena GFArekin** | GFArekiko hitzarmena, startupen sorkuntza finantzatzeko; bai eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko ere. | | Gipuzkoako Foru Aldundia | |
| | **Elkargi-Bankoa hitzarmena** | Elkargiren eta Bankoaren arteko hitzarmena, enpresa berriei eta enpresa txiki eta ertainei kreditu lerro bermatuak eskaintzeko. 100 k€-rainoko kreditua. | | Bankoa | |
| Geroa | **Arrisku kapitaleko fondoa** | Enpresa berriak sortzeko arrisku kapitaleko fondo espezifikoa, Elkargi eta Adegirekin batera sortua. 5 M€-ko hasierako inbertsio batekin, balio kate osoa hartzen du, startupen sorkuntzatik hasi eta garapeneko zein hazkundeko laguntza tekniko eta finantzarioraino. | Enpresa berriak | Geroa, Elkargi eta Adegi | Ideia eta egitasmo berriak Hazkundea, sendotzea eta transmisioa |
| | **Mikrokredituak** | Debegesarekin adostutako akordioa, beren lan bizitzan zehar Geroari ekarpenak egin dizkioten Debabarreneko ekintzaileei 8 K€-tik 20 K€-ra bitarteko mikrokredituak emateko. | | Debegesa | Ideia eta egitasmo berriak |
| Emprendiza | **Pledge Fund Emprendiza** | Finantzaketatik harago doan inbertsio fondoa. Kapital adimenduna jartzeko gaitasuna dauka, besteak beste, neurri hauen bitartez: finantzaketarako sarbidea; ezagutzan eta esperientzia luzean oinarritutako mentoringa; inbertitzen duen proiektuekin loturiko kontaktuak; negozio plan aurreratuaren lanketari buruzko aholkularitza eta lehiarako negozio estrategia; negozioaren kudeaketaren inguruko aholkularitza, etab. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| Microwave | **Pledge Fund Microwave** | Startupak sustatu eta bertan inbertitzeko fondoa, non softwarea negozioaren funtsezko elementua baita. Zehazki, hazi fasean eta azelerazio fasean inbertitzean ardazten da. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **BIME** | Musikaren sektorean ekintzailetza sustatzeko ekitaldia. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| Metxa | **Azelerazio programa** | Startupen hautaketa eta azelerazio programa. Hautatutako proiektuek laguntza jasotzen dute honako arlo hauetan, besteak beste: finantzaketarako sarbidea, mentoringa, networkinga, azeleraziorako azpiegiturak, prestakuntza eta ekintzaileen hitzaldiak. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| | **Metxa Tour** | Metxaren azelerazio programaren deialdia pertsona ekintzaileengana gerturatu nahi duen ekitaldia. | Pertsona ekintzaileak Enpresa berriak | | |
| Berriup | **Azelerazio programa** | Hazteko ahalmena daukaten startupei lau hileko azelerazioa eskaintzen dien programa. Hautatutako proiektuek laguntza jasotzen dute arlo hauetan: programaren finantzaketa eta aholkularitza, inbertsiogile sarearen bidez finantzaketa gehigarria lortzeko; Negozio Eredu baten lanketa eta balidazioa; kontaktu sarerako sarbidea; nazioarteko ikuspegia; co-working, tutorizazio/mentoringerako espazioa; segimendua eta lege babesa, eta ekintzaileen hitzaldiak. | Enpresa berriak | | Ideia eta egitasmo berriak |
| Vocento Taldea | **B-Venture** | El Correo egunkariak sustatzen duen egitasmo honen xedea zera da: "berritzaileak" diren eta finantzaketa behar duten proiektuak azeleratzea. Proiektu horiei laguntza emango zaie bai umotzen diren bitartean bai martxan jartzean. | Enpresa berriak OTEBBak | Hainbat eragile kolaboratzaile | Ekintzailetzaren kultura eta balioak |
| | **StartInnova** | Diario Vascoren egitasmo honen bidez, 16 eta 20 urte bitarteko ikasle gazteen prestakuntza zikloetan portaera ekintzaileak sustatzen dira. | Irakaskuntza orokorra | ADEGIko Ekintzaileen Foroa | Ekintzailetzaren kultura eta balioak Ideia eta egitasmo berriak |

## A6. Propuestas de Resolución aprobadas por la Comisión de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 2 de octubre de 2017, tras el debate sobre el Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2020 (PIE 2020)

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar ditzala 2017-2020 Ekintzailetza Planaren errelato estrategikoan elkartasuna, lankidetza, talde-lana eta ekintzailetza kolektiboa, euskal gizartearen berezko balio bereizgarri gisa.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio koordina ditzala emakume ekintzaileak babesteko programak Euskadiko lurralde guztietan ezartzeko behar diren ekintzak, emakumeek ekintzailetzaren euskal ekosisteman duten parte-hartzearen adierazleak hobetzen jarraitze aldera.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ordenatu dezala ekintzailetzan lanean ari diren erakunde publiko, publiko-pribatu zein erabat pribatuen (BICak, unibertsitateak, teknologia-zentroak, komertzio-ganberak, enpresa-elkar¬teak…) mapa, eta definitu ditzala eragile bakoitzaren funtzio nagusiak, bikoizketak ekidite aldera.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, kontuan izanik BICek ekintzailetzan duten urteetako, indartu dezala haien funtzioa, parte-hartzea areagotuz enpresa ekintzaile berrien babes eta kontsolidaziorako programa berrien diseinuan, laguntza publikoen kontzesiorako erabaki-mahaietan, planaren jarraipen eta ebaluaziorako mahaietan, eta beharrezkoak ikusten diren beste edozein arlotan.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, kontuan izanik bereziki ekintzaile autonomoek eta enpresa txikiek dituzten zailtasunak, indarrean dauden programak ezagutzeko eta haietara iritsi ahal izateko tramitazio administratiboak gainditzeko, indartu ditzala ekintzaile horiei bereziki zuzenduriko arreta-, aholkularitza eta gidaritza-zerbitzuak.

6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio planean jaso dezala, ahalik eta epe motzenean, planean aipatzen diren lehentasunezko 9 jardute-ardatzetan oinarrituz, jardute-ildo eta -proiektu bakoitzari egokituko zaion aurrekontua.

7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala inbertsio pribatuaren pisua handitzeko 2017-2020 Ekintzailetza Planean agertzen diren programa guztietan.

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio koordina ditzala, Erakundearteko Mahaiaren esparruan, langileek enpresetan partaidetza izatea erraztuko duten zerga-neurriak Euskadiko lurralde osoan ezartzeko egin beharreko jarduerak.

9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sustatu dezala Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakundearteko Plana, plan horretan ezarritako helburuak betetzeko, eta lagun dezala Euskadin ekintzailetza ekonomiaren eta gizartearen aldaketarako benetako palanka bilakatzen, arreta berezia eskainiz ekonomia sozialeko enpresei.

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar ditzala, urteko balantzearen txostenean, 2017-2020 Ekintzailetza Planaren Erakundearteko Mahaian hartzen diren erabakiak.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, plana Eusko Legebiltzarrean aurkeztutakoan, aktibatu ditzala beharrezko diren lan-mekanismo eta organoak, plan hori eta Eusko Legebiltzarrean iristen diren akordioak egoki garatzeko.

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, plan horren bitartez eta inplikatutako erakunde eta eragile guztien konpromisoarekin, bultza dezala ekintzailearen ibilbidea ahalik eta gehiena erraztea, ideiaren sorkundetik enpresa-proiektua gauzatzeraino eta enpresa-proiektu hori sendotzeraino.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ORAIN
GIPUZKOA